

GRAND PLACE

PENSAMIENTO Y CULTURA - PENTSAMENDUA ETA KULTURA



Euskal Kultura
Cultura Vasca

GRAND PLACE

PENSAMIENTO Y CULTURA - PENTSAMENDUA ETA KULTURA

23 zk.

2025 ekaina



MARIO
ONAINDIA
FUNDAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailaren laguntza izan du aldizkari honek
VITAL KUTXAren laguntza du aldizkari honek.

Grand Place

Mario Onaindia Fundazioaren aldizkaria / Revista de la Fundación Mario Onaindia

Zuzendaria/Director:

Felipe Juaristi

Erredakzio Kontseilua / Consejo de Redacción:

Luisa Etxenike, Ivan Igartua, Belen Altuna, Jon Sudupe, Alberto Agirrezabal,
Gaizka Fernández Soldevilla, Xabier Garmendia, Alberto López Basaguren, Antonio Rivera

Harremanetarako e-maila / e-mail de contacto:

felipejuaristigaldos@gmail.com

Azala / Portada:

José Ibarrola

Barneko irudiak / Ilustraciones:

José Ibarrola, Ramón Aranzabal

Mario Onaindia Fundazioaren Helbidea / Dirección:

Zuberoa kalea, 24 20800 Zarautz

© Artikulugileek, testuena / De los textos, los colaboradores

© José Ibarrolak, Ramón Aranzabalek, irudiena / De las ilustraciones, José Ibarrola, Ramón Aranzabal

ISSN: 2386 - 429X

Legetzko Gordailua: SS - 992/2014

Harpidetza / Suscripción

info@marioonaindiafundazioa.org

Maketazioa, inprimaketa eta koadernaketa / Maquetación, impresión y encuadernación

Michelena artes gráficas

Pº Ubarburu, 54 (20115 Astigarraga)

graficas@michelena.eus

GRAND PLACE

PENSAMIENTO Y CULTURA - PENTSAMENDUA ETA KULTURA

SUMARIO / AURKIBIDEA

EDITORIAL / EDITORIALA	7
NORTE / IPARRA	
Euskal kulturaren inguruan / Notas sobre la cultura vasca <i>JON SUDUPE</i>	11
Euskarazko literatura eta biok <i>JOKIN MUÑOZ TRIGO</i>	31
Cultura vasca: cinco (heréticas) propuestas <i>GABRIEL INSAUSTI</i>	41
Euskara eta kultura Ipar Euskal Herrian: hondamendia basamortuan? <i>MANU GOJENOLA</i>	61
Cultura, Herencia y Universidad: lo que ETA robó a los vascos <i>ANA ESCAURIAZA ESCUDERO</i>	117
Guggenheim Bilbao: un modelo no repetido <i>ANTONIO RIVERA</i>	133
La narrativa de la violencia en la música contestataria: sobre la memoria del Rock Radical Vasco <i>DAVID MOTA ZURDO</i>	145
La cultura vasca frente a la violencia <i>IÑAKI VÁZQUEZ LARREA</i>	157
Kariñoa eta dedikazioa <i>PEDRO ALBERDI</i>	163
Cómo estudiar la violencia de persecución en Euskadi durante la <i>socialización</i> del sufrimiento <i>SARA HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN</i>	167
Kulturaren Genealogia <i>JUAN RAMON MAKUSO</i>	175
Gabriel Aresti eta gu <i>FELIPE JUARISTI</i>	183

OESTE / MENDEBALDEA

Nazio-identitatea: dimentsio anitzekoa	
XOSÉ M. NÚÑEZ SEIXAS	203
Euskal nazioaren alde, Euskal Estatuaren kontra	
XABIER ZABALZA	209
Envejecimientos alternativos: <i>Llevar en la piel</i> de Luisa Etxenike y <i>La última casa de</i> Arantxa Urretabizkaia	
RAQUEL MEDINA Y MARÍA PILAR RODRÍGUEZ	213
Dos premios Euskadi frente a la crueldad: Julia Otxoa y Miren Billelabeitia y la palabra hospitalaria	
ANNABEL MARTÍN	221

ESTE / EKIALDEA

Biktimen begietan idatzirik	
JULIA OTXOA	231
IX	
ELI TOLARETXIPI	233
Algunos fragmentos de la novela <i>Cuerdas</i> , Nocturna Ediciones (2025)	
LUISA ETXENIKE	237
Ihesaren itzalean	
PELLO OTXOTEKO	241

SUR / HEGOA

Vitoria después de la "Victoria"	
GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA	247
Para leer "Milton", de William Blake	
IÑAKI VÁZQUEZ LARREA	249
El colofón de una brillante carrera como historiador	
GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA	257

ELKARRIZKETA JOSEBA ZULAIKA

GRAND PLACE	259
-------------------	-----

COLABORADORES / PARTE HARTU DUTE	269
--	-----


EDITORIAL / EDITORIALA

Definir qué significa cultura vasca es una tarea que, vista la realidad geopolítica del país y su diversidad, puede quedarnos grande. Sería como tratar de acotar el mar, o poner barreras a las nubes. Cultura, a grandes rasgos, es toda aquella creación, simbólica o no, que se comparte en la sociedad. Añadiría más, cultura que no enriquece el espíritu, o que no ayuda a entender la realidad, o que no nos hace mejores, dudosamente será cultura. No todos somos capaces de escribir un soneto como Shakespeare, ni regalar a la humanidad el Peine del Viento como Eduardo Chillida, por poner dos ejemplos, pero su lectura y contemplación hace que sintamos un bienestar, difícil de explicar con simples palabras.

Hay una cultura vasca, es evidente, que no se limita al idioma en el que se expresa. Cultura es bastante más que un idioma, es una herencia, cuya conservación es obligación de todos. No podemos rechazar nada de lo legado, sea el euskera, el castellano, el francés, sea la filosofía grecolatina o el pensamiento judeocristiano, sea la aportación africana, asiática o americana. La cultura, si es algo, es un todo que define a la humanidad, y, a su vez, hace que cada uno de los humanos se sienta único y particular.

Euskal kulturak zer esan nahi duen zehaztea, herrialdearen errealitate geopolitikoa eta aniztasuna ikusita, gure neurritz kanpoko gerta daiteke. Itsasoa mugatzea edo hodeiei hesiak jartzea bezalaxe litzateke. Kultura, oro har, gizartean partekatzen den sorkuntza guztia da, sinbolikoa izan ala ez. Gehiago gehituko nuke, espiritua aberasten ez duen kultura, edo errealitatea ulertzen laguntzen ez duena, edo hobeak egiten ez gaituena, nekez izango da kultura. Denok ez gara gai Shakespearek bezala soneto bat idazteko, ezta Eduardo Chillidak bezala Haizearen Orrazia gizakiei oparitzeko ere, bi adibide jartzearen, baina baten irakurketak eta bestearen kontenplazioak ongizate bat sentiarazten digute, hitzez soilik azaltzeko zaila.

Euskal kultura bat badago, nabaria da; ez du mugatzen hitz egiten den hizkuntzak. Kultura hizkuntza bat baino askoz gehiago da, herentzia bat, eta horren kontserbazioa betebeharra du guztiok. Ezin dugu oinordetzan utzi zaigun ezer baztertu, hala hizkuntza (euskara, gaztelania, frantsesa), nola filosofia greko-latinoa edo pentsamendu judu-kristaua; ahaztu gabe ekarpen afrikarra, asiarrak edo amerikarrak. Kultura, zerbait bada, gizateria definitzen duen osotasun bat da. Era berean, gizaki bakoitza bakar eta partikular bihurtzen du.



NORTE
IPARRA

EUSKAL KULTURAREN INGURUAN

JON SUDUPE

NOTAS SOBRE LA CULTURA VASCA

Kultura, aparteko ezaugarria

Animalia berezia da gizakia: biologia eta kultura da aldi berean. Gure espeziea apartekoa dela uste izateko arrazoi sendorik badela uste du Richard Dawkinsek. Eta hitz bakarra darabil gizakiaren ohiz kanpoko ezaugarri nagusi hori laburbiltzeko: “kultura” (zentzurik zabalenean hartuta, pentsamendua, sinesmenak, hizkuntza, ohiturak, etika, etab.). Gizakiak hizkuntza konplexuak garatu ditu, sistema matematikoak landu, etika diskurtsiboak eraiki, sendagaiak eta ordenagailuak asmatu, eta horrek guztiak ondorio nabarmenak izan ditu gure bizitzan. Eboluzioan zehar, gure garun ahaltsuari esker eskuratu dugun garapen intelektualari kultura deritzogu. Naturak eman digu hitz egiteko gaitasuna, baina kulturari esker hitz egin dezakegu hizkuntza jakin batean, euskaraz, esaterako.

Ernst Cassirer filosofoarentzat, giza naturaren parte funtsezkoa da kultura, gizakiak munduan ireki duen dimentsio berria. Gizakia “animalia sinbolikoa” da, eta ha-

La cultura, una característica excepcional

El ser humano es un animal singular: es, a la vez, biología y también cultura. Richard Dawkins supone que hay razones sólidas para creer que nuestra especie es extraordinaria. Y utiliza una sola palabra para resumir esa característica inusual y principal del ser humano: “cultura” (en su sentido más amplio, pensamiento, creencias, lenguaje, costumbres, ética, etc.). El ser humano ha desarrollado lenguajes complejos, cultivado sistemas matemáticos, construido éticas discursivas, inventado medicamentos y ordenadores, y todo ello ha tenido consecuencias notables en nuestras vidas. Al desarrollo intelectual que hemos adquirido a lo largo de la evolución, gracias a nuestro poderoso cerebro, lo llamamos cultura. La naturaleza nos ha dado la capacidad de hablar, pero gracias a la cultura podemos hablar en un idioma concreto, podemos hablar en euskera.

Para el filósofo Ernst Cassirer, la cultura es una parte fundamental de la naturaleza humana, la nueva dimensión que el hombre ha abierto en el mundo. El ser humano es

ren nortasuna ulergaitza da bere inguru-nea osatzen duten adierazpen mitiko, erlijioso, artistiko, filosofiko eta linguistikoei lotu gabe. Gizakiak darabilen zeinu sistema garrantzitsuen bere ama hizkuntza da ("giza mundu horretan, berriz, hizkuntza dago erdi-erdian", dio Cassirerrek). Hizkuntzari zor diogu, neurri handi batean, kulturaren eboluzioa. Mitoa, hizkuntza, artea, filosofia, teknologia eta zientzia unibertsalak dira. Hori bai, kultura partikular guztiek dituzte beren berezitasunak.

Nazio hitzak bi esanahi ditu. Nazio kulturala dago, alde batetik, eta nazio politikoa, bestetik. Kulturaren, hizkuntzaren eta iragan historikoan oinarritutakoa da lehena; herritarren borondatean eta eguneroko plebiszitoan finkatzen dena, berriz, bigarrrena. Herder filosofo alemaniarrek Estatua eta nazioa bereizi zituen ("naturak nazioak sortzen ditu, ez Estatuak"). Berak hain grina eta erudizioz defendatu zuen nazioa ez da entitate politikoa, errealitate kulturala baizik. Herderren herri kontzeptuak zentzu kulturala du, "oso urrun edozein kontsigna politikotatik" (Gadamer).

Herder bere hizkuntza maite zuen aberzale alemana zen, gizaki eta herri guztien berdintasunaren aldekoa. Gobernu zentralistak gorrotatzen zituen, ez baitituzte herrien kultur berezitasunak errespetatzen. Herder, baina, ez zen ohartu edozein nazioaren barruan egon ohi diren berdintasun ugariez. Berarentzat pitzadurarik gabeko osotasun organikoa zen nazioa. Horregatik, Herderren nazioa –kulturalki eta etnikoki garbia– ez da gaurko gure nazioa. Ez zituen aintzat hartu kultura

un "animal simbólico" cuya personalidad es incomprensible sin atenderse a las manifestaciones míticas, religiosas, artísticas, filosóficas y lingüísticas que conforman su entorno. El sistema de signos más importante que utiliza el ser humano es su lengua materna ("mientras que en ese mundo humano la lengua está en el centro", dice Cassirer). Debemos en gran medida a la lengua la evolución de la cultura. El mito, el lenguaje, el arte, la filosofía, la tecnología y las ciencias son universales. Eso sí, todas las culturas particulares tienen sus peculiaridades.

La palabra nación tiene dos significados. Hay una nación cultural, por un lado, y una nación política, por otro. La primera está basada en la cultura, la lengua y el pasado histórico, mientras que la segunda se asienta en la voluntad ciudadana y en el plebiscito diario. El filósofo alemán Herder diferenció entre Estado y nación ("la naturaleza crea naciones, no Estados"). La nación que él defendió con tanta pasión y erudición no es una entidad política, sino una realidad cultural. El concepto de país de Herder tiene un sentido cultural, "muy alejado de cualquier consigna política" (Gadamer).

Herder era un patriota alemán amante de su lengua, partidario de la igualdad de todos los hombres y de todos los pueblos. Odiaba a los gobiernos centralistas, que no respetan las peculiaridades culturales de los pueblos. Herder, sin embargo, no se dio cuenta de las muchas diferencias que suelen existir dentro de cualquier nación. Para él la nación era un todo orgánico sin fisuras. Por eso, la nación de Herder –culturalmente y étnicamente pura– no es nuestra nación de hoy. No tuvo

bakoitzaren *barruan* izan ohi diren diferentziak (hizkuntza, genero, klase eta lurralde hausturak). Hori izan zen haren hutsegitea.

Definitzen zaila den kontzepturik baldin badago, hori identitatea da. Hizkuntzak egiten al du herri baten identitatea? Zer da gaur egun euskaldun izatea? Zer da euskal kultura? Askotan egiten diren galderak dira. Koldo Mitxelenak ere ez zeukan argi: "El vasco, el hijo del país, es sencillamente euskaldun: poseedor de la lengua vasca. Esto, ahora y hace bastantes años, no deja de plantear un problema grave: ¿cómo llamar a los descendientes de vascos, a los nacidos en Vasconia, a todos los vascos de deseo que no hablan la lengua vasca?". Ezaugarri soziologiko, politiko eta kultural desberdinak dituen gizarte plurala da gurea. Horregatik, zaila da euskaltasunaren muina zehatz-mehatz finkatzea.

Euskal Herria politikoki eta kulturalki zatituta egon da historian zehar. Ez da bat ez historiaz, ez kulturaz, ez erakundez. Ez du hizkuntza bakar bat. Euskara bera ere hainbat euskalkitan eta azpieuskalkitan banatuta dago. Desberdinak gara hainbat arrazoi historikorengatik: hizkuntz tradizioengatik, ideologia politikoengatik, nazioarekiko jarrerengatik, euskaltasunaren ikusmoldeengatik. Kulturazko eta politikazko aniztasuna ezaugarri duen gizarte moderno eta konplexua da gaurko euskal komunitatea. Bai euskaraz mintzatu den nekazari eta arrantzaile munduaren, bai erdaraz espresatu den hirietako merkataritza eta industria bizibideen arteko batasun kontraesankorra da euskal kultura. Mende askotako eragin kulturalen ondorio gara,

en cuenta las diferencias que se dan dentro de cada cultura (lengua, género, ruptura de clases y territorios). Ese fue su error.

Si hay un concepto difícil de definir, ese es el de la identidad. ¿El idioma conforma la identidad de un pueblo? ¿Qué es ser vasco hoy en día? ¿Qué es la cultura vasca? Son preguntas que se hacen y se han hecho muchas veces. Tampoco lo tenía claro Koldo Mitxelena: "El vasco, el hijo del país, es sencillamente euskaldun: poseedor de la lengua vasca. Esto, ahora y hace bastantes años, no deja de plantear un problema grave: ¿cómo llamar a los descendientes de vascos, a los nacidos en Vasconia, a todos los vascos de deseo que no hablan la lengua vasca?". La nuestra es una sociedad plural con características sociológicas, políticas y culturales diferentes. Por eso es difícil fijar con exactitud el núcleo de la vasquidad.

El País Vasco ha estado dividido política y culturalmente a lo largo de la historia. No es una ni por historia, ni por cultura, ni por instituciones. No tiene un solo idioma. Incluso el euskera está dividido en varios dialectos y subdialectos. Somos diferentes por diversas razones históricas: tradiciones lingüísticas, ideologías, políticas, actitud ante la nación, concepción de la lengua vasca. La comunidad vasca de hoy es una sociedad moderna y compleja caracterizada por la diversidad cultural y política. La cultura vasca es una unión contradictoria entre el mundo rural y pesquero que habla euskera y los medios de vida comercial e industriales de las ciudades en las que ha arraigado el castellano. Somos consecuencia ineludible de muchos siglos de influen-

ezinbestean. Gizakioi berezkoak zaizkigun ezaugarri unibertsalak salbu, euskaldunok ezer gutxi dugu komunean.

Aberriaren kontzeptua nazioarenetik bereizi zuen Letek. Hau da, abertzaletasuna eta nazionalismoa desberdindu zituen. Herderren antzera, nazionalismo politikoa beti susmagarria dela uste zuen. Desbideratua eta kaltegarria. Xabier Letek ere askoz garrantzitsuagotzat zeukan nazio kulturala nazio politikoa baino. Baina, are gogo-koago zuen aberriaren ideia: “Nik uste dut badagoela nazioa baino kontzeptu zabal eta indartsuago bat pertenezkia adierazteko, eta hori aberria litzateke”. Lete uste osoko abertzalea zen, baina abertzale desengainatua ere bai: “Abertzaletasuna, nik ulertzen dudan moduan, bukatua dago, nazionalismoak irentsi du”. Abertzale hitza nazionalismoaren sinonimo bihurtu da, zoritxarrez. Eta, ondorioz, bere jatorrizko esanahia galdu du. Hala ere, ez zuen esperantzarik galdu, eta Pío Barojaren antzera, Bidasoaren bi aldeetako “aberri posible eta maitagarria” amestu zuen.

Hizkuntza eta pentsamendua

Marteko biztanle bat gure Lur planetara etorriko balitz, lurtar guztiok hizkuntza bat bera hitz egiten dugula pentsatuko lukeela esan du Noam Chomsky hizkuntzalari ospetsuak. Izan ere, hain dira nabariak hizkuntzen arteko antzekotasunak! Giza Mintzaira bakarra dago, baina hizkuntza partikular asko. Koldo Mitxelenak egoki zioen: “Hizkuntza desberdinen muinean eta ondoan Giza Mintzaia dago”. Hitz egiteko berez dugun sena edo gaitasuna da hizkuntza

cias culturales. Salvo los rasgos universales que nos son propios a los seres humanos, los vascos poco tenemos en común.

Xabier Lete diferencié el concepto de patria del de nación. Es decir, diferencié el nacionalismo del patriotismo. Al igual que Herder, consideró que el nacionalismo político “siempre es sospechoso”. Desvirtuado y dañino. Xabier Lete también consideraba la nación cultural mucho más importante que la nación política. Pero, aún más le gustaba la idea de la patria: “Yo creo que hay un concepto más amplio y fuerte que la nación para expresar la pertenencia, y eso sería la patria”. Lete era un patriota de convicciones, pero también un patriota decepcionado: “El patriotismo, como yo lo entiendo, está acabado, se lo ha tragado el nacionalismo”. La palabra abertzale se ha convertido, desgraciadamente, en sinónimo de nacionalismo. Y, en consecuencia, ha perdido su significado original. Sin embargo, no perdió la esperanza y, al igual que Pío Baroja, soñó con una “patria posible y entrañable” a ambos lados del Bidasoa.

Lenguaje y pensamiento

Si un habitante de Marte viniera a nuestro planeta Tierra pensaría que todos los terrícolas hablamos una misma lengua”, asegura el prestigioso lingüista Noam Chomsky. Porque ¡son tan evidentes las semejanzas entre lenguas! Sólo hay un lenguaje humano, pero muchas lenguas particulares. Koldo Mitxelena decía acertadamente: “En la esencia de las diferentes lenguas está el habla humana”. El lenguaje o lengua es el instinto o capacidad que tenemos para hablar.

edo mintzamena. Garunean hazten da, giza gogoaren emaitza da, eta ez alderantziz. Funtsean, giza hizkuntza guztiek azpiko egitura bera dute, azaleko desberdintasunak gorabehera. Ez dago itzuli ezin daitekeen hizkuntzarik.

Herder eta Humbolten ildotik, “hizkuntza dela herri baten arima” adierazi zuen Txillardegik, ia-ia “klasiko” bilakatu den *Hizkuntza eta pentsakera* saiakera liburuan. Euskara eta herritartasuna berdindu zituen: hizkuntzak egiten du nazioa. Hizkuntza da naziotasunaren habe nagusia, identitate zeinurik behinena, herri nortasunaren erreferentzia nagusia. Txillardegiren *Euskera eta pentsakera*-n honako pasarte gogoangarri hau irakur daiteke: “Zerk egiten du Euskal Herria? Zerk eman dio bere izakera berezia? Zerk egiten du gure naziotasuna? Zerk bizi gaitu? Zerk bereizten gaitu? Zerk ematen digu gure euskal arima? EUSKERAK EZ BESTEK” (sic). Euskarak egiten gaitu euskaldun. Euskara hilko baltiz, “Euskal Herriak bere nazio-arima osoa galduko luke”, dio Txillardegik. Zalantzarik gabeko axioma dirudi. Egia ote da? Hizkuntzaren mende al dago pentsamendua?

Hizkuntzak moldatzen du gizakion pentsamendua. Hamaika bider entzun dugu ditxosozko lelo hori. Baina, hala al da? Gramatika sortzailearen oinarritzko hipotesia –gure garun egiturak determinatzen duela hizkuntza, alegia– Sapir-Whorfen hipotesia ezagunaren justu kontrakoa da: hizkuntzak ez du pentsamendua eratzen, alderantziz baizik. Hizkuntza bakoitzak pentsaera desberdin bat markatzen duela esatea “ergelkeria erabatekoa eta frogaezina” iruditzen

Crece en el cerebro, es producto del ánimo humano y no al revés. En el fondo, todos los lenguajes humanos tienen la misma estructura subyacente, a pesar de las diferencias superficiales. No hay ningún idioma que no se pueda traducir.

En la línea de Herder y Humbolt, Txillardegik señaló que “la lengua es el alma de un pueblo”, en el libro *Lenguaje y pensamiento*, que se ha convertido casi en un “clásico”. Identificó el euskera con la ciudadanía: el idioma hace la nación. La lengua es el principal pilar de la nacionalidad, el signo de identidad más importante, la principal referencia de la identidad popular. En *Euskera eta pentsakera* de Txillardegik se puede leer el siguiente pasaje memorable: “¿Qué hace Euskal Herria? ¿Qué le ha dado su carácter especial? ¿Qué hace de nuestra nacionalidad? ¿Qué nos vive? ¿Qué nos diferencia? ¿Qué nos da nuestra alma vasca? EUSKERAK EZ BESTEK” (sic). El euskera nos hace vascos. Si el euskera muriera, “Euskal Herria perdería toda su alma de nación”, afirma Txillardegik. Parece un axioma indudable. ¿Será verdad? ¿Depende el pensamiento del lenguaje?

El lenguaje moldea el pensamiento humano. Hemos oído ese estribillo docenas de veces. Pero, ¿es cierto? La hipótesis básica de la gramática creativa –que es la determinación del lenguaje por nuestra estructura cerebral– es justamente contraria a la conocida de Sapir-Whorf: el lenguaje no forma el pensamiento, sino al contrario. El conocido psicolingüista Steven Pinker considera una “estupidez absoluta e indemostrable” decir que cada lengua marca un pensamien-

zaio Steven Pinker psikolinguista ezagunari. Hizkuntzak pentsamenduan duen eragina mugatua da. Ez da egia hizkuntzak mundu ikuskera zehatz bat ematen digunik: euskaraz nahiz erdaraz hitz egin, ez dugu mundua desberdinki ikusten. Ez dugu bi “erataraz” pentsatzen, hizkuntza bakoitzaren arabera.

B. Whorf eta E. Sapir hizkuntzalariek hizkuntza bakoitzak mundu ikuskera diferentea eratzen duela argudiatu zuten, determinismo linguistiko moduko bat defendatuz. Baina ideia hori faltsua dela dio Steven Pinkerrek: “Hizkuntza desberdinetan hitz egitea ezin neurtuzko desberdintasunen sinonimotzat hartu ohi da, baina psikohizkuntzalari batentzat azaleko aldea da. Gizabana-koetan eta kulturetan hizkuntza konplexua nonahi dagoela jakinik, eta hizkuntza guztien azpian den diseinu mental bakarra ezaguturik, ez dago arrotza begitantzen zaidan hizkerarik, tutik ulertzen ez badut ere”. Giza espeziea bat bakarra den bezala, halaxe da giza hizkuntza ere. Euskara eta gainerako hizkuntzak oso desberdinak izan litezke, baina funtsean oinarri komuna dute. Hizkuntza bera hitz egiten dugu mintzaira desberdinetan.

Horixe da Noam Chomskyren gramatika sortzailearen ekarpen nagusia: hizkuntza guztiak bat bera dira funtsean. Giza hizkuntzen aniztasun ikaragarriaren azpian, badira berezko egitura batzuk, berdinak giza jende guztientzat. Hizkuntza bakoitzak munduaren ikuspegi guztiz berezia adierazten duela esan zuen Humboldték, eta Txillardegik bat egiten du harekin. Hala ere, “hizkuntzak gure pentsakera taxutzen duela” esatea gehiegikeria da, inolaz ere. Steven Pinkerrek ez

to diferente. La influencia del lenguaje en el pensamiento es limitada. No es cierto que la lengua nos dé una visión del mundo: tanto si hablamos en euskera como en castellano, no vemos el mundo de manera diferente. No pensamos de dos “maneras”, dependiendo de cada lengua.

Los lingüistas B. Whorf y E. Sapir argumentaron que cada lengua forma una concepción del mundo diferente, defendiendo una especie de determinismo lingüístico. Pero esa idea es falsa, dice Steven Pinker: “Hablar en diferentes idiomas suele considerarse sinónimo de diferencias inconmensurables, pero para un psicolingüista es una diferencia superficial. Sabiendo que en los individuos y en las culturas el lenguaje complejo está por todas partes, y conociendo el único diseño mental que subyace en todas las lenguas, no hay lenguaje que me parezca extraño, aunque no comprenda nada”. Así como la especie humana es una sola, así también lo es el lenguaje humano. El euskera y el resto de lenguas podrían ser muy diferentes, pero en el fondo tienen una base común. Hablamos la misma lengua en diferentes lenguajes.

Esta es la principal aportación de la gramática creativa de Noam Chomsky: todas las lenguas son esencialmente una misma. Bajo la inmensa diversidad de las lenguas humanas, hay unas estructuras propias, iguales para toda la gente humana. Humboldt dijo que cada lengua representa una visión del mundo totalmente particular, a la que se une Txillardegí. Sin embargo, decir que “la lengua configura nuestro pensamiento” es una exageración. Steven Pinker

du uste hizkuntzak gure kategoria mentalak determinatzen dituenik, baizik eta hizkuntza-
ren azterketak giza adimenaren eta izaeraren
alderdi asko argitzen dituela. Hizkuntza-
ren eginkizuna ez da pentsamendua sortzea,
berau garatzea eta aberastea baizik. Psiko-
logo eta hizkuntzalari kanadarrak dioenez,
sen onak erakusten digu pentsamendua eta
hizkuntza gauza diferenteak direla: hitzik eta
hizkuntzarik gabe ere pentsatu egin liteke.

Pinkerrek dioenez, informazio genetiko-
a ez dago hizkuntza zehatz batentzat bere-
ziki taxutua: "ez dago informazio genetiko
espezifikorik euskara, errusiera, ingelesa,
japoniera edo txinerarentzat". Mintzaira-
ren azpian datzan egitura sintaktikoa gizaki
guztientzako unibertsala eta komuna da
(giza natura bat bera den bezala). Hizkun-
tza batean edo bestean berba egin, pentsatu
berdin-berdin egiten dugu guztiok. Euskara
eta gainontzeko hizkuntzak oso desberdinak
direlakoan gaude, baina funtsean oinarri
bera dute. Hizkuntza diferentez hitz egiteak
ez du "ezin neurtuzko desberdintasunik"
adierazten: euskaldun elebidunok ez dugu
mundua ulertzeko bi ikuspegi desberdin.
Gure garuna bitan zatituta dago, baina ez
bi mundu ikuskeratan. Hala ere, Pinkerrek ez
du ama hizkuntza-aren berezitasuna ukatzen.

Pentsamenduaren adierazpena da hiz-
kuntza, ez haren jatorria. Giza hizkuntza
guztiek ideia mota berberak komunikatzeko
balio dezakete. Gizarte guztiek, baita atze-
ratuenek ere, hizkuntza konplexu eta zaluak
dituzte, erraztasunez hitz egitea ahalbide-
tzen dietenak. Ez dago besteak baino po-
breago edo zailagoa den hizkuntzarik. Ernst
Cassirer filosofo alemanak zioenez, "hizkun-

no cree que el lenguaje determine nuestras
categorías mentales, sino que el estudio del
lenguaje aclara muchos aspectos de la inte-
ligencia y el carácter humanos. La función
del lenguaje no es crear pensamiento, sino
desarrollarlo y enriquecerlo. El psicólogo y
lingüista canadiense afirma que "el sentido
común nos enseña que pensamiento y len-
guaje son cosas diferentes: sin palabras y sin
lenguaje también se podría pensar".

Según Pinker, la información genética
no está especialmente configurada para
un idioma concreto: "no hay información
genética específica para el euskera, el ruso,
el inglés, el japonés o el chino". La estruc-
tura sintáctica que subyace bajo el lenguaje
es universal y común a todos los hombres
(como la naturaleza humana es una misma).
Hablemos en una lengua u otra, pensemos
todos de la misma manera. Creemos que el
euskera y el resto de lenguas son muy dife-
rentes, pero en el fondo tienen la misma
base. Hablar diferentes lenguas no significa
"diferencias inconmensurables": los eus-
kaldunes bilingües no tenemos dos visiones
diferentes para entender el mundo. Nuestro
cerebro está partido en dos, pero no en dos
visiones de mundo. Sin embargo, Pinker no
niega la singularidad de la lengua materna.

El lenguaje es la expresión del pensa-
miento, no su origen. Todas las lenguas huma-
nas pueden servir para comunicar los mismos
tipos de ideas. Todas las sociedades, incluso
las más atrasadas, tienen lenguajes complejos
y ágiles que les permiten expresarse con sol-
tura. No hay idioma que sea más pobre o más
difícil que los demás. Como decía el filósofo
alemán Ernst Cassirer, "todos los lenguajes

tza guztiak dira osatuak, era argi eta egokian giza sentimenduak eta pentsamenduak adieraztea lortzen duten neurrian". Hizkuntza guztiak berdinak dira berez, baina denek ez dute historikoki eboluzio eta garapen bera izan. Hizkuntza bat ingurune berrira egokitzen ez bada, ahul bihurtzen da. Ahul bihurtu da euskara ere.

George Steiner saiakeragileak bere libururik bikainenetako batean, *Babelen ondoren* izenekoa, hizkuntz aniztasunaren goraipamena egin zuen: "Zigorra izatetik urrun, Babel agian oso onura handia da". Hizkuntza bat galtzen denean gizakiaren ondare biologikoaren zati bat galtzen da. Hizkuntzak ez dira izate abstraktuak, emaitza historikoak baizik. Edozein organismo bizi bezala, sortu, hazi eta hil egiten dira. Aniztasun biologikoa zein ekologikoa errespetatu eta babestu beharrekoak diren bezala, hizkuntzen aniztasuna ere defendatu beharra dago. Aniztasun biologikoaren alde egoteak hizkuntz aniztasunaren alde egotea esan nahi du. Giza kultura ezin da hizkuntza bakar batekin lotu. Azken batean, mundua eleanitza da, eta Euskal Herria ere gero eta eleanitzagoa (Gipuzkoan 130 hizkuntza baino gehiago hitz egiten omen dira).

Zoritxarrez, urtetik urtera, ehunka hizkuntza desagertzen dira, eta beraiekin itzelezko aberastasuna. Gizadiaren historian hurbil dagoen tragedia bat gogora ekartzen digu Pinkerrek bere liburuko kapitulu batean: munduko hizkuntzen % 90 (3.600 eta 5.400 bitartean) desagertzeko zorian egongo dira mende honetan. Iragarpen horrek kezkatu egin beharko gintuzke. Zer egin? Horra hor zer dioten Pinkerrek: "Hizkuntzen galera

son completos, en la medida en que consiguen expresar de forma clara y adecuada los sentimientos y pensamientos humanos". Todas las lenguas son iguales en sí, pero no todas han tenido históricamente la misma evolución y desarrollo. Si una lengua no se adapta al nuevo entorno, se vuelve vulnerable. El euskera también se ha hecho débil.

El ensayista George Steiner hizo en uno de sus libros más brillantes, titulado *Después de Babel*, una exaltación de la diversidad lingüística: "Lejos de ser un castigo, Babel es quizá un beneficio muy grande". Cuando se pierde una lengua se pierde parte del patrimonio biológico del ser humano. Las lenguas no son seres abstractos, sino resultados históricos. Como cualquier organismo vivo, nacen, crecen y mueren. Al igual que la diversidad biológica y ecológica debe ser respetada y preservada, también debe defenderse la diversidad lingüística. Estar a favor de la diversidad biológica significa estar a favor de la diversidad lingüística. La cultura humana no puede asociarse a un solo lenguaje. En definitiva, el mundo es plurilingüe, y el País Vasco también cada vez es más plurilingüe (dicen que en Gipuzkoa se hablan más de 130 idiomas).

Desgraciadamente, cada año desaparecen cientos de lenguas y con ellas una riqueza enorme. En un capítulo de su libro, Pinker nos recuerda una tragedia cercana en la historia de la humanidad: el 90 % de las lenguas del mundo (entre 3.600 y 5.400) estarán a punto de desaparecer en este siglo. Este anuncio debería preocuparnos. ¿Qué hacer? He aquí lo que dice Pinker: "Podemos anticiparnos a ciertas pérdidas de lenguas,

batzuei aurrea har diezaiekegu, deuseztatze kulturalaren kausa sozial eta politiko errepresiboenak geldiaraziz ez ezik, hizkuntzotarako pedagogia-materialak, literatura eta telebista garatuz". Euskara, bada, bide one-tik doala dirudi.

Euskaldun izateko moduak

Ibai Iztueta euskal kulturarekin zerikusia duten hainbat termino argitzen eta bereizten ahalegindu da *Cultura vasca vs Euskal kultura* liburu aipagarrian. Ahalegin bera egin du Joxe Manuel Odriozolak bere hainbat liburutan (*Hizkuntza, kultura eta gizartean*, besteak beste). Gai berberei bueltak ematen ari gara beti. Herria, nazioa, gizartea, euskal herria, abertzaletasuna eta antzeko kontzeptuak xeheki jorratu dituzte bi egileek. Baina batzuetan, ziurtasuna ez, baizik nahasmen-dua, eragiten dute bereizketa zorrotz horiek. Hainbeste argibide sakonen artean, digresio semantikoetan galtzen gara, ñabardura eta xehetasunetan endredatzen gara, eta gure zalantzak ez dira desagertzen. Hona hemen adibide bat: "Ez gara Euskal Herrian bizi. Batzuk Espainian bizi gara eta beste batzuk Frantzian". Zer arraio da hori? Ez bagara Euskal Herrian bizi, nola demontre izan gaitzke euskaldun eta euskal herritar? Euskal gizartea eta euskal herria ez direla gauza bera esateak, ba al du zentzurik?

Nahasmen bera sortzen zaigu kulturari dagokionez. Euskal kultura euskaraz bakarrik da posible, ala gaztelaniaz eta frantsesez ere bai?, galdetzen du. Gai honetan ageri diren bi interpretazio kontrajarri aipatzen ditu Iztuetak. Euskaldun askorentzat (Txillardegi, Joxe Azurmendi...) hizkuntza da bi

no sólo paralizando las causas sociales y políticas más represivas de la aniquilación cultural, sino desarrollando materiales pedagógicos, literatura y televisión para estas lenguas". El euskera, pues, parece que va por buen camino.

Formas de ser vasco

Ibai Iztueta ha tratado de aclarar y distinguir varios términos relacionados con la cultura vasca en su destacado libro *Cultura vasca vs Euskal kultura*. El mismo esfuerzo ha hecho Joxe Manuel Odriozola en varios de sus libros (*Lengua, cultura y sociedad*, entre otros). Siempre estamos dando vueltas a los mismos temas. Ambos autores han abordado en detalle conceptos como pueblo, nación, sociedad, pueblo vasco, nacionalismo, etc. Pero, a veces, no es la certidumbre sino la confusión la que provoca estas severas distinciones. Entre tantas aclaraciones profundas, nos perdemos en digresiones semánticas, nos enredamos en matices y detalles, y nuestras dudas no desaparecen. He aquí un ejemplo: "No vivimos en el País Vasco. Algunos vivimos en España y otros en Francia". ¿Qué es eso? Si no vivimos en el País Vasco, ¿cómo podemos ser euskaldunes y ciudadanos vascos? Decir que sociedad vasca no es lo mismo que pueblo vasco, ¿tiene algún sentido?

La misma confusión nos surge en el tema cultural. ¿La cultura vasca sólo es posible en euskera o también en castellano y francés?, se pregunta. Iztueta alude a dos interpretaciones contradictorias que aparecen en este tema. Para muchos vascos (Txillardegi, Joxe Azurmendi...) la lengua es el criterio que

kulturak bereizten dituen irizpidea: euskal kultura euskaraz idatzitakoa da bakarrik. Beste batzuek (Ramón Zallo, esaterako) kontzeptu zabalagoa aldarrikatzen dute, gaztelaniazko eta frantsesezko adierazpenak ere euskal kulturatzat hartuz. Hauentzat, kultura ez da soilik hizkuntza bat, zerbait gehiago da. Euskal herritar gehienak ez dira euskaraz mintzo. Bistan dago euskal kulturaz ez dutela gauza bera ulertzen bi aldeek.

Bitxia badirudi ere, ez dakigu oraindik zer garen, "euskaldunak", "euskal herritarrak" ala "Euskal Herriko hiritarrak". Ez dakigu nola deitu euskaraz ez dakien "euskaldunari". Iztuetak bereizketa bitxiak egiten ditu. "Abertzale" izendatzen ditu beren burua "euskalduntzat" dutenak; "nazionalista", berriz, beren burua espainol edota frantsesetzat dutenak. Euskal kultura zertan datzan zehazten saiatzen da Ibai Iztueta, eta oso argia da haren tesia: euskal kultura ez da "cultura vasca", hizkuntza desberdinak kultura desberdinen adierazpen baitira. Iztuetak, beraz, bat egiten du Txillardegiri eta Azurmendirekin: euskarak soilik bereizten du euskal kultura. Nabaria da erredukzionismoa. Euskal kultura bat besterik ez dago, baina bitan banatzen da: euskaraz nahiz erdaraz adierazten da. Zentzu horretan, "euskarazko euskal kultura" eta "erdarazko euskal kultura" gauza bera dira. "Euskaldun" eta "vasco" parekoak diren modu berean.

Ukaezina da euskara dela euskaldunon hizkuntza "propia" (hala dio Autonomia Estatutuak) eta, hortaz, bera da euskal herritasunaren oinarri nagusia. Baina begi bistako egia da, halaber, gaztelania eta frantsesa ere hemengoak direla, Koldo

distingue a ambas culturas: la cultura vasca es sólo la escrita en euskera. Otros, como Ramón Zallo, reivindican un concepto más amplio, considerando también las expresiones en castellano y francés como cultura vasca. Para ellos, la cultura no es sólo una lengua, es algo más. La mayoría de los vascos no hablan euskera. Es evidente que de la cultura vasca no entienden lo mismo ambas partes.

Curiosamente, todavía no sabemos qué somos, si "euskaldunes", "vascos" o "ciudadanos de Euskal Herria". No sabemos cómo llamar al vasco que no sabe euskera. Iztueta hace curiosas distinciones. Denomina "patriotas" a los que se definen como "vascos" y "nacionalistas" a los que se definen como españoles o franceses. Ibai Iztueta trata de definir en qué consiste la cultura vasca y su tesis es muy clara: "euskal kultura" no es "cultura vasca", ya que las diferentes lenguas son expresión de culturas diferentes. Iztueta coincide, por tanto, con Txillardegí y Azurmendi: "Sólo el euskera distingue a la cultura vasca". Es evidente el reduccionismo. Sólo hay una cultura vasca, pero se divide en dos: se expresa tanto en euskera como en castellano. En este sentido, "la cultura vasca en euskera" es lo mismo que "la cultura vasca en castellano". De la misma manera que "euskaldun" y "vasco" son iguales.

Es innegable que el euskera es la lengua "propia" de los vascos (así lo establece el Estatuto de Autonomía) y, por tanto, es la base fundamental de la ciudadanía vasca. Pero también es obvio que el castellano y el francés también son de aquí, como dijo Koldo Mitxelena. Son la expresión de gran

Mitxelenak esan zuen bezala. Euskal kulturaren zati handi baten adierazpen dira (euskal foruak eta ideologia nazionalista barne direla). Beraz, gaztelaniaz eta frantsesez egiten dena ere euskal kulturaren parte da. Ez du zentzurik euskal kultura hizkuntza bakar batekin lotzeak. Gaztelania eta frantsesa aspaldi errotu ziren gurean, eta euskal nortasunaren osagarri izan dira kulturgingizaren garapen eta hedapenean. Aristotelesen modura adierazita, euskaltasuna era askotara esaten da.

Ez dago mestizoa ez den kulturarik eta hizkuntzarik. Esan gabe doa euskara ere guztiz kutsaturik dagoela, beste hizkuntza batzuetatik hartu baititu hitz ugari. Giza talde guztiek dute harreman estua elkarrekin. Elkarrekintzak sortu eta mantentzen ditu tokiko kulturak, eta herrialde bat bera ere ez dago bakartuta. Gaur egungo testuinguru globalean, munduko kultur korronteen hartzaile eta isla da euskal kultura ere, ezinbestean. "Euskaldunok ez dugu, herri gaietan izan ezik, kultura berezirik", zioen K. Mitxelenak. Ez dago argiago esaterik.

Euskaldunok oso dilemazaleak gara. Karlistak ala liberalak. Nazionalistak ala sozialistak. Euskotarrak ala espainolak. Dena bitan banatzea gustatzen zaigu. "Abertzale/ez abertzale" dikotomia arruntaren araberak epaitu eta zatitzen dugu jendea. Eta, jakina, alde batekoak bakarrik dira "euskaldun onak". Konstituzionalistak *versus* soberanistak: hona hemen orainaldiko dilema nagusia. Bien artean aukeratu beharra dago derrigor. Ez omen dago beste alternatibarik. Alabaina, historiak ez al ditu gezurtatu erdibiketa muturreko eta ximple horiek? Ez

parte de la cultura vasca (incluidos los fueros vascos y la ideología nacionalista). Por lo tanto, lo que se hace en castellano y francés también forma parte de la cultura vasca. No tiene sentido relacionar la cultura vasca con una sola lengua. El castellano y el francés arraigaron en nosotros hace tiempo y han sido un complemento de la identidad vasca en el desarrollo y difusión de la actividad cultural. Expresada a la manera de Aristóteles, la vasquidad se dice de muchas maneras.

No hay cultura ni lenguaje que no sea mestizo. Huelga decir que el euskera también está totalmente contaminado, ya que ha tomado numerosas palabras de otras lenguas. Todos los grupos humanos tienen una estrecha relación entre sí. Las interacciones son creadas y mantenidas por la cultura local y ningún país está aislado. En el contexto global actual, la cultura vasca es también, necesariamente, receptora y reflejo de las corrientes culturales del mundo. "Los vascos no tenemos, salvo en materia de país, una cultura especial", decía K. Mitxelena. No se puede decir más claro.

Los vascos somos muy aficionados a los dilemas. Carlistas o liberales. Nacionalistas o socialistas. Vascófilos o españoles. Nos gusta dividirlo todo en dos. Juzgamos y dividimos a la gente según la dicotomía común "abertzale/no abertzale". Y, por supuesto, sólo los de una parte son "buenos vascos". Constitucionistas *versus* soberanistas: he aquí el gran dilema del presente. Hay que elegir entre ellos. Dicen que no hay otra alternativa. Sin embargo, ¿la historia no ha desmentido esas medianías extremas e ingenuas? ¿No coincidieron los liberales

al zuten liberal moderatuek eta euskal tradizionalistek bat egin foruen defentsan? Ez al zuen Indalecio Prietok 36ko Autonomia Estatutua bideratu Jose Antonio Agirrerekin batera?

Kontua da bi joera antagonistetan erdibitu dela euskal gizartea azken mendean: batek euskal naziotasun guztiz desberdina defendatzen du, eta besteak euskal nortasunaren espainiartasun erabatekoari eusten dio. Alde batekoek euskara eta euskarazko kultura hartzen dute euskal izaeraren oinarri bakartzat. Beste aldekoek, aldiz, euskal egitatearen alderdi kultural eta linguistikoa gutxiesten dute. Nazionalismo espainiarra eta euskalduna, beraz, aurrez aurre. Lehen joerari "Aranaren hutsegitea" deitu dio J. P. Fusik, eta bigarrenari "Unamunoren hutsegitea". Esan beharrik ez dago ikusmolde biak direla okerrak. Euskal Herria gizarte plural eta ñabarra da, desberdintasun sozio-ekonomiko nabariez gain, haustura kultural eta nazional nabarmenak dituen komunitatea baita. Erreferentzia anitzeko izaera da euskaldunona, nortasun ezaugarri bat baino gehiago baitugu gure baitan.

Badira, ordea, euskalduntasuna eta modernitatea kontrajartzen dituen bitasun antzu eta bateraezin horretatik irten direnak; esentzialismo biekini hautsi dutenak; mutur biak alboratu dituztenak. Ikusmolde abertzaleaz eta espainolistaz gain, bada tradizio luzea duen "hirugarren bide" bat: liberala, irekia eta euskaltzalea, Xabier Maria Munibegandik Koldo Mitxelenaganaino doana. Hirugarren bideak onartu egiten du euskaltasunaren eite berezi eta desberdindua, euskara batik bat. Baina, joera bereiz-

moderados y los tradicionalistas vascos en la defensa de los fueros? ¿No tramitó Indalecio Prieto el Estatuto de Autonomía del 36 junto a José Antonio Aguirre?

El caso es que en las dos tendencias antagonistas la sociedad vasca se ha partido por la mitad en el último siglo: una defiende una nacionalidad vasca totalmente diferente, y la otra mantiene la españolidad absoluta de la identidad vasca. Los de una parte consideran el euskera y la cultura en euskera como la única base del carácter vasco. Los del otro lado, en cambio, menosprecian la parte cultural y lingüística del hecho vasco. Nacionalismo español y vasco, por tanto, enfrentados. J. P. Fusi ha llamado a la primera tendencia "el error de Arana" y a la segunda "el error de Unamuno". No hace falta decir que ambas concepciones son desacertadas. El País Vasco es una sociedad plural y matizada, ya que además de diferencias socio-económicas evidentes, es una comunidad con notables fracturas culturales y nacionales. Lo vasco es un carácter multirreferencial, porque en nosotros tenemos más de una señal de identidad.

Hay, sin embargo, quienes han salido de esa bifurcación estéril e incompatible que contrapone lo vasco y lo moderno; quienes han roto con ambos esencialismos; quienes han sesgado ambos extremos. Además de la concepción abertzale y espainolista, hay una "tercera vía" con una larga tradición: liberal, abierta y euskaltzalea, que va desde Xabier María Munibe hasta Koldo Mitxelena. La tercera vía admite la forma diferente y diferenciada del euskera, sobre todo. Pero, cuestionando muchas tenden-

le asko auzitan jarritz, jarrera integratzaile, malgu eta eklektikoen alde egiten du. Euskal identitatea baieztatzen duen arren, ikuspegi unibertsalistan txertatzen du. Hitz batean, euskal gizartearen aniztasun kultural eta politikoa laburbilduko lukeen euskal identitatearen gutxieneko definizioa bakarrik izan daiteke euskal herritar guztien lokarri eta bilgune. Salvatore Mitxelena zaraustar idazleak zorrotz salatu zuen euskaldunon intransigentzia, sektarismoa eta integrismo itsua, eta "euskaltasun zabalenera abiatzeko" gomendatu zigun.

Inpasetik harago

Axular ezin argiago mintzatu zen euskararen auziaz. Honako pasarte hau idatzi zuen bere *Gero* liburuan.: "Baldin egin baltiz euskaraz hainbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, haiek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere; eta baldin hala ez bada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak...". Eta "bertze entsegu hobeago baten egitera" gonbidatu zituen euskaldunak. "Zeren halatan ez litzateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsia, nola munduak uste baitu eta baitaduka dela". Axularrek, beste euskal idazle klasiko askok bezala, euskaldunak egin zituen euskararen egoeraren errudun, jauntxoak eta apaizak batez ere, euskaraz egoki hitz egiteko gai ez zirelako. Beti ere, elite ekonomiko politiko eta kulturalak izan dira euskara abandonatzen lehenak. "Foruen garaiko agintariek ez ziren inoiz gehiegi arduratu ez euskaraz ez euskal kulturaz" (K. Mitxelena). Estatu nazionalak sortu baino lehenagotik dator atzerakada.

cias diferenciadoras, apuesta por actitudes integradoras, flexibles y eclécticas. Aunque afirma la identidad vasca, la inserta en la perspectiva universalista. En definitiva, solo una definición mínima de identidad vasca que sintetice la pluralidad cultural y política de la sociedad vasca puede servir de nexo y punto de encuentro de todos los ciudadanos vascos. El escritor Salvatore Mitxelena denunció tajantemente la intransigencia, el sectarismo y el integrismo ciego de los vascos y nos recomendó que "nos lanzáramos a la vasquidad más amplia".

Más allá del impase

Axular se refirió con claridad a la cuestión del euskera. En su libro *Gero* escribió el siguiente pasaje: "Si en euskera se hubieran escrito varios libros como sí se han escrito en latín, en francés o en otro idioma y lengua, habría sido también el euskera tan rico y usado como ellos; y, si no es así, de los propios vascos será la falta y no del euskera...". Invitó a los vascos a "hacer otro ensayo mejor". "Porque así el euskera no sería tan pobre, tan escaso ni tan cerrado, como el mundo cree y afirma que es". Axular, como muchos otros escritores clásicos vascos, culpó a los vascos de la situación del euskera, sobre todo a los señores y a los sacerdotes, incapaces de hablar correctamente en euskera. Siempre han sido las élites económicas políticas y culturales las primeras en abandonar el euskera. "Las autoridades forales nunca se preocuparon demasiado ni del euskera ni de la cultura vasca" (K. Mitxelena). El retroceso viene desde antes de la creación de los Estados nacionales. Sin embargo, no

Hala eta guztiz, ez ditut geroagoko bazterkeriak eta jokabide zapaltzaileak ahaztu nahi, batez ere frankismoaren garaian.

Unamunok uste du euskara ez dela komunikazio tresna modernoa. Hizkuntza primitiboa, landugabea dela, ideia abstraktuak adierazteko gai ez dena ("carece casi en absoluto de vocablos que expresen ideas suprasensibles"). Ez du, beraz, euskara biziberritu daitekeenik sinesten. Ez du garai berrietarako balio. Hiltzen utzi beharreko hizkuntza dela esango du (hori bai, merezitako hileta eskainiz), ez delako modernitatearekin bateragarria. Unamunorentzat euskaldun izatea euskara uzteko indar morala izatea da, bere ustez heriotzara kondenatuta baitago. Euskarak ez du kultur hizkuntza izateko barne gaitasunik: horixe da haren benetako minbizia. Unamunoren diagnostikoa zuzena zen, baina ez zuen konponbiderik egokiena aurkitu. Horra hor haren hutsegitea.

Unamunoren gurasoek euskaraz hitz egiten zuten, baina ez zen hori izan bere inguruan ikasi zuen hizkuntza. "Alde guztietatik euskaldun" gisa agertu zen beti. Euskaldun berria izan zen, euskararen katedrarako oposizioetan parte hartu zuen Bilbon. Zer norabide hartuko ote zukeen Unamunoren kultur jarduerak, katedra hura irabazi izan balu? Dirudienez, euskararen ezagutza eskasa zuen, eta traketsa haren erabilera. Ez zuen euskara gorrotatu, gutxietsi eta baztertu baizik. Ikerketarako monumentu ederra eta erlikia agurgarria zela iritzi zion ("¿Y el vascuence? ¡Hermoso monumento de estudio! ¡Venerable reliquia!"). Bilbo, "euskara hitz eginez", zentzugabekeria galanta iruditzen zitzaion.

quiero olvidar las exclusiones y comportamientos opresivos posteriores, sobre todo en la época franquista.

Unamuno cree que el euskera no es una herramienta moderna de comunicación. Lenguaje primitivo, inculto, incapaz de expresar ideas abstractas ("carece casi en absoluto de vocablos que expresen ideas suprasensibles"). No cree, por tanto, que el euskera pueda revitalizarse. No sirve para los nuevos tiempos. Dirá que es una lengua que hay que dejar morir (eso sí, ofreciendo un merecido funeral) porque no es compatible con la modernidad. Para Unamuno ser euskaldun es tener la fuerza moral para dejar el euskera, que a su juicio está condenado a muerte. El euskera no tiene capacidad intrínseca para convertirse en lengua cultural: ese es su verdadero cáncer. El diagnóstico de Unamuno era correcto, pero no encontró la solución más adecuada. He ahí su error.

Los padres de Unamuno hablaban euskera, pero no fue ese el idioma que aprendió a su alrededor. Siempre se mostró como "vasco por todos los lados". Fue euskaldun berri, participó en las oposiciones a la cátedra de euskera en Bilbao. ¿Qué rumbo habría tomado la actividad cultural de Unamuno si hubiera ganado aquella cátedra? Al parecer, tenía escaso conocimiento del euskera, y era torpe su uso. No aborreció el euskera, sino que lo menospreció y lo rechazó. Consideró que era un monumento precioso para la investigación y una reliquia venerable ("¿Y el vascuence? ¡Hermoso monumento de estudio! ¡Venerable reliquia!"). Bilbao, "hablando en euskera", le parecía un auténtico disparate.

1901eko abuztuaren 26an, Bilboko Lore Jokoetan, euskara erremedio gabe hilko zela iragarri zuen: "El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. No nos apesadumbre que perezca su cuerpo, pues es para que mejor sobreviva su alma". Eboluzio biologikoaren antzera egiten du aurrera eboluzio kulturalak ere. Ingurunera ondo egokitzen direnek bakarrik irauten dute. Horregatik, bere egiturazko ezintasunagatik, euskara nahitaez desagertuko zela uste zuen. Eta kausa intrintsekoengatik gertatzen da, eta ez beste zerbaitengatik. Euskaltzale handia izan zen Luis Villasantek ere antzeko zerbait esan zuen: "gaurko zibilizazio eta kulturaren mundu korapilotsuko gauzak taxuz azaltzeko, halako moztasun edo gaitasun eza nabari zaio" euskarari. Abokatu katalanak gai dira katalanez eztabaidatzeko, euskaldunak ez dira euskaraz eztabaidatzeko, esan ohi zuen. Euskara baserri giroan geratu zen, eta nekazal mundura zuzendutako testu erlijiosoak idazten ziren euskaraz, eta gainerako kontuetarako erdara erabili ohi zen.

Nolanahi ere, Unamunok egiazko arazoa planteatu zuen: euskararen ezintasuna. Eta euskaldunok ez diogu jaramon handirik egin. Euskarak modernizazio bidean pauso nabarmenak eman dituen arren, oraindik ez du filosofo bilbotarrak bota zigun desafioa irabazi. Azken urteotan abiada bizkortu badu ere, gaur egungo mundu modernora egokitu ezinda jarraitzen du. Pio Barojak ere antzera pentsatzen zuen: "El pueblo vasco tiene que vivir, y para ello tiene que adaptarse al ambiente de cultura en medio del cual vive; y para esa adaptación le estorba el vascuence". Hala esan omen zion

El 26 de agosto de 1901, en los Juegos Florales de Bilbao, anunció que el euskera moriría sin remedio: "El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. No nos apesadumbre que perezca su cuerpo, pues es para que mejor sobreviva su alma". De forma similar a la evolución biológica avanza también la evolución cultural. Solo duran los que se adaptan bien al entorno. Por eso, por su incapacidad estructural, creía que el euskera desaparecería forzosamente. Y ocurre por causas intrínsecas y no por otra cosa. Otro gran vascófilo, Luis Villasante, dijo algo parecido: "Para explicar con exactitud las cosas del complicado mundo de la civilización y la cultura de hoy, el euskera queda corto". "Los abogados catalanes son capaces de discutir en catalán, los vascos no lo son en euskera", solía decir. El euskera se quedó en un ambiente rural, y se escribían en euskera textos religiosos dirigidos al mundo rural, y para el resto de cuestiones se utilizaba el castellano.

En cualquier caso, Unamuno planteó el verdadero problema: la impotencia del euskera. Y los vascos no le hemos hecho mucho caso. A pesar de que el euskera ha dado pasos notables hacia la modernización, todavía no ha ganado el desafío que nos lanzó el filósofo bilbaíno. Aunque en los últimos años ha acelerado su marcha, sigue sin poder adaptarse al mundo moderno actual. Pio Baroja también pensaba de forma parecida: "El pueblo vasco tiene que vivir, y para eso tiene que adaptarse al ambiente de cultura en medio del cual vive; y para esa adaptación le estorba el vascuence". Dice

K. Mitxelena: "Euskara ez da egundo izan eta gaur ere ez da hizkuntza literarioa edo filosofikoa, zeren estua etorri baitzaie beren pentsamenduak hizkuntza horretan adierazi nahi dituzten euskaldunei". Biek ere gaur egungo kulturara egokitzeko oztopotzat zeukaten. Ondorioa: ez dezagun denbora alferrik galdu.

Zein zebilen zuzen eta zein oker? Unamunok arrazoi zuen: euskarak ez du gaitasunik. Eta arrazoi zuen Axularrek: euskaldunek dute horren errua (ez kanpotarrek). Gerroztik, asko aurreratu dugu. Baina, ahalegin handiak egin diren arren, euskara ez da behar beste garatu. Ez da behar adina landu, eta atzean geratu da mundu modernoan. Horregatik, euskaldun gehienek erdara dabilte elkarrekin komunikatzeko, errazago eta hobeto moldatzen baitira beren ideiak eta sentimenduak adierazterakoan (euskaraz hitz egiten dutenak ere askotan erdal esamoldeetara jo ohi dute). Iñaki Yurrebaso soziolinguistaren arabera, euskararen erabilera % 12aren inguruan dago (UNESCOren arabera, biztanleriaren % 33k baino gutxiagok hitz egiten duen hizkuntza desagertzeko arriskuan dago). Ez bakarrik kalean, beste arloetan ere agerikoa da jaitsiera; adibidez, zinema aretoetako filma emanaldien apenas % 1a izan zen euskaraz iaz, orain arteko baxuena.

Azken garaietan, guztiz bestelako ikuspegi bat nagusitu da gure artean: "Madrilek zapaltzen gaitu". Euskal nazionalismoak kanpoko etsaiei egozten die euskararen galera, "Euskal Herria asimilatze borondate politikoa" baitute. Gobernu espainolari eta frantsesari leporatzen die galbidera

que así se lo dijo a K. Mitxelena: "El euskera no ha sido nunca y hoy tampoco es un lenguaje literario o filosófico, porque les ha venido estrecho a los vascos que quieren expresar sus pensamientos en esa lengua". Ambos lo consideraban un obstáculo para adaptarse a la cultura actual. Conclusión: no malgastemos el tiempo.

¿Quién estaba en lo cierto y quién se equivocaba? Unamuno tenía razón: el euskera no estaba capacitado. Y tenía razón Axular: la culpa de ello la tienen los vascos (no los forasteros). Desde entonces, hemos avanzado mucho. Pero, a pesar de los esfuerzos realizados, el euskera no se ha desarrollado lo suficiente. No se ha trabajado lo necesario y ha quedado atrás en el mundo moderno. Por eso, la mayoría de los euskaldunes utilizan el castellano para comunicarse, ya que se las arreglan mejor a la hora de expresar sus ideas y sentimientos (incluso los que hablan en euskera recurren muchas veces a expresiones castellanas). Según el sociolingüista Iñaki Yurrebaso, el uso del euskera está en torno al 12 % (según la UNESCO, la lengua que habla menos del 33 % de la población está en peligro de extinción). No sólo en la calle, también en otros ámbitos es evidente el descenso; por ejemplo, el 1 % de las proyecciones de películas en cines fue en euskera el año pasado, el más bajo hasta la fecha.

En los últimos tiempos, una visión totalmente distinta se ha impuesto entre nosotros: "Madrid nos oprime". El nacionalismo vasco atribuye la pérdida del euskera a sus enemigos externos, que tienen "voluntad política de asimilar Euskal Herria". Culpa a los Gobiernos español y francés de haber llevado a la

eraman izanaren errua, Espainiako eta Frantziako Estatuek eragin dute euskararen “gutxiagotze egoera” eta atzerakada. Beraz, Axularrek eta Unamunok uste zutenaren kontra, errua ez da euskaldunena edo euskararena, kanpokoena baizik. Bistan da erosoagoa dela errua besteei botatzea geure buruari egozte baino. Baina, Axularrek idatzi zuen moduan, gurea da ardura.

Oroitzen zarete Mafías Múgicaren “libeloaz”? Ukabilak bezalako egiak esan zituen, hautsak bapo harrotuz. Simulakroaren orgiaz mintzatu zen, euskalduntze masiboa kritikatu zuen eta euskal erakundeen politika gaitzetsi: “Akatsa da euskalduntzen egindako gastua, euskaraz txutxumutxurik ere egiten ez den lekuetan” (Tuteran, Tafallan edota Barakaldon, esaterako). “Gaiez eta formaz erabat gaurkotua” dirudien arren, euskararen gabeziak eta ahuleziak azpimarratu zituen: “Euskarazko kultura, neurri handi batean, erdaraz bizi, sentitu eta pentsatu egiten duen jendeak egina da”. Ondorioz, egoerak hartaratuta, gero eta gehiago pentsatzen dugu erdaraz, eta gure euskarazko gaitasuna gero eta kamutsagoa da. M. Múgicak bere libeloa idatzi zuenean amestu ere egin ez zitzakeen aurrerapausoak eman ditu euskarak azken berrogei urteotan. Euskara gaur egungo hizkuntza bizi bihurtzeko ahalagin nabarmena egin da. Baina, argi dago ez dela nahikoa.

Humboldt ez zen batere baikorra euskal komunitatearen geroaz: Espainiako gobernuaren borondate txarrak eta euskaldunen zabarkeriak euskararen hondamendia ekarriko zutelakoan zegoen. Euskarak atzera ezineko gainbehera bizi zuela iritzi zion

perdición. El Estado español y el rancés han provocado la “situación de minoración” del euskera y su retroceso. Por lo tanto, en contra de lo que pensaban Axular y Unamuno, la culpa no es de los vascos o del euskera, sino de esos de fuera. Es evidente que es más cómodo echar la culpa a los demás que atribuirnos a nosotros mismos. Pero, como escribió Axular, la responsabilidad es nuestra.

¿Se acuerdan del “libelo” de Mafías Múgica? Dijo verdades como puños, y levantó una gran polvareda. Se refirió a la orgía del simulacro, criticó la euskaldunización masiva y censuró la política de las instituciones vascas: “Es un error gastar tanto en euskaldunizar, allí donde ni siquiera se chismoree en euskera” (como en Tudela, Tafalla o Barakaldo). Aunque parezca “totalmente actual por la temática y la forma”, subrayó las carencias y debilidades del euskera: “La cultura en euskera está hecha, en gran medida, por gente que vive, siente y piensa en castellano”. En consecuencia, las circunstancias nos llevan a pensar cada vez más en castellano, y nuestra competencia en euskera es cada vez más difícil. El euskera ha dado en los últimos cuarenta años avances que M. Múgica ni siquiera podía soñar cuando escribió su libelo. Se ha hecho un notable esfuerzo por convertir el euskera en una lengua viva como la actual. Pero, está claro que no es suficiente.

Humboldt no era nada optimista sobre el futuro de la comunidad vasca: estaba convencido de que la mala voluntad del Gobierno español y la negligencia de los vascos conducirían a la ruina del euskera. Consideró que el euskera vivía una decaden-

("eta hala, aspaldiko hizkuntza hau galduz doa etengabe"). Ehun urteko bizi-esperantza eman zion gehienara jota. Baina haren iragarpenak huts egin du: euskarak, nahiz eta osasun ona ez izan, bizirik dirau. Gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala da euskal komunitate autonomoan, eta inoiz izan ez dituen gizarte eta giza baliabideak ditu aurrera egiteko. Alde horretatik, inoiz baino hobeto gaude.

Joseba Zulaika antropologoak saiakera apagarria argitaratu berri du, *Aberriaren inpaseak*. Iraultza eta Erreforma garaiak bukatuta, euskal gizartea inpase garaian dagoela dio idazle itziartarrak. Kontraesan konponezinean bide gaude, noraezean, ez aurrera ez atzera, alegia. Eta inpaseak beharrezkoak iruditzen zaizkio, "paralisia eta krisia sortzeaz gain, gure aurrerapenen adierazle ere badirelako". Geldialdi horren arrazoiei buruz gogoeta eginarazi nahi digun saiakera polita idatzi du Zulaika adiskideak.

Badakigu ez dagoela ez erabateko erantzunik ez behin betiko soluziorik. Hala eta guztiz ere, nahitaezkoa da aterabide berriak proposatzea. Antinomia konponezinetan trabatuta segitzen badugu, inoiz ez gara geldi arotik aterako. Horregatik, inpase egoeratik harago eramango gaituzten urrats sendoak eman behar dira maila guztietan. Euskara hizkuntza ahula eta zaurgarria delako, politika eraginkorrak adostu eta ezarri beharko dira, biziraungo badu. Euskal gizarteak badu euskararekiko atxikimendua, eta aurrera egin dezan nahi du. Baina, hori ez da nahikoa; ezinbestekoa da babes instituzionala ere. "Askatasun mugagabeak bere kontra-

cia irreversible ("y así, esta lengua antigua se va perdiendo constantemente"). A lo sumo le dio cien años de esperanza de vida. Pero su anuncio no se ha cumplido: el euskera, aunque no goza de buena salud, sigue vivo. Junto al castellano, es la lengua oficial en la Comunidad Autónoma Vasca y cuenta con los recursos sociales y humanos que nunca ha tenido para salir adelante. En este sentido, estamos mejor que nunca.

El antropólogo Joseba Zulaika acaba de publicar un destacado ensayo, *Aberriaren inpaseak*. Terminados los tiempos de Revolución y Reforma, el escritor itziartarra afirma que la sociedad vasca está en plena época de impases. Vivimos en una contradicción irremediable, sin rumbo, no vamos hacia delante ni tampoco hacia atrás. Y considera que los impases son necesarios porque "no sólo generan parálisis y crisis, sino que son un indicador de nuestros avances". El amigo Zulaika ha escrito un bonito ensayo que pretende hacernos reflexionar sobre las razones de este atolladero.



Sabemos que no hay respuesta total ni solución definitiva. Sin embargo, es necesario proponer nuevas soluciones. Si seguimos atascados en irreparables antinomias, nunca saldremos del embrollo. Por eso hay que dar pasos firmes a todos los niveles, que nos lleven más allá de la situación de impase. Porque el euskera es una lengua débil y vulnerable, habrá que acordar e implementar políticas eficaces para que sobreviva. La sociedad vasca tiene apego al euskera y quiere que avance. Pero, eso no es suficiente; también es imprescindible el apoyo institucional. "La libertad ilimitada conduce

kora darama; izan ere, legeak babesten eta murrizten ez badu, libertateak indartsuen tirania ekarriko du ahulen gainera". Karl Popper filosofoak ekonomiarako defendatu zuen Estatuaren esku-hartzea hizkuntzaren esparrurako ere balio du. *Laissez faire* politikak ez du berdintasunik bermatzen.

Ez gaude egoerarik onenean, baina euskara galbidetik salbatu delakoan dago Joseba Zulaika. Batzuek oso beltz ikusten dute haren biziraupena: euskara kinka larrian dago, amildegiaren ertzean gaude, ia gureak egin du. Baina, itziartar laguna ez dator bat euskarari buruzko diskurtso agoniko horrekin. Miraritzat jotzen ditu euskararen aurrerapenak: "harrigarria" da azken urteetan egin den lana. Eta baikor begiratzeko dio etorkizunari. Asmatuko ahal du!

a su contrario, pues si la ley no la protege ni la restringe, la libertad traerá sobre los débiles la tiranía de los fuertes". La intervención del Estado que el filósofo Karl Popper defendió para la economía sirve también para el ámbito lingüístico. La política *laissez faire* no garantiza la igualdad.

No estamos en la mejor situación, pero Joseba Zulaika cree que el euskera se ha salvado de la perdición. Algunos ven muy negro su supervivencia: el euskera está en apuros, estamos al borde su futuro, casi se nos ha ido. Pero el amigo de Itziar no comparte ese discurso agónico sobre el euskera. Considera milagrosos los avances del euskera: "sorprende" el trabajo realizado en los últimos años. Y mira al futuro con optimismo. ¡Ojalá que acierte!



EUSKARAZKO LITERATURA ETA BLOK

JOKIN MUÑOZ TRIGO

Aitzin-solasa

Propio jarri dut idazki honen izenburuan *Euskarazko Literatura* eta ez *Euskal Literatura*. *Euskarazko* zer den argi dagoela uste dut; ez, ordea, hain argi, *euskal*, Espainiako zinemagintzan aspaldion eman diren sariak direla medio.

*Grand Place*koek kolaborazio hau eskatu didaten honetan, konturatu naiz efemeride pertsonal baten aurrean nagoela: aurten 30 urte beteko dira nire aurreneko liburua publikatu nuenetik: *Hausturak* (1995). Artean ez nintzen kontziente izenburu horrek zenbateraino baldintzatuko zuen nire literatur ibilbidea eta, oro har, nire orain arteko bizialdia bera ere.

Lerro hauetan saiatuko naiz hogeita hamar urteko ibilbide horretan ikusi eta bizi izandakoa deskribatzen. Horretarako, noski, nire esperientziatik tira egingo dut, baina baita idazleak ez diren nire lagun batzuen pertzepzioetatik ere, euskaldunak izan ala ez, ez baita guztiz beharrezkoa guri irakurtzea nolakoak garen jakiteko. Batzuetan gure esanek bainoago, gure eginek definitzen gaituzte-eta, beherago irakurriko duzuen bezala.

Hemingway-k esaten zuen Chicagotik hitz egiteko Chicagotik aldendu beharra dagoela. Bai, badakit, akaso urrutiegi joan zen. Bestela esango dut, badaezpada: koadro bat ondo ikusteko pauso batzuk atzera eman behar dira, aldendu, alegia, perspektiba hartzeko. Nik hogeita hamar urte luze daramat euskaraz idazten eta Chicagotik urruti –koadro galeriako bazter batean, beha–, eta distantzia horrek ematen didan perspektiba hori baliatu nahi dut euskarazko literaturaren barrenean deskribatzeko. Ez dut baloraziorik egingo –hau ona da, hori eskasa–, nahiz ajeen halako zerrenda bat osatuko dudana. Euskarazko literaturari begira jarri naiz, neure buruari begira jarri naizen aldi berean.

Goazen, bada, aje horiek aletzera.

1. Eskerrak jendeak ez duen irakurtzen...

Anekdota batzuetatik abiatuko naiz, anekdotek, sarri, kategoriara garamatzatelako.

Irakaskuntzan lan egin dut urte askoan, euskarazko ereduari. Horrek esan nahi du euskaldun lizentziatuek inguratuta egon naizela: filologoak, kazetariak, matematikoak, historialariak... Egunkarietarako harpidetza egiten zen garaian *—oh tempora, oh mores!—*, ikastetxean bi ale jasotzen genituen egunero: erdarazko bat *—ukitu abertzalearekin, noski—* eta *Berria* *—garai batean Euskaldunon Egunkaria—*. Erdarazkoa hartzeko lanak izaten ziren. Beti norbaitek edukitzen zuen esku artean. Inkuso bazen gurutzegrama egiten zuenik ere *—eta etxera eramaten zuenik, bide batez esanda—*. Euskarazkoa, berriz, ia beti libre. Umezurtz. Honekin esan nahi dut euskaldun lizentziatu horiek, eskolak euskaraz ematen zituzten horiek, euskarazko prentsa apenas irakurtzen bazuten, nork irakurtzen zuen? Goazen gordin esatera: nork irakurtzen du euskaraz? Zein da irakurle profila, lizentziatu euskaldun eta, salbuespenak salbuespen, abertzalearena ez bada?

Argi esan dezagun: euskararik gabeko abertzalerik baldin bada oraindik ere 2025ean *—AEK duela kasik 50 urte sortu zen; ¿a qué esperan ustedes?—*, nola ez da egongo, ba, euskaraz irakurtzen ez duen euskaldun lizentziatu abertzalerik?

Idazlea naizen aldetik ere esperientzia ugari ditut euskarazko literaturaren sistema literarioa zalantzan jartzera naramatenak, irakurlerik gabe ez baitago horrelakorik. *Bizia lo* narrazio liburua publikatu nuen euskaraz. Handik ez oso luzera, gaztelaniazko bertsioa atera zen: *Letargo*. Nire harridurarako, *feedback* gehiago jaso nuen bigarren honekin lehenengo harekin baino. Eta antzeratsu gertatu zitzaidan *Antzararen bidea* nobelarekin *—El camino de la oca*, gaztelaniazko bertsioan.

Anekdota xelebre bat ere badut kontu honen inguruan, nahiz kontestua dramatikoa den. *Atlantidara biqjia* bidaia *—satira—* liburuarekin gertatu zitzaidan. 2000. urtean publikatu zen. Kontestuaz jabetzeko, jo urte hartako efemerideetara eta izen hauekin topo egingo duzue: Fernando Buesa, Jose Luis López de Lacalle, Juan María Jauregui, José María Korta, Ernest Lluch... Barkatu iragana astintzeagatik amnesia adostu den garai honetan, baina kontestua gogora ekartzea beharrezkoa da irakurleak liburu horren inguruan nuen kezkari tamaina har diezaion. Liburua publikatzear zegoela, hauxe komentatu zidan hura irakurrita zeukan lagun batek *—gogoratzen haiz, I.¿—: “Tira, eskerrak jendeak ez duen leitzen...”¹*.

Baina itzul gaitezen ikastetxera, oraingo honetan, irakasle lizentziatuez bainoago, ikasleez hitz egiteko. Gaztelania nagusi den lurraldean euskarazko ereduari lan egin dugunok bada-kigu zenbateraino menperatzen duten ikasleek euskara. Ez dezagun geure burua engaina. Utikan euforiak. Batzuk ez dira bi esaldi txukun lotzeko gauza. Horri gehitzen badiogu gazteen artean dagoen irakurtzeko ohitura eskasa *—edozein hizkuntzatan—*, ekuazioaren emaitza argia da. Nola irakurriko dute arrotz zaien hizkuntza horretan, erdaraz ere irakurtzen ez badute? Garai batean, euskaraz irakurri nahi zuten alfabetatu gabeko euskaldun euskaltzaleez hitz

egiten genuen; orain, berriz, irakurri nahi ez duten erdaltzale sasi-euskaldun alfabetatuez hitz egin behar genuke.

Panorama honen aurrean, atentzioa ematen du Durangoko azoka gerturatu ahala argitaratzen den liburu kopuru ikaragarriak eta, horrekin batera, plazara ateratzen den idazle berri andanak. 2024ko azokan, kasu, nobedadeen artean 639 liburu zeuden. Ez da harritzekoa?

Garai batean uste nuen Durangoko azoka barrura begira antolatzen zela batik bat. Euskarazko idazle-irakurle-editoreek beren buruei egiten dieten omenaldi masibo halako bat iruditzen zitzaidan, autokonplazentziatik dezente duena. Baina aspalditik hasia naiz pentsatzen barrura ez ezik, kanpora begira ere egiten dela azoka, estrategia orokorrago baten parte gisa: nazio bat garela erakutsi nahi da. Nazioa izango bagara, lurralde bat, hizkuntza bat eta literatura normalizatu bat eduki behar da, ez baita nahikoa proiektio internazionala duten pare bat idazleren presentziarekin, hauen atzean dozenaka idazlek osatzen duten sistema literario sendo bat dagoelako itxura eman behar da. Ez naiz ezer berririk esaten ari. Batek *tropela* deitu zion idazle multzo horri. Nik figurante-koadrila deituko nieke...

2. Irakurtzen *digugu*. Gustatzen *gatzaizkigu*. Zelatatzen *gaitugu*

Behin baino gehiagotan, euskarazko idazle naizen aldetik, sentsazio ezatsegin batek harraipatu nau: euskarazko idazleok euskarazko literaturaren irakurle nagusiak garela. Liburuaren iruzkina egin dizun literatur-kritiko hori, aldi berean, idazlea da. Elkarrizketa egin dizun kazetaria ere idazlea da. Liburu editatu dizun editorea, kasu askotan, idazlea ere bada. Kalean topatu eta liburuagatik zoriondu –zer, bestela– zaituen hori ere idazlea da... Eta idazlea izan ezean, euskaldungoaren parte da, hau da, euskara irakaslea, euskara teknikaria edo euskara bultzatzen duen edozein taldetako kidea. Koadrila ugaritsua eta trinkotua osatzen dugu euskarazko idazleok askoren begietara. Baina kontuz trinkotasun horrekin, ordaina ere badakar-eta: endogamia.

Pirinioetako hartza ezari-ezarian degradatuz joan zen, zihoan tokira zihoala ispilu bat aurkitzen zuelako. Berdinaren demasiagatik eta arrotzaren faltagatik ez zuen aurrera egin. Endogamiak ahuldu eta, finean, desagerrarazi zuen.

Ekosistema itxi eta homogeen baten barruan bizi gara euskarazko idazleok, non gutxitan jasotzen dugun “kanpoko” baten –idazle ez den baten, kazetari-idazle ez den baten, literatur-kritiko-idazle ez den baten, editore-idazle ez den baten, euskaltzalea ez den baten– iruzkina. Eta, jasotzen badugu, kasu askotan –baldin eta lana itzuli bada– erdarazko bertsioagatik izaten da, benazko irakurleak direlako; ez idazle, ez kazetari, ez euskara irakasle, ez abertzale, ez gutar, azken batean. Niri, behinik behin, horrela gertatu zait erdaratu dizkidaten liburu eta artikuluekin.

Endogamia hori hizkuntzatik beretik dator, dudarik gabe. Abertzaleei esker –ezkerreko abertzaleei esker, nagusiki– garatu da euskara azken hirurogei urtean, horrek ekarri duen morrontza ideologikoarekin. Ez da Katalunian eta Galizian bezala gertatzen, non hizkuntzak

muga ideologikoak gainditzten dituen. Euskararen munduaren ekosistema oso definitua eta zedarritua dago. Euskaldunok oso prebisibleak garela esan nahi dut, aspertzearaino prebisibleak, batik bat euskaldun naturalik ez dagoen tokian. Eta horrek, ezinbestean, kontsentsu derrigorrezkoetara eraman –behartu?– du euskarazko idazlea.

Batzuetan iruditu zait idazle-jendea elkarri begira dagoela, nork-zer idatzi, nork-zer esan, nork-zer sinatu (edo ez sinatu), nork-zer sari irabazi... Zelatatzen *gaitugu*, alegia. Eta ezerk edo inork kontsentsu tazito horiek inarrostean baditu, “behar lukeenaren” zaindaria malmetitzen dira. Horren adierazgarri, 2007.urtean kaleratu zen *Utikan Euskadi Sariak* manifestua duzue, hogeita hamazazpi idazlek sinatua, herri honetan barbaridade asko ezezik, txorrada asko ere egin eta esan diren seinale ezin argiagoa². Detailerik nahi izanez gero, jo *Google*-ren bilatzailerera. Ez dut *performance* hura gogoratzeko gogorik. Ezta ondotik hartu zuen norabidea ere.

3. Donde me da la puta gana

Gorago trinkotasun edo konpaktazio horizontalaz mintzatu banaiz –taldekeria–, ondoko lerrootan konpaktazio bertikala hartuko dut hizpide –*totemkeria*–, euskarazkoa, neurri batean, belaunaldi-gatazkarik gabeko literatura iruditzen baitzait.

Beti aurrekoekiko miresmenean, eta gutxitan aurrekoekiko hausturan, eraikitzen den sistema literarioa ez zait apenas interesatzen. “Izan zirelako gara, garelako izango dira” esan eta esan aritzen gara, horrekin geure buruari egin diezaiokegun kalteaz ohartu gabe. “Izan zirelako... EZ NAIZ!!” aldarrikatu duen idazlerik ez dut ikusi gure artean azken berrogeita hamar urtean. Bueno, bai. Baina sikiera euskaraz esan balu...

*Escogeré desde ahora a mis hermanos,
defenderé la casa que yo quiera. (Jon Juaristi).*

Euskaltegian lan egin nuen garaian, bazegoen irakasle bat goizero, ikasleak klasera iritsi eta eseri bitartean, *Xalbadorren heriotzean* kanta jartzen zuena. Hutsik egin gabe. Goizeko zortzietan. Ikasleak nazkatzerainoko letania izatera iritsi zen, noski.

Nun hagooooo, zer larretaaannnn...

Behin, gela horretako ikasle bati, nire gelaren paretik pasatzen ari zela –koittadua berandu zetorren eta, itxuraz, bestondoarekin– zera aditu nion:

Donde me da la puta gana.

Kanpotik esan zuen. Bere erdararen mundutik. Seguru asko, behin euskaldun zintzo eta otzan bilakatuta –ez dakit horretara iritsiko ote zen, oso motibatuta ez zirudien-eta–, *Xalbadorren* bila eta bila ibiliko zen, larretik larrera, bere irakaslea bezala, afari, bazkari, parranda eta *Nafarroa Oinez* guztietan.

Gogoko ditugu fetitxeak. Idazle eta kantari-totemak, haiekiko betiereko zorretan bageunde bezala. Adibideak ez dira falta: Laboa, Sarrionaindia, Txillardegi... Eta baten batek totem izateko meriturik egin bai baina, aldi berean –inor ez da perfektua–, *kantzelatua* izateko motiborik badu, errehabilitatzen dugu, *gulagen* egonalditxo bat pasa eta gero, betiere. Etxe-pareren kasuan, adibidez, euskal letren fundatzailea izateak –meritua– barkatzen ditu bere ustezko traizio lanak –motiboa–. Miranderenean, arauak apurtzen egindako lana –meritua– gailentzen zaio bere izaera faxista eta filonaziari –motiboa–. Arestiri dagokionez, *Nire aita-ren etxea* poema egin izanak –meritua– bere abertzaletasun epela –motiboa– berdintzen du.

Beste batzuek, ordea, ez dute suerte bera eduki: Imanol Larzabalek meritu txikiegia edo motibo larriegia bildu omen zuen, Pevek-eko portuan segitzen baitu, gizarajoak, eskamak kentzen-kentzen-kentzen..., errehabilitazioa noiz iritsiko.

Bada kantu bat aditzen dudak bakoitzean orain hunkitu, orain barregura ematen didana, kontestua zein den. Ezin dut ebitatu –berdin gertatzen zait aurrekuekin–. Edozein okasiotarako balio du, dela afaria, dela despedida, dela omenaldia, dela hileta, dela jubilatu-txangoa... *Txoria txori* kantuaz ari naiz. Aurrekoekiko, familiarekiko, tradizioarekiko hausturaz dihardu kantu-komodina. Libre eta ezberdin izateko desiraz. Nik horrela ulertzen dut, bederen.

Gogoan dut behin ezkontza batean aditu nuela. Mundiala. Senar ezkonberria ikusten ari naiz, zutik, txotorra eta pattar kopa esku berean:

Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen
ez zuen alde egingo...
Inkluso San Mamesen kantatzen dute...

4. Groucho, Harpo, Chico eta... Karl

Har dezagun atsedean apur bat. Idatzi *YouTube*-ren bilatzailean “El camarote de los hermanos Marx”. Berehala nator...

Ikusi duzue? Eszena gogoangarria da: lagun-pila hori kamarotean mordoilo bat eginda, bultza honi, bultza hari, tokia ezin hartuz... Batzuetan halaxe irudikatzen dut euskarazko literatura: kamarote bat. Bertan idazleak metatuta daude, direnak eta izan direnak; eta inork atean kas-kas egiten badu, barrura sartzen da, bere lan berria besapean, noski. Ez baitira bakarrik idazleak zentimetro koadro guztiak betetzen dituztenak. Kamarote barruan argitaratu dituzten –eta inork gogoratzen ez dituen– nobela, poemario, entsegu, ipuin-bilduma eta artikulu guzti-guztiak daude, ahanzturatik salbatuko dituen UPV/EHU-ko tesi-egile baten lan monografikoaren esperantzan edo, paradoxa, gaztelaniarako zubia ahalbideratuko dion Espainiako argitaletxe baten deia³.

Marx anaien kamarotearen aldean, gureak gauza bakarra faltako luke: umorea.

Batzuetan liburu-kopuruak ematen digu idazle-kopuruaren berri. Gorago Durangoko Azokaren zenbakiak eman ditut. Baina kamaroteko gainpopulazioaz ohartzeko badira beste bideak ere. Esaterako, Euskal –euskarazko, uler bedi– idazleen Elkartek hirurehun bat bazkide ditu; hau da, 680.500 hiztun dituen hizkuntza baten eremu estuan hirurehun lagunek beren buruak idazletzat dauzkate. Espainian –Espainian bakarrik, Latinoamerika kontuan hartu gabe– 20.000 inguru lirateke...

Lagun-samaldari tamaina hartzeko, ordea, badira beste indikadoreak, akaso ez hain aseptikoak. Hara:

2022. urtean, ETako buru izan omen zen Mikel Antza idazlearen aldeko manifestua ehun eta hogeita lau euskarazko idazlek eta editorek sinatu zuten. Ikaragarria da motibo askorengatik, baina nik kopuruari baino ez diot erreparatuko. Goazen gorago egin dugun estrapolazio ariketa bera egitera: demagun Espainian –Espainian bakarrik–, 8.500 bat idazlek eta editorek sinatzen dutela antzeko manifestu bat-ren alde. Idatzi nahi duzuen izena puntuen gainean. Horretarako ere ez dut gogorik.

Azken anekdota honetara iritsita, badirudi beste Marx bat atera zaigula bidera. Bale ba, mintza gaitezen Karl-ez. Mintza gaitezen iraultzaz. Buf, ze perezaz...

5. La Cosa

Horrela esaten genion kamaroteko bazter batean tokia ezin hartuz genbiltzan txoro-haize batzuek *Euskal gatazka* deitu nahi izan zaion delirio horri. Horren itzalak, baina, gainditzen ditu politikaren mugak. Hizkuntza bera kutsatzen du eta, ondorioz, hizkuntza hori darabiltenak eguneroko bizitzarako, lanerako zein sorkuntzarako. Baina ez da nazio-kontuetan agortzen. Euskalduna izateak, kontestu askotan, batez ere euskaldun naturalik ez dagoen tokian –Madril barne, sinetsidazue–, aldarrikapen ororekin bat egitea dakar. Alternatiboa –eta transgresorenden ororekin, esan nahi dut.

Horretaz ohartzeko, aski da *Berria* egunkaria gainbegiratzea. Jasotzen dituen albiste, erreportaje eta ohiko zutabegileen esanak erabat sorpresarik gabekoak dira. *Prebisible* hitza erabili dut gorago. Horrek, noski, badu bere isla literaturaren eremuan.

Irudipena daukat euskararen berreskuratze eta indartze prozesuan izandako protagonismo nabariak lizentzia eman diola Ezker Abertzaleari euskal prentsan eta, neurri batean, euskarazko literaturan ere, nagusi izateko, goragoko ehun eta hogeita hamalau sinadura horiek lekuko. Baina bada beste adibide bat esan nahi dudanaren adierazgarri: 2007. urtean, Euskal Idazleen Elkarteko bazkide nintzen garaian –gerora bazkide izateari utzi nion–, Elkarteko lehendakariak bisita egin zion Iñaki de Juana Chaos ETAkide eta euskal idazleari, azken hau gose greban zegoela. Jo Google-era. Bertan aurkituko duzue horren berri.

Edonola ere, elkartasun keinu havei begira, jakin-minak jaten nau: berdin jokatuko zukeen euskarazko idazlegoak baldin eta kariñoa jaso duten idazle horiek –Antza eta De Juana– bes-telako delituetan inplikaturik izan balira? Adibidez: pederastia, sexu-abusuak...

6. Aurea mediocritas

Beste hizkuntzetara itzuliak izateak poza eragiten die euskarazko egileei, dudarik gabe. Hizkuntzaren mugak gaingitzea garrantzitsua da edozein sortzailerentzat. Bultzada erraldoia. Hala ere, gaztelaniarako zubiak beste edozein hizkuntzatarakoak eskatzen ez duen zerga bat pagatu beharra ekarri du: zer esan *La Cosa*-ren aurrean? Zer erantzun horretaz galdetuz gero, gaztelaniako irakurleak asebatez eta, aldi berean, parrokiakoak malmetitu gabe? Funanbulista lanak hasten dira orduan, Madril ez baita Paris, Berlin edo New York. Gaztelaniaz mintzo ziren terrorismoaren zartada sufritu zutenak, eta gure orduko isila orain abarrots bilaka daiteke haien belarrietan, behin haiekin aurrez aurre gertatuz gero.

Sigi-saga konplexua da, dudarik gabe. Izan da kazetari baten galderaren aurrean gorriak ikusitako idazlerik. Eta ez da, edo ez soilik, komunikabide ultraeskuindar faxista batzuen jardun gaiztoa, azken berrogeita hamar urteetako delirioak hartaratuta edozein kazetarik egingo lukeen galdera logiko eta pertinentea baino.

Euskarazko idazle horiek beren ekosisteman eroso sentitu dira: manifestu hura sinatu, pankarta hari heldu, ekitaldi hartan parte hartu... Baina, behin Espainiako muga gaingituta, ekosistema bestelakoa da. Galdera berberak dira, baina erantzunak aldatu dizkiete. Kodigoak ez dituzte menperatzen. Lehen esaten zenak ñabardura berriak hartu ditu. Hemen melodia zena, han musika dodekafonikoa da...

Guztiagatik ere, Ezker Abertzaleak Espainiako politikan parte hartzea erabaki duenetik eta, batik bat, Gobernuaren sostengu denetik, giroa eta, hortaz, narratiba ere aldatu da. Zorionez –bazen garaia– Espainiako ezkerrarekin bat egin du lege asko aurrera ateratzeko, espainiar guztien hobe beharrez. Hori dela eta, ezkerreko espainiarrek bestela begiratzen diete euskarazko idazleei eta sortzaileei oro har. Sinpatia eragiten dute Madrilgo sektore askotan. Batez ere ezkerraren ezkerrean. Gainera, politikoei lagundu egiten dute. Erantzun epelek –“*Aquello jamás debió ocurrir*”– balio badute ardurak gainetik astintzeko eta ezkerreko medioak ase uzteko, balioko ez dute, bada, idazlea elkarriketatua denean:

*Biolentziek –plurala– kutsatu dute nire idazle jarduna.
Gertatutakoa nire poesiaren atmosferan arnasten da.
Nire pertsonaiek isilean daramate motxila astun hori.*

Hala ere, batzuetan ez dute ondo neurtzen, eta asto-lasterrak hasten dira. Ikus, bestela, Mikel Antzaren aldeko manifestuak eragindako lurrikara mediatikoa. Inozoak gara, inozoak garenez...

7. Amaiur

Esan nahi dudana kontestualizatzeko, horra adibide batzuk:

2018. urtean Eneko Sagardoy euskal –euskarazko– aktoreak *Fedra* obra gogoangarrian lan egin zuen Meridako Antzerki Klasikoko Jaialdian. Aurreko urtean, *Handia* filmean parte

hartu zuen. Bere ibilbidean gaztelaniazko lanak eta euskarazkoak tartekatzen dira. Orain *euskarazko* aktore, orain *euskal* aktore.

Aitor Arregi eta Jon Garaño zinema zuzendariek *Marco* filma egin zuten 2024an. Filmografia zabala dute: *Handia* (euskaraz), *La trinchera infinita* (gaztelaniaz), *Loreak* (euskaraz) *Cristobal Balenciaga* (gaztelaniaz). Orain *euskarazko* zinema, orain *euskal* zinema.

Izaro kantariak modu naturalean gaztelania eta euskara tartekatzen ditu bere diskografian. Orain *euskarazko* kantari, orain *euskal* kantari.

Gatozen literaturaren alorrera, nire esperientziatik abiatuta:

Nire euskarazko liburu batekin joan izan naizenetan irakurle-taldeetara, batzuetan –normalean saioaren bukaeran eta tragoen aurretik– zergatik idazten dudana euskaraz galdetzen zidaten. Nik zera erantzuten nuen: “gogoak ematen didalako”. Uste dut ama hizkuntza gaztelania dugunoi egiten zigutela galdera hori, hizkuntza-aukera ezin ulerturik. Atera kontuak Castejonekoa bazara. Jakin-mina biderkatzen da. Baina anekdota ez da bertan agortzen: gaztelaniako itzulpenekin ere galdera bera egiten zidaten. Halakoetan zera erantzuten nuen, irribarretsua: “porque me da la puta gana”.

Sin tocar el suelo nobela kaleratzear zegoela atezuan nengoen, liburu nola jasoko ote zen. Gertuenei abisua pasa nien, apostasia bat egiten ari nintzen sentsazioarekin. Bidea urratzeak dakarren ordaina, aizue. Inbidiaz begiratzen nien musika, antzerkia eta zinemaren alorrean zihardutenei. Niretzako nahi nuen naturaltasun hori. Euskaraz eta erdaraz bizi naiz, eta bi hizkuntza horietan sortu nahi dut. Euskal aktoreek, euskal zinema gileek, euskal kantariak bezala. Orain *euskal*, orain *euskarazko*. Eta ez soilik zutabe puntual bat. Obra osoaz ari naiz: nobelak, poema liburuak, narrazioak... Nahi dudana eran txandakatuz.

Literatura da azken gotorlekua. “Berak esango digu zergatik egin duen”, irakurri nion kontu eske zebilen bati, euskal idazle gisa nire aurreneko nobela hura gaztelaniaz publikatu eta gutxira.

Berriki *Quiero ver* kaleratu dut. Propio ekarri dut nobela hori Euskal Herrira. Hemen publikatu nahi nuen, ez beste inon, hizkuntz-subiranotasuna literaturan ere normalizatze aldera. Eta erabakiak, sinetsidazue, ezin askeago egin nau.

Akaso bide baten amaiera logikoa baino ez da izan:

Joan zaretenean (1997): Nahi dudana idazten dut.

Antzararen bidea (2007): Nahi dudana idazten dut eta nahi dudanean.


Sin tocar el suelo (2022): *Escribo sobre lo que me da la puta gana, nahi dudanean y en el idioma que me da la puta gana».*

Lauaxeta tuneatuz:

*Dana eman behar jako
~~maite den~~ askatasunari*

OHARRAK

- ¹ Akaso idazki honek komentario bera mereziko luke.
- ² Idazki hau bera ere txorraden antologia horretan sar liteke.
- ³ Idazki hau ere kamarote horrexetara joango da, noski.



CULTURA VASCA: CINCO (HERÉTICAS) PROPUESTAS

GABRIEL INSAUSTI

Punto de partida

En 1984 Italo Calvino fue invitado a impartir una serie de conferencias en la Cátedra Charles Eliot Norton. De ahí nacerían sus *Seis propuestas para el próximo milenio* (1988), entre las que se encontraba la de la “rapidez”, la concisión como valor primordial de la escritura. Una apuesta casi performativa, porque el escritor le hizo honor a ella por el simple procedimiento de morirse, en septiembre de 1985, antes de redactar la última de la serie. Quizá por eso, y porque acometo este artículo en el trance de un ataque de superstición, al recibir la invitación de *Grand Place* he optado directamente por el cinco (también porque el carácter “herético” de lo que viene a continuación me invita a augurar lo peor). Toquemos madera.

Cualquier proyección hacia el futuro ha de tener en cuenta el pasado. Un resumen somero de lo acontecido en la sociedad vasca durante, pongamos, los últimos cuarenta y cinco años, podría esbozarse del siguiente modo. De una serie de provincias periféricas de un Estado centralista hemos pasado a un Estatuto de autonomía y un Amejoramiento del Fuero, esto es, a constituirnos en nuestro propio centro. De un universo mediático elaborado fundamentalmente en instancias foráneas hemos pasado a poseer nuestra propia industria de la información. Y, como resulta obvio, todo esto ha supuesto la aparición y consolidación en los medios de un euskera prácticamente ausente con anterioridad en el espacio público (aunque, como ha señalado Santiago de Pablo (2018, 50), contra la imagen de *Dark Ages* que predomina en el imaginario colectivo, los años entre 1960 y 1969 vieron la publicación de la nada despreciable cifra de 592 libros en euskera). Hemos pasado también de una sociedad industrial a una del ocio y el espectáculo, del *baby boom* al invierno demográfico, del *zoos politikon* al *homo ludens*. La nómina clamorosamente “falocrática”, en una cultura donde brillaban por su ausencia las mujeres, ha quedado atrás hace mucho tiempo¹; el voluntarismo y la improvisación parecen cosa de otro mundo en el panorama de las ayudas para la creación artística o las becas de estancia²; la pureza aranista no solo ha quedado descartada con la “impureza” que Aresti declaraba en *Maldan behera*, sino que esta última es vindicada por Fernando Aramburu en la dedicatoria de *Los peces de la amargura* (2006); del tubalismo de Garibay latente aún en

Larramendi y Astarloa únicamente quedan alusiones como la del personaje, Tubal Odriozola, que Kirmen Uribe quiso imaginar en *Bilbao-New York-Bilbao* (2009); y la retórica oteiziana que sugestionaba entre abstracciones al auditorio ha cedido el paso a una sensibilidad que enunció a las claras Atxaga en el segundo prólogo a su *Ziutateaz* (1976), titulado simplemente "Bigarrena": "Amo la concreción / por encima de todas las cosas" (1986, 11). Quien se presente en la plaza pública ataviado con trazas de hierofante solo despertará hoy la sospecha.

Junto con el marco jurídico y administrativo y sus consecuencias más inmediatas, creo que la sociedad vasca ha experimentado en común con el conjunto de Occidente otras alteraciones no menos relevantes. De un modelo de comunicación vertical que subrayaba la jerarquía y la autoridad hemos pasado a la horizontalidad acéfala y reticular de Facebook e Instagram; de las esperanzas milenaristas, a la indiferencia del presentismo; del reinado epistémico de la teología al imperio omnímodo de la tecnología; de una iniciativa cultural basada en la iniciativa personal a otra apoyada sobre la hiperinstitucionalización³; del impulso del mecenazgo privado al de la subvención pública; de un encuentro personal y de proximidad a la conversación *online* y el interlocutor remoto; de unos artistas que vivían en los valles de Inza o de Egüés a otros que marchan a Londres o Nueva York; del ejercicio comprometedor del *eragile* a la inanidad cuantitativa del *influencer*; y de un sentido de la duración, que parecía convertir algunas realidades en inconmovibles, a una fugacidad en la que todo lo sólido, como decía Marx, se desvanece. En fin, de "Pueblo Trabajador Vasco" las siglas PTV han pasado a significar "De Pamplona de Toda la Vida" (cuando no, como reza el rótulo de cierto establecimiento en Iruña, "Pamplona, Tapas y Vinos"). En términos más generales, lo más subversivo en el mundo del neocapitalismo y la aceleración de la vida no sería ya la acción sino la inacción; en lugar de vaciar o desocupar el espacio como proponía Oteiza, en nuestra taylorizada cotidianeidad lo urgente es vaciar el tiempo; más que una libertad de expresión ausente en cualquier dictadura, ante la proliferación de opiniones gratuitas propiciada por Twitter o X cada vez resulta más necesario reivindicar una *responsabilidad* de expresión; contra la sacralización de la identidad de antaño, la sátira benévola de programas como *Vaya semanita* permitió que nos tomásemos más a broma a nosotros mismos; y nuestra alma no aspira a migrar al muro totémico de Ekain sino a Instagram y Facebook (y, para lograrlo, no nos infligimos la ascética de Onaindía sino las disciplinas que nos proveen de *likes* y *followers*). El nuevo sujeto, resultado de su huella en la nube capturada por el algoritmo, tiene ahí su sede.

Un apartado especialmente relevante es la rápida y traumática secularización de un país que vio nacer a figuras como san Ignacio de Loyola o san Francisco Javier, que fue durante siglos semillero de sacerdotes, religiosos y misioneros y en el que, desde *Axular* y Etxepare hasta Villasant e Iratzeder, la cultura fue fundamentalmente un mester de clerecía hasta anteayer. El libro de Joxe Arregi *Jainkoaz galdezka: 40 euskal idazleen erantzunak* (2007) ofrece un mosaico de las posibilidades. Desde luego, una afirmación de la pluralidad religiosa dentro y más allá del ecumenismo, de la fidelidad al catolicismo tradicional, pero también de su revisión, y una preferencia por el encuentro experiencial o por el intimismo. También un abandono de la fe

recibida en muchos casos en la formación católica de la infancia, para adoptar una posición nítidamente atea o un rechazo de las formas institucionales de lo religioso y de la Iglesia católica en particular. En muchos casos, cuando este rechazo no es completo, junto con la pervivencia de la fe queda claro un descarte de la divinidad veterotestamentaria, justiciera y severa, y una aproximación a una religiosidad puramente crística. Además de las diferencias generacionales, uno de los hechos que la encuesta de Agirre pone de manifiesto es precisamente lo decisivo del punto de inflexión que supuso la secularización de los años sesenta y setenta, junto con el *aggiornamento* del Vaticano II, la contestación de lo eclesial y otros fenómenos: el consenso básico incluye la desaparición de una religiosidad “normativa” asociada al nacionalcatolicismo y, a menudo, el rechazo de cualquier imagen antropomórfica (Jaungoikoa) de la divinidad.

En cuanto a las expectativas quiliásticas que aquella secularización trajo consigo (y la consiguiente traducción de lo teológico a lo político, a través de la acción), cabe reconocer en el clima de los últimos cuarenta años una palinodia y una melancolía muy obvias. De la imagen monolítica (“la Euskal Herria pública de entonces fue [...] completamente católica” (1998, 27), así ha descrito Azurmendi la situación de los años cuarenta, cincuenta y primeros sesenta), a la pluralidad. Con dos precisiones: que, como advirtió el propio Azurmendi (1990, 205), lejos de la emancipación del individuo que la secularización en principio traía consigo, esta se ha traducido en la transferencia de algunas atribuciones de la Iglesia al Estado: es este último, y la Administración pública en todas sus formas, quien se erige en portador de la autoridad moral y fáctica, quien se ha constituido en una nueva Iglesia, quien catequiza y moraliza, quien salva o condena. Por su parte, en *Sekularizazioa Euskal Herrian*, Joxe Manuel Odriozola (2023, 34) ha puesto el dedo en la llaga de una segunda decepción: que el descarte del hecho religioso “convencional” no ha conducido a la mayoría de la población a un ateísmo científico o a un cuestionamiento consciente de los interrogantes de la existencia sino a un paganismo de hecho, a la sustitución de la “fe metafísica” por una “fe empírica” que desemboca en la adoración del bienestar, el nuevo culto con sus visibles liturgias. Nada que nos distinga demasiado del hedonismo sesentayochista predicado por Marcuse y el diagnóstico sobre su evolución que ofreció Lipovetsky, aplicables al conjunto de las sociedades occidentales. Habría que añadir una tercera variable: que los absolutos sufren de *horror vacui*, deponer a un ídolo del pedestal solo sirve para adorar de inmediato a otro (o al propio pedestal): el abandono de la fe religiosa se tradujo –véanse el Leturia de Txillardegui o algunos poemas de Txabi Etxebarrieta– en la búsqueda de un nuevo absoluto, y la patria fue la divinidad de reemplazo. De ahí que la nueva sensibilidad del vasco incluya cierta “crisis de fe” ante exigencias como el viejo *Aberria ala hil*.

Adiós al nominalismo

Una dificultad inicial me empuja a definir la primera propuesta. La expresión “cultura vasca”, en su acepción más maximalista, es doblemente problemática. Lo es, desde luego, porque la voz “cultura”, en la medida en que incluye en rigor todo lo que no sea “naturaleza”, amplía el espectro hasta tal extremo que sería imposible decir nada al respecto en unas pocas páginas;

piénsese en todo aquello que supone una aportación a la configuración de un mundo simbólico y la dificultad quedará provisionalmente solventada. Pero lo es también porque “vasca” abre la puerta a una cuestión nominalista (como no podía ser menos en un país que no se sabe si se llama Euskadi, Euskal Herria, País Vasco, Vasconia, *Pays Basque* o, en la jerga jurídico-administrativa, la suma de Comunidad Autónoma vasca, Comunidad Foral de Navarra y Departamento de Pirineos Atlánticos). Para empezar, hay una asimetría evidente: siendo *euskal* lo relativo al euskera, la expresión *euskal kultura* no puede traducirse por “cultura vasca”, dado que hay producción cultural realizada por vascos en idiomas distintos del euskera.

El tema dio de sí en numerosas y bizantinas discusiones durante el pasado siglo. Por ejemplo, mientras en la Academia Errante se vindicaba a un escritor como Pío Baroja, que dedicó sus buenas páginas a describir el país y que fue significativamente elegido por la editorial Destino para encargarle *El País Vasco* (1953), mientras José de Arteche, Jorge Oteiza y Miguel Pelay Orozco creían distinguir en la escritura de don Pío los rasgos del genuino “estilo vasco”, mientras en su obituario Koldo Mitxelena reivindicaba al *txapelaundi* del Bidasoa como “escritor vasco” contra su leyenda negra, mientras Juan San Martín subrayaba la condición de autor bilingüe de Serafín Baroja, el padre de Pío y amigo de *Bilintx*, en su *Vasconia* (1963) Krutwig lamentaba que Baroja no hubiese ejercido de vasco y en “Euskaldunen txapeldunei bi hitz” *Txillardegí* se mostraba tajante: “Baroja ha sido un español, no un vasco” (1983, 81). Pues bien, al cabo exactamente de veinte años de aquel debate, hete aquí que la pregunta sobre si Baroja era o no escritor “vasco” regresaba con la polémica entre Raúl Guerra Garrido y Xabier Kintana. Posteriores diatribas, aunque decrecientes en intensidad y resonancia, parecen devolvernos al Día de la Marmota⁴.

Por eso, señor editor de *Grand Place*, más que de “cultura vasca” preferiría hablar de “la cultura de los vascos”, esto es, la que en realidad producen y consumen los auténticos sujetos. Cuando se hace tal cosa, la apertura, la pluralidad y la mixtura se vuelven inevitables: en ese canon caben Ravel, el Padre Donostia, La Oreja de Van Gogh y Guridi tanto como *Hertzainak*, Benito Lertxundi, Imanol o Kepa Junkera; Celaya, Otero y Ángela Figuera tanto como Salvatore Mitxelena, Mikel Lasá o Artze; Txomin Badiola, Juan Luis Moraza, Cristina Iglesias o Andrés Nagel tanto como Remigio Mendiburu, Dora Salazar o Asier Mendizabal; Antxon Eceiza, Imanol Uribe y Montxo Armendariz tanto como Víctor Erice, Pedro Olea, Iván Zulueta, Álex de la Iglesia e Enrique Urbizu. Más que el hecho de que sea “vasca” o no, o en qué consista genuinamente tal cosa, me importa la calidad del fenómeno; y, por consiguiente, compro el argumento de Mitxelena (Koldo, esta vez): en un país pequeño no se anda nunca sobrado de referencias válidas, de modo que ¿por qué excluir algunas de las más ricas y valiosas?

Adiós al esencialismo

Un problema subyacente al anterior es el del esencialismo. En el momento en que se pretende establecer en qué consista “lo vasco” parece casi inevitable incurrir en la foto fija ante una realidad que es por definición móvil. En su relato “El sujeto (o las dificultades para ser

ZABALA, Juan Luis. "Politikan osagarri metafisikoak sartzea oinazea baino ez dakar", *Berria*, 2005.

ZALDUA, Iban. *Como si todo hubiese pasado: veinte años de relatos sobre el conflicto vasco*. Madrid: Galaxia Gutenberg, 2018.

ZULAIKA, Joseba. *Vieja luna de Bilbao: crónicas de mi generación*. San Sebastián: Nerea, 2014.



JOSÉ IBARROLA

EUSKARA ETA KULTURA IPAR EUSKAL HERRIAN: HONDAMENDIA BASAMORTUAN?

MANU GOJENOLA

0. Sarrera

Euskararen beherakada Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan hogeita hamar urte inguruan, % 10ekoa izan da eta 125 urtetan, % 50ekoa. Soziolinguisten arabera, 25 urte barne, hau da, 2050ean, euskara Ipar Euskal Herrian desagerturik izanen da, % 5etik beherako euskaldunekin, ez bada oraingo portzentaia % 10 emendatzen dela, UNESCOren arabera hizkuntza bat desagertzen da % 30 mintzo ez bada. Hau izanen litzateke bizi irauteko konponbidea.

Familietak transmitioa etenik dela erran dezakegu. Honi aitzin egiteko, ikastolak izan dira aterabide bakarra. Gau-eskolek (AEK) ere lan biziki garrantzitsua egiten dute euskara irakasten nagusiei.

Emaiten du kultur gutiengo arras kontzientziatu bat duela Ipar Euskal Herriak, biziki langilea dena. Ikastoletako haurrekin batera, aski izanen dea?

1. Egoera soziolinguistikoa

Euskararen oraina eta geroa ezagutzeko tresna baliagarriena Inkesta soziolinguistikoa da. Hauen bitartez, jakin daiteke Hizkuntz Gaitasuna, horrela, egungo mintzatzaileak zenbat diren eta izan ziren, haien bilakaera, bai adinaren arabera, zein lurraldeka, edo mintzatzeko duten erraztasuna. Lehen hizkuntzari dagokionez, lehen hizkuntzaren bilakaera eta adinaren arabekoa. Transmisioa nola eman den. Erabileraz jakin daiteke haren bilakaera, lurraldeka eta adinaren arabera. Jarrerak sustatzeaz eta haren bilakaera, interesa euskararekiko, irakaskuntza ereduaren lehentasuna. Laburbilduz, informazioa biziki interesgarria euskararen oraingo egoeraz eta etorkizunaz.

1.1. Estatistikaren egia

Ipar Euskal Herrian 1996an euskaraz emaiten zutenek % 26,4 ziren; 2001. urtean % 24,7; 2006an % 22,5; 2011an % 21,4; 2016an % 20,5 eta 2021ean % 20,1. Hau da, euskaldunen proportzioak behera egin du 1996tik 2021era, % 26,4tik % 20,1era, hogeitabost urtetan.

Kopuruari dagokionez, 2021ko VII. inkesta soziolinguistikoaren arabera, 51.500 euskaldun dira, hau da, herritarren % 20,1. XX. mende hastapenetan, 1900.urte inguruan, Iparraldean 120.000 euskaldun bizi ziren, eta bizizale guztien % 70 ingurua zen.

Beharakada hau ikusita, Euskal Konfederazioak, Iparraldeko EEP¹ (Euskararen Erakunde Publikoa) osatzen duten lau partaideei eskatu zien euskararen geroa segurtatuko duen hizkuntza politika bat proposa dezatela.

Euskal Konfederazioa² Ipar Euskal Herrian euskararen alde lan egiten duten elkarte eta federazioen bilgunea da. Euskal Konfederazioak eskatu dio EEPri 2050ean euskaldunen kopurua % 30 izan dadin, euskarak biziraun dezan, ea zer egiteko asmoa duten. Hau da, Lapurdi, Baxena Nafarroa eta Zuberoan euskarak 25 urtetan euskara emaiten dutenen kopurua % 10 igon behar du, euskarak iraunen badu. Hala ez balitz, 25 urtetan Iparraldean euskara zendurik, hilik izanen litzateke.

	2001	2011	2016	2021
Euskaldunak	% 24,7 (55.000)	% 21,4 (51.100)	% 20,5 (51.200)	% 20,1 (51.500)
Euskaldun Hartzaileak	% 11,9 (26.000)	% 9,1 (21.700)	% 9,3 (23.300)	% 9,4 (24.000)
Erdaldunak	% 63,4 (141.000)	% 69,5	% 70,2	% 70,5

Iparraldean 2016an, % 28,4 elebidunak ziren eta % 16,4 elebidun hartzaileak. Joera beheranzkoa da. Hala ere, azken urteetan joera hori moteldu egin da. Nolanahi ere, euskarak erabilera urria du kalean (2016): % 13,1 eta 14,5 artekoa zen Nafarroa Beherea eta Zuberoan, % 5,4koa Lapurdi barnealdean, eta % 1,6koa Baiona, Angelu eta Miarritzen (BAM).

1.2. VII. Inkesta soziolinguistikoa³

Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak *Hiruko Itunaren* bitartez euskara bultzatzeko sinatu zuten, hezkuntza, aisialdia, sozioekonomia, kirol eta ikerketetan euskara sustatzea. Eta itun honen bitartez egin da zazpigarren aldiz Inkesta Soziolinguistikoa. Ondoren, Inkestaren atal nagusiak datoz Iparralderako.

VII. inkesta soziolinguistikoa 2021 urtearen bukaeran egin da. Eusko Jaurlaritzak bost urte guztiez antolatzen du 1991etik goiti, eta EEPren laguntzarekin 2006tik goiti. Inkestak euskararen lurraldeetako 16 urte eta gehiagoko herritarrak kontuan hartzen ditu, 255.900 pertsona inguru Iparraldean.

Inkesta soziolinguistikoa 4 ikerketa-eremu estaltzen ditu: Herritarren hizkuntza-gaitasuna, Hizkuntza-transmisioa, euskararen erabilpena eta euskararen sustapenari buruzko jarrera.

2016ko joerari jarraikiz, kopuruan doi bat handitu da, baina, biztanleriaren gorakadaren ondorioz, proportzionaliki gero eta gutiago dira. 1996tik 2021era, % 26,4tik % 20,1era jaitsi

da. Bost herritarretik, lau ez dira gai euskaraz mintzatzeko. Jende anitz heldu da Ipar Euskal Herrirat kanpotik –bereziki, Frantziako ipar aldetik– eta hiztun kopurua atxikitzen bada, irakaskuntzaren bidez berriak sortzen direlako da, neurri handi batetan, ez etxeko transmisioa-gatik. Hizkuntz politika indartsuago bat behar litzateke, bestela, etorkizun iluna du euskarak.

Hizkuntz-gaitasuna

Euskaldunen proportzioaren bilakaera 1996tik 2021ra, Iparraldea (%).

1996	2001	2006	2011	2016	2021
26,4	24,7	22,5	21,4	20,5	20,1

Euskaldunen ehunekoaren bilakaera adin-tarteka (2001, 2011, 2016, 2021 urteak), Iparraldea (%).

Adina/Urteak	2001	2011	2016	2021
>= 65	35,5	30,6	28,1	25,5
50-64	29,8	24,4	21,3	19,3
35-49	23	15,1	14,6	15,1
25-34	12,1	13,9	15,7	17,21
16-24	12,2	17,6	18,9	21,5

Adin tarteei dagokienez, gazteenen artean ozta-ozta igon dela ikus daiteke, azken inkestare-kin alderatuta. 16-24 urtekoen artean, kasik bikoiztu egin da euskaldun kopurua hogeitertan: % 12,2 ziren 2001ean eta % 21,5 gaur egun. 25-34 adin tartean ere gorakada nabari da garai berean: % 12,1etik % 17,2ra igaro da. 35 urtetik gorakoetan, halere, beheraka segitzen du.

Hizkuntz-Gaitasuna Lurraldeka, 2021, Iparraldea (%).

	BAM	Lapurdi (BAM gabe)	Baxenafarroa + Zuberoa
Euskaldunak	8,4	22,9	47,5
Euskaldun Hartzaileak	6,2	11	13,8
Erdaldunak	85,4	66,1	38,7

Lurralde eremuei dagokienez, Baiona, Angelu eta Miarritze (Lapurdi) biltzen dituen BAM eremuan da egoerarik kritikoena. Herritarren % 85 baino gehiago erdaldunak dira, eta azken hogeitertan euskaldun proportzioa ez da aldatu. Datu azpimarragarria da, Ipar Euskal Herriko biztanleen kasik % 40 biltzen baitira hiru hiri nagusi horietan.

Euskaldunen ehunekoaren bilakaera eremuka: 2001, 2011, 2016 eta 2021, Iparraldea (%).

	2001	2011	2016	2021
BAM	8,3	9	8,4	8,4
Lapurdi (BAM gabe)	28,5	24	23	22,9
Baxenafarroa + Zuberoa	60,9	52	49,5	47,5

Lapurdin azken urteetako beheranzko joera gelditzear dela iduri luke, 2016koaren hein berean ageri baitira proportzioak. Nafarroa Beherean eta Zuberoan, 20 urtetan apaldu eta apaldu ari da: % 60,9etik % 47,5era jaitsi da euskaldunen kopurua.

Euskaldunen erraztasuna euskaraz hitz egiteko 2001, 2011, 2016 eta 2021. Iparraldea (%).

	2001	2011	2016	2021
Euskaldun elebidunak	21,6	23,1	20,9	20,5
Elebidun orekatuak	37,5	42,6	37,6	33,3
Erdal Elebidunak	40,9	34,3	41,5	46,2

Euskaldunek euskaraz mintzatzeko duten erraztasunari dagokionez, erdal elebidunen proportzioa emendatzen ari da azken urteetan. VII. inkesta soziolinguistikoaren arabera, Ipar Euskal Herriko euskaldunen % 46,2 sartzen dira kategoria horretan. Hobeki moldatzen dira erdaraz euskaraz baino. Azken hamar urteetan, 12 puntu emendatu dira erdal elebidunak.

Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntza bilakaera (2001-2021), Iparraldea (%).

	2001	2006	2011	2016	2021
Euskara	25	21,6	19,5	15,9	13
Euskara eta erdara	6,1	6,1	5,4	5,8	6

Une berean, lehen hizkuntza euskara dutenen proportzioa maldan behera doa inkesta batetik bestera. Herritarren % 25 ziren 2001ean, % 19,5 hamar urte geroago, eta % 13, 2021ean. Urte horietan guzietan, lehen hizkuntza gisa euskara eta erdara dituztenen kopurua hein berean gelditu da: % 6ren inguruan.

Lehen hizkuntza adinaren arabera, 2001, 2011 eta 2021, Iparralde (%)

Adina/ Hizkuntza	2001 Euskaldunak	2001 Erdaldunak	2011 Euskaldunak	2011 Erdaldunak	2021 Euskaldunak	2021 Erdaldunak
>-65	33,4	3,8	30,2	5,6	21,9	4,8
50-64	30,9	5,1	23,2	4,2	15,2	4,7
35-49	22,5	5,9	15,5	5,1	9,3	4,6
25-34	15,9	8,21	9,9	7,5	5,1	9,4
16-24	14,3	10,9	7,7	5,7	3,7	11,1

Adin tartearen arabera aztertuz gero, emaitza ez da hobe: adin tarte guzietan apaldu da lehen hizkuntza euskara dutenen kopurua. Haatik, 16-24 eta 25-34 adin tartetean, lehen hizkuntza gisa euskara eta erdara dituztenen kopurua emendatu da, % 5,7tik % 11,1era gazteenentzat, eta % 7,5etik % 9,4ra helduagoentzat.

Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera, 2001-2021, Iparralde (%).

Lehen Hizkuntza / Urtea	2001	2021
Euskaldun zaharrak	82	60,4
Jatorrizko Elebidunak	11	22,2
Elebidun berriak	7	17,4

Hala, euskaldun zaharren proportzioa % 82tik % 60,4ra jaitsi da azken hogeitertean. Jatorrizko elebidunen kopurua bikoiztu da –% 11tik % 22,2 dira gaur egun–, eta euskaldun berrien kopurua ere % 7tik % 17,4ra pasatu da.

Euskararen transmisioa

Transmisioa bi burusoak euskaldunak direnean, adinaren arabera, 2021, Iparralde (%)

	Euskara	Euskara eta Erdara	Erdara
Guztira	63,1	16,1	20,8
>- 50	66,6	13,8	19,6
36-49	55,9	19,9	24,2
16-34	48,8	27,3	24

Bi burasoak euskaldunak direnean, euskara transmititzen dute bi herenek. Baina adinaren arabera aztertzen bada, adin tartea apaldu ahala kopuruak behera egiten du. 16-34 urtekoen artean, erdiak baino gutiago dira guraso euskaldunak izanik ere euskara jaso dutenak. Euskara eta erdara jaso dituztenak % 27,3 dira, eta erdara baizik jaso ez dutenak, % 24. Aldea are handiagoa da 3-15 adin tarterako: euskara % 42, euskara eta erdara % 52, eta erdara % 6.

Euskararen transmisioa 3-15 eta 16-34 adin-tarteetan, bi burasoak euskaldunak direlarik, 2021, Iparraldea (%).

Adina	Euskara	Euskara eta Erdara	Erdara
16-34	49	27	24
3-15	42	52	6

Euskararen transmisioa burasoetatik bat euskalduna delarik, 2021, Iparraldea (%).

Euskara eta Erdara	26
Erdara	74

Haatik, bi burasoetatik bat erdalduna denean, nabarmen aldatzen da datua: hiru laurdenek erdara baizik ez dute transmititzen, eta beste laurdenak, euskara eta erdara.

Euskararen erabilera

Euskararen erabilera, 2021, Iparraldea (% eta kopurua).

Euskaraz erdaraz baino gehiago	Euskaraz erdaraz beste	Euskaraz erdaraz baino gutiago	Oso guti euskaraz	Beti erdaraz
% 1,1 2.900	% 6 15.400	% 11 28.100	% 3,4 8.700	% 78,5 200.800

Erabileraren datuek ere ikuspegi goibela ematen dute euskararentzat: beti erdaraz ari direnak % 78,5 dira, eta euskara oso guti edo erdara baino gutiago mintzo direnak, bat eginik, % 14,4. Euskaraz erdaraz baino gehiago mintzo direnak % 1,1 dira, eta bi hizkuntzak hein berean darabiltzatenak, % 6.

Euskararen erabileraren bilakaera, 2001-2021, Iparraldea (%).

	2001	2006	2011	2016	2021
Euskaraz erdara beste edo gehiago	10	10,7	9,6	8,1	7,1
Euskaraz erdara baino gutiago	11,7	12	9,3	10,2	11

Euskararen baliatzea tipitzen ari da, 2006tik 2021era.

Euskararen erabilera lurraldearen arabera, 2021, Iparraldea (%).

	Euskaraz erdaraz baino gehiago	Euskaraz erdaraz beste	Euskaraz erdaraz baino gutiago	Oso guti euskaraz	Beti erdaraz
BAM	0,3	1,6	5,1	2,6	90,4
Lapurdi (BAM gabe)	0,6	6,8	12,9	3,4	76,4
BaxeNafarroa + Zuberoa	5,8	17,4	22,7	6,1	47,9

BAM eremuan [Baiona, Angelu eta Miarritze (Lapurdi) eremuan] dira erabilera daturik okerrak: euskaraz erdaraz beste eta gehiago mintzo direnak batuta, ez dira % 2ra heltzen; beti erdaraz ari direnak % 90etik gora dira. Lapurdiko gainerako eremuan, hiru laurdenak baino gehiago beti erdaraz ari dira, % 13 erdaraz gehiago euskaraz baino, eta % 7,4 erdaraz beste edo gehiago. Zuberoan eta Nafarroa Beherean dira daturik onenak: % 23,2 erdaraz beste edo gehiago ari dira euskaraz; eta erdara hutsean ari direnak erdiak baino gutiago dira.

Euskararen erabileraren bilakaera adinaren arabera, 2011-2021, Iparraldea (%).

2011	Euskaraz erdara beste edo gehiago	Euskaraz erdara baino gutiago
> 65	16,6	9
50-64	10	9
35-49	5	8
25-34	6	12
16-24	5	12

2021	Euskara erdaraz beste edo gehiago	Euskara erdara baino gutiago
> 65	9,4	11,7
50-64	8	9,4
35-49	4,8	11,4
25-34	5,8	10,6
16-24	5,7	12,4

Oro har, euskararen azturazko erabilpena (euskara frantsesa baino gehiago edo hein berean erabiltzen delarik) gutitzen ari da duela 10 urte egindako inkestaren emaitzekin konparatuz. Aldiz, noizbehinkako erabilera (euskara frantsesa baino gutiago edo askoz gutiago erabiltzen delarik) pixka bat emendatu da (% 9,3, 2011n, % 10,2, 2016ean eta % 11, 2021ean) ia adin-talde guztietan.

Euskararen erabilpen tasarik handiena duen adin-taldea 65 urte eta gehiagokoena da beti. 16-24 urteko adin-taldekoak dira 10 urtetan, ohiturazko erabileraren indarberritze txiki bat duten adin-tarte bakarra.

Jarrerak

Euskararen sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera, 2011-2016-2021, Iparraldea (%).

Urteak	Alde	Ez alde, ez kontra	Aurka
2011	38,5	40,2	21,3
2016	35,3	47,5	17,1
2021	36,3	49,2	14,5

Euskararen sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera aztertu dute azkenik. Azken hamar urteetan aurka direnen blokea apaldu dela erakusten dute datuek: % 21,3tik % 14,5era jaitsi da. Herritarren erdiak ez dira ez alde ez kontra.

Euskararekiko interesa, 2021, Iparraldea (%).

Oso handia	29,6
Handia	30,9
Zertxobait	21,4
Txikia	10
Batere ez	7
Ez daki / Ez du erantzuten	1

Haatik, herritarren % 60 inguruk interes handia edo oso handia erakusten dute. Irakaskuntza ereduari buruzko iritziak ere erakusten du hori.

Irakaskuntza ereduaren hautuen lehentasuna, 2011 eta 2021, Iparraldea (%).

	Euskara, frantsesa ikasgai	Euskaraz eta frantsesez	Frantsesez euskara ikasgai	Frantses hutsean	Ez du erantzuten
2011	18,6	33,6	23,6	20	3,9
2021	16,5	37,5	25,4	15	6,1

Euskara hutsean ikastearen alde egiten dute % 16,5ek –bi puntu apaldu da 2011tik–, eta euskaraz eta frantsesez ikastearen alde % 37,5ek –lau puntuko emendatzea hamar urtean–. Orotara, % 54ak euskarazko irakaskuntzaren alde egiten du. Frantses hutsean ikastea nahi dutenen blokea bost puntu apaldu da: % 15 dira gaur egun.

Jarrerak atalaren laburpen gisa, erran daiteke: Ipar Euskal Herriko pertsonen % 16,5ek nahi luke seme-alabak murgiltze ereduak eskolatzea eta % 37,5 eredu elebidunean. 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 36,3 euskararen erabilpenaren sustatzearen alde dira. Ez alde ez aurka direnak asko dira eta proportzio handiagoan 2016 urteari konparatuz: % 49,2, 5 urte lehenago % 47,5 zirelarik. Aurka direnak gutitu dira: % 14,5 (2021ean), % 17,1 zirelarik duela 5 urte.

Lotura egin daiteke euskarari buruzko jarreraren eta hizkuntza-gaitasunaren artean: euskaldunen % 70, elebidun hartzailen % 48,4 eta erdaldunen % 25a euskararen erabilpenaren sustatzearen alde dira. Ipar Euskal Herriko biztanleen % 60 inguruk euskararekiko interes handia edo biziki handia du. Kasik % 50ek diote gutienez euskara sustatzeko ekitaldi bat ezagutzen dutela. Inkestaren hain datu negatiboen aitzinean, erran daiteke badirela alde positiboak.

1.3. Iritziak 2021ko inkestaz⁴

Estatistikek egia emaiten digute, baina zifretatik haratago badira beste egiak ere, datu hotzetan agertzen ez direnak. Erran dezakegu elkarri laguntzen diotela, elkarren gehigarri direla. Hemen, 2021ko inkesta soziolinguistikoaz lau jakitunen iritziak jasotzen dira, Mikel Azurmendi eta Pello Zubiriak elkarriketaturik.

Hemen jasotzen diren iritziak Argia aldizkariaren 2021eko uztailaren 20ko alean ageri dira. Mahai ingurua antolatu zuten aldizkariok eta hauek izan ziren mintzo zirenak: Erramun Baxok (1928-2024) soziolinguista eta hizkuntzalari baxenafarra, apez sekularizatua filosofia eta psikologia irakaslea, Québecen urte luzez bizi izana eta gero Euskal Herrian; Itxaro Borda (1959) izkiriataile baxenafarra, Postaria lanbidez, Baionan bizi dena, eta Maulen ere bizi izan zena, Parisez gain. Euskaltzain osoa eta Euskaltzainburu-ordea; Mixel Oronoz (1935-2023) baigorriar apez Europaetik kanpo ibilitakoa, Euskal Konfederazioko presidentia izan zena eta hainbat liburu karrikaratu zituen euskaraz zein frantsesez. Eta Emilio López Adán, *Beltza* izengoitiz ezaguna (1946), Gasteiztarra sortzez, Baionan bizi dena, osagilea lanbidez, komunismo libertariorik gertu dena, literatur sortzailea eta ez-fikzio izkiriatailea ere. EHEko (Euskal Herrian Euskaraz) kidea.

–ERRAMUN BAXOK

Euskara beti kinka larrian izan dugu. Euskarak indarguneak eta ahalguneak ditu.

Lehen indargunea: Iparalde herrialde euskaldunena da gaitasunaren aldetik eta ama hizkuntzaren aldetik; eta herrialdeen artean euskaldunena da ere bai.

Bigarrena: Iparraldean euskarari buruzko jarrera herritarren aldetik, erdaldun edo euskaldun izan, ona da nolazpait.

Hirugarrena: badakigu euskara larritasunean dela eta kontzientzia hartu dugu. Beraz, diagnosia egina da eta terapia ere atzetik etorriko da.

Ahulguneak ere badaude.

Lehen: euskararen ahulezia gazteen gainean dago, erabat lazgarria. Gazteen % 10-11 dira soilik euskaldun. Gainbehera lazgarria.

Bigarrena: familiako hizkuntza jarraipena tipitzen ari da, bi guraso euskaldun direlarik ere.

Hirugarrena, inportanteena, onarpen publikoaren eskasa, eskuara ez da hizkuntza bezala onartua. Beste faktore ez linguistikoak daude ere bai: herritartasunaren ahulezia, demografiaren ahulezia...

–EMILIO LOPEZ ADAN, BELTZA

Nik nihaurek, hizkuntza ordezkapen egoeran gaudela esango nuke, argi eta garbi. Gainera, seguraski, azken-azken koxketan. Hori da nire diagnosi tekniko.

–ITXARO BORDA

Momentu zehatz batean gara, egoera zinez larrian. Iparraldeko populazioaren erdia elebiduna dela erraiten delarik, populazioaren gehiena 50 eta 100 urte arteko adinean dela erran behar da.

Beraz, populazio hiltun zahar batekin ez da hizkuntz baten geroa segurtatzen ahal. Erramunek erran bezala, gazteetan % 11 dira gehienez elebidun direnak; euskara frantsesa bezain beste dakitenak. % 10eko kopuru horrekin ezin da euskararen geroa segurtatu.

Emeki-emeki, gure gizarteak ez badu sortzen edo ez baditu bere errebindikazioen arabeko neurriak hartzen, populazioaren % 10ek soilik ezagutuko du euskara eta gaineratikoak behin betikotz utziko du.

Gero, beste faktore bat dago; duela 30 urte Iparraldean ez zena. Hiriak euskalduntze tresna zenbait sortu du orokorki: hala nola gau-eskolak, ikastolak eta eskola elebidunak. Kinka biziki larria izanik ere, oraindik sor litezke halako euspen batzu hizkuntzari atxikitzeko eta hizkuntzaren ordezkatzeko bat izan ez dadin.

–MIXEL ORONÓZ

Solaskideek erran dutena ez da oraingoa. Ene esperientziari so egiten badiot, ene haur denboran ere euskararen egoera larria zen. Baigorrikoa naiz, eta ene haur denboran, hiri barnean edota karrikan eskuara galtzen ari zen.

Ni harritzen naiz nola garen horretaz harritzen orain, gainbehera hori aspaldi abian baitzen. Kasik joan den mendetik hona behiti ari da, eta konketuagoki duela 50 urte. Ez da gauza berria. Ez dira oraingo arrangurak.

Diferentzia bat bada, nahi baduzue, orduan ez bezala, azken urteotan sekulako ikerketak edo inkestak egiten dira, eta euskararen egoeraren zifrak ezagutzen dira.

–E. LOPEZ ADAN

Nik ez nuke erranen arrangura horiek oraingoak direnik ere. Mixelek aipatu du bere gaztaroko euskararen egoera, erran nahi baita, jende gehienak Baigorri bazekiela euskaraz. Baina ez zuen funtzio guztietan erabiltzen. Notarioek edota jaunek ez zuten erabili nahi, eta mespretxatzen zuten.

Gauza bat da euskara gauza batzuentzako erabili nahi izatea, eta beste gauza bat ez jakitea. Hori da diferentzia. Ene esperientzia pertsonaletan, askotan ikusi dut 45 urtetik gorakoek euskara bazekitela, baina ez zuten erabili nahi. Eta horien haurrek ez dakite euskaraz, nahiz eta lagunen aurrean, euskara baloratu eta nortasun zeinu bat bezala ukan. Hori da diferentzia.

Orduan egoera diglosikoa zen, orain ez. Orain ez badakite, erderak hartu ditu funtzioak, eta hizkuntza transmisiorik ez da gauzatzen familietan. Erdara sartu da familien barnetan, eta hori gauza berria da. Orduan, ez baitzen horrela. Pasa gara egoera batetik bestera eta horrek eragiten du larritasuna.

–E. BAXOK

Inkesta anitz egiten da une honetan, eta antzina ere bai. XIX. mendean Louis Bonapartek eginikoa dugu. Berrikiago, 1970ean Pedro Irizarrek egin inkestaren arabera, Iparraldea zen euskarak guttien behitutu zuen lurraldea.

Lehenik beheiti joaten Bizkaia izan zen: % 93tik 16ra. Gauza bera Gipuzkoan: % 100 tik 48ra jaitsiz.

Euskarak gehiago eutsi dio Iparraldean ezen eta Hegoaldean. Aspaldiko historiak dira. Emiliok erran duenarekin arrunt ados naiz. Hizkuntzalariek erraiten dute badela diglosia funtzionala, hots, euskara gunen batzuetan eta frantsesa beste gunen batzuetan direla. Hori, garai batean ontsa zen.

Bagenekien euskara plazan, merkatuan, elizan eta pilota partidetan zela. Frantsesa, kasu, eskolan, jendarmerian eta postan zen. Diglosia funtzionala deitu horretan bi hizkuntzak bizi ahal dira, bi funtzio ezberdinak betetzen dituztelarik.

II. Mundu Gerraren ondotik diglosia funtzionala diglosia bilakatu zen, frantsesak eremu guztiak hartu zituen, etxeetan sartu zen, eta bistan da, gaineratiko lekuetan geroz eta gehiago. Beraz, euskara hizkuntza gehigarri bat da. Hau da, dakigunok erabiltzen dugu, baina bera gabe bizi gintezke. Hori larria da, arriskugarria da hizkuntza batentzat, euskarak bere funtzioa aurkitu behar du.

Erramunek Bonaparteren garaia aipatu du eta Irizarren mapari garrantzia eman dio ere bai. 1972an, Amikuzeko Arboti herrian, laborari familia batean aitak ba omen zekizkien euskara, gaskoia eta frantsesa. Amak euskara oso ongi. Haurrek ez zuten euskara konprenitzen ere. Zer gertatu da?

–I. BORDA

Frantsesak, beharbada, zerbaite berri ekarri dio euskal gizarteari. Arboti aipatu duzue. Amikuzen badu 30 urte familia transmisioa galdu zela. Ni eskolara joan nintzenean, 6 urtetan, ene herriko ikaskideek ulertzen zuten, baina ez zuten mintzatzen jadanik.

Frantsesak erakargarriatasun bat eskaini zuen, naski; bere ideologiak irekitasun bat ekarri zuen, irekitasun soziala, jakitate. Euskarak, anartean, laborantzako eta Elizako betebeharrak atxiki zituen.

Amikuzen soziologikoki hizkuntzak egoera hori pairatu zuen. Aldaketa harrezkero, euskarak ez du segitu aipatu eremu horietan. Gizarte berri bat sartu zen. Ukapena eta errepresioa sentitu zen. Egoera diglosikoa da, bistan da, euskara ordezkaturia izan da.

—E. LOPEZ ADAN

Azken perspektiben arabera, 2.050ean, Ipar Euskal Herrian % 5 izanen dira euskaldun. % 5 euskaldun bada euskara ez da biziko. Hizkuntza hau desagertuko da. Euskaldun hondarrak Hego Euskal Herriari lotuta geldituko dira. Hegoalderako perspektibak orain dagoenaren emendio txikia ematen du.

Iparraldean, Lapurdiko kostaldean geldituko bide da euskara, multzo sozial inportantea, euskaldun funtzio batzuk beteko dituenak. Irunen edo Hondarribian beteko dituenak bezalatsu, beharbada. Eta barnealdean euskaldun amorratuak geratuko dira, isolatuak.

Larritasuna aipatzen denean, hemengo euskaldunen buruzagi baten hitzak gogoratzen zaizkit: "Bo, euskara desagertuko dela? Erromatarren denboran ere erraiten zuten desagertuko zela". Egia da, hori polita da esateko, ondo gelditzen da, baina ez dagokio errealitateari.

—M. ORONÓZ

Iparraldeko euskara ahuldua, pobretua ikusten dut. Teknologia, filosofia, politika eta teologia ideia berri guziak erdaraz izan dira, euskaraz emateko ausardia edo indarren faltaz. Publikoki euskaraz agertu izan denak —hizkuntz kalitate onekoa— mezu tradizionalak plaza-ratu ditu usaian, ez da baliatu izan irakurleei eta entzuleei gogoeta edo ideia berriak eman edo sorrarazteko.

Gaur, euskararen pobretzea agerian da, Iparraldeko gizartearen gogoetek galdu dute euskaraz aritzeko trebetasuna.

Itxarok aipatu aldaketak gertatu zirelarik teknologia, teologia, filosofia eta politika berriak sartu ziren gizartearen. Zerbait erran nahi zelarik, frantsesez erran behar zen. Ideia berrien erraiteko jendeek ez zuten euskararen partetik behar zuten tresna. Tresna errazena eskolako frantsesa zuten. Eliza mundua izan da salbuespena.

Baigorriin, apezak erdi euskaraz erdi frantsesez egiten du egun. Baina euskaraz dauden ideiak, lehen-lehenengo katiximakoak dira. Euskara lehengo munduari lotua gelditu da, eta oraingo munduan euskaldunek ez dute pentsatzeko eta erraiteko euskara tresna egokirik.

Egia, euskarak ere baditu posibilitateak, ideia eta hitz berriak ere sortu dira, baina horiek jende guztiek ez dakizkite. Beraz, lerratzen dira frantsesera, euskara jakinik ere.

Modernitatea gaian sartu gara. Zergatik ez dugu federik modernitatean sartzeko?

—E. BAXOK

Modernitateari lotuta beste arazo bat ikusten dut: haurrak orain eskolara doaz bi urte eta erdi dutelarik. Familiako transmisioa, ama edo familia hizkuntza finkatu aitzinetik egiten da, eta gainera gehiengo handi bat (% 73) eskola frantsesera doalarik.

Beharrik, badira salbuespenak: ikastolak eta gela elebidunak. % 17 dira horretara joaten direnak. Euskal hizkuntza finkatu aitzin haurrak eskolan dira, hobekienik finkatua den hizkuntza frantsesa izaki. Hortakotz, ez dugu modernitatean aritzeko hitzik ez hizkuntzarik.

**Arrengurak ez dira oraingoak. Zeuon esperientziatik, duela hogeita hamar urte espero zenu-
ten bezala al gaude? Espero zenuten baino okerrago ala hobeto?**

–E. BAXOK

Hogeita hamar urteotan egin dugu sekulan egin ez duguna: ikastolak, gau-eskolak, Euskal Irratiak eta denbora berean euskalduntasuna jaitsi da % 27tik % 11ra.

Bada konprenigaitza den zerbait. Abertzaletasunak gora egin baitu.

–E. LOPEZ ADAN

Nik Irizarrek lehenik eta 87an Siadecok esandakoa gogoratuko nuke: gauden bidetik jarraitzen badugu, hemendik hogeita hamar urtera, Ipar Euskal Herriko euskaldungoa % 5 izango da. Erran nahi baita, ez dela duela hogeit bat urte zegoen egoera.

Diagnosi horren larritasunaren gainean finkatu zuen Iparraldeko Euskal Herrian Euskaraz taldeak lan plangintza bat. Egun, goazen bidetik, hogeit urteren buruan euskalduna galdua izanen da. Dagoena mantentzeko egitasmoak zerrendatu genituen, eta ez dira eginak izan.

Luzea da zerrenda. Aitzina nahi bagenuen egin, hauxe erran genuen: euskara baloraz-
teko, benetako politika linguistiko batek diskriminazio positiboa garatu behar zuela herriaren baitan eta botere publikoaren laguntzarekin kontatu. Beraz, ez dakit duela hogeita hamar urte, baina duela hogeit urte jende askok uste zuen euskara salbatuko zela.

Jende askori entzun izan diot Ipar Euskal Herrian, familiak salbatuko zuela euskara; hori zen gauza arrunta. Eskuindarrek beti esaten zuten, RPRko militante zaharrek usu: “Ez dugu euskararendako sustengu beharrik, eta eskolarik ere ez. Gure haurrek euskara ikasiko dute etxean”. Eta bai, geroztik gauza anitz egin da, baina oro har herriaren atxikimendu orokorra galdu da, eta botere publikoek ez dute kasik deusik egin, elkarre anitzek lan handia egin badu ere, korrontearen kontra egin du.

Espero zena gertatu zela esango zenukete, orduan?

–E. LOPEZ ADAN

87tik Siadecok agertu inkesta ikusita, gure arteko batzuentzat afera hau amaitua zen. Hamabost urteren ondoren errepikatu dugu non gauden. Eta ez dugu inolako arrazoirik baikor izateko, ezta inongo plazerrik. Guk ere ez dugu asmatu, naski, nola egin zitekeen uholde hori beste aldera eramateko edo korrontea saihesteko.

–I. BORDA

Pertsonalki badut ikuspegi baikor bat eta orokorki ikuspegi ezkorra. Probokatzaila ematen badut ere, uste dut euskara galtzen ari dela abertzaleen munduan ere bai.

Badago diskurtso bat euskararen gainean erdaraz egiten dena. Abertzaleen artean ere euskarak sinesgarritasuna galdu du. Eman dezagun, ezagutu diudan zenbait elkartetan bilkura gehienak erdaraz egiten dira. Justifikazioa egoera soziolinguistikoa da.

Duela zenbait urte bere burua abertzaletzat zeukanak euskara ikasteko ahalegina egiten zuen, orain?

–E. BAXOK

Herri batzarrak orain hogeita hamar urte eskuaraz egiten ziren.

Harritzen nau abertzaleak euskaratik zein urrun dauden ikusteak. Euskara kultur mundutik urrundu egin da.

Adibidez, pastoralak euskaraz dira, baina frantsesez antolatzen dira burutik buru. Bada aktore asko euskara ez dakiena eta buruz ari dena.

Euskal kultur mundua ere euskaratik aldentzen ari da.

–E. LOPEZ ADAN

Seinale txarra da hori, badago esplikaziorik ordea. Politikoen helburua gaur egun hauteskundeak irabaztea da eta horretarako sinesgarritasuna behar dute.

Bistan da, egoera soziolinguistiko honetan denok dakigu frantsesez, ez da inongo problemarik, eta euskaraz aritzeak nonbait denbora doblatzen du.

Euskaraz egiteak, nonbait, ghetto batean sartzen gaitu eta besteak marginatu egiten ditu. Antza, oso larria da norbait marginatzea, baita abertzalea bada ere. Hartara, euskara gehigarri bat da, eta oro har, ez du zinezko funtziorik.

Oro har, diot, non euskaldunok ez diogun ematen bulkada boluntarista bat. EHEko kideok hori ikusi dugu bide seinaleen aferan.

Orain demoek hartu dute lan hori. Ekintza burutu ondoren haren azalpenak frantsesez ematen dituzte. Ez dut pentsatzen demoak abertzaleak ez direnik, bakarrik kalkulatu egiten dutela zer den hoberena egin duten ekintza jakinarazteko.

Egin ziren ahaleginekin aurreikuspen negatibo haiek aldatuko zirela ikusten al zenuten?

–E. LOPEZ ADAN

Ni ikastolen eta Euskal Irratien sortzean egon izan naiz. Guk ez genuen uste gainbehera geldituko genuenik, egin behar zela uste genuen. Baina hain ahulak, hain ahulak izango ginenik!

Egun beharkizun guztiak, hau da, hautetsiek eta botere publikoek emanak, eskas dira. Finean, kultur eta kirol elkarteetan, ez aipatzeko alderdi eta sindikatuetan, hizkuntza funtzionala frantsesa da.

–M. ORONÓZ

Erramunek eta Emiliok euskal kultur mundua zein urrun den euskaratik aipatu dute. Konparazione, EDB (Euskal Dantzarien Batasuna) hor da, bada zerbait hori ere. Beren izena Euskal Konfederazioan barne emaiten dute, erraiten ahal da dantzariak Euskal Konfederazioan direla.

Aldiz, kantariak nehoiz ez dute urrats hori eman, haien ondotik ibili naiz frankotan, Aguilera "Bai Euskarari" festa egin genuelarik, doi-doiatarik, bezperan 30 kantari bildu

genituen, baina geroztik ez da kantari bat ere agertu. Alia, badira hor abertzaleak eta euskaltzaleak.

Abesbatzek, kasu, euskaraz ematen dituzte beren kantuak, latinez edo errusieraz ere bai, baina euskara ez da batere beren arregura, batere.

–E. LOPEZ ADAN

EKEko (Euskal Kultur Erakundea) azkeneko bilkuretarik batean doi-doi onartu zen euskal kulturaren oinarria euskara dela. Doi-doia erran nahi dut, sinistu gabe.

Kultur elkarteek badakite euskara ahul dela eta beren buruari ematen dioten funtzio nagusia da anartekoarena. Hau da, Euskal Herrian diren balore guztiak, euskara barne, pasarazi behar dituzte beren eginkizunen artean, baina frantsesa dute pasarazteko tresna nagusia. Hots, uztarrarian baldin badituzu idi bat hil-zorian eta bestea sana, elkarrekin eramatea zer da? Sana bi aldiz nekatzea.

Hartara, bada, euskara baztertzen ari dira. Ez dute euskararekin lotu nahi, uneon anarteko funtzio horiek –funtzio produktiboak– galtzen dituztela pentsatzen baitute, ghettoan sartzen direla.

Zeintzu dira egoera honetara iritsi izanaren arrazoiak?

–E. BAXOK

Lanaren eta atsedenen mugikortasuna. Lehenago herrian sortzen eta bizi-tzen zen. Orain gazteak ez dira gelditzen beren herrian. Egun ibili behar da.

Egungo gazteak, Bordelen edo Parisen dabilta, badago mugikortasuna, hori ez da sekula euskararen alde. Zer egin behar zen, industria lantegiak hemen eraiki, menturaz?

Hemengo eskualdunak Kaliforniara joan beharrean joaten ahal ziren Bilbora ere bai, hurbilago baita. Baina...

–E. LOPEZ ADAN

Ez dut inoiz hori ulertu, ez dut konprenitu euskaldunek zergatik utzi egin duten euskara. Sandra Otte-ek Goi-Zuberoari buruzko tesia egin du; Santa Graziko euskarari buruz. Hark erraiten zuen hango euskaldunentzat euskara dela ondare pertsonala eta oso preziatua. Orduan, ondare bada eta pertsonala, bada zerbait. “Ni eskualduna naiz, fierra”, diote. Denak dira fierrak.

Orduan, zer gertatzen da hor? Ez dut konprenitzen. Harritua naiz. Zuek haurtzarotik eza-gutzen duzue gizarte hau eta ni gizon larria izanik etorria naiz bertara. Beharbada, zuek konprenituko duzue zergatik, ondare pertsonala izanik, ez duten transmititu euskara. Badago zerbait.

I. BORDA

Hor badago zerbait, bai. Iraultza aitzinetik ere bazen, baina bereziki, frantses iraultzan agertu ziren hizkuntz kalapitak eta ideologiak. Erdi Aroaren bukaeran, eta gero, Aro Modernoan sarturik, frantses lurraldeak eta hizkuntzak ekartzen zituzten unibertsaltasuna eta askatasuna.

Publikoki hori nagusitu zen, beste hizkuntzak etxeetan egoiten ziren, zapalduak. Eremu publiko eta arrazionala debekaturik zen. Ez da estonagarria alde horretatik, gure hautetsiek, kontseilari nagusiek eta auzapezek erraitea euskara etxean ikasten dela, eta puntu.

Hori da iragan mendeetako hizkuntz ideologiaren indar agerpenetarik bat, oraino gelditzen dena. Hots, guk etxean ikasi dugu eta guk bezala ikasiko dute gero ere.

Emilioren harridurari helduz. Frantsesa inperioaren eta aurrerakuntzaren hizkuntza da eta horrela da ere espainola. Aldiz, Gipuzkoan abertzale ez ziren herrietan, karlistak kanporatu eta erreketekak nagusitu ziren herrietan, euskararen katea atxiki zuten. Zergatik eten da euskara bizitzen ahal zen herrietan, Iparraldeko barnealdean?

–I. BORDA

Atxikitzen ahal zen baldin eta jende bakoitzak atxikitzen bazuen bere hizkuntzaren baitako konfiantza molde bat. Horren ordeaz ahalke sartu zen.

Euskaldunak eta Frantziako beste populuak –Antillasetako eta Afrikako kolonizatuak– orain gutxi hasi dira idazten eta kantuak egiten. Denek gauza bera idazten eta kantatzen dute.

Desjabetze baten ahalgeaz idazten dute. Bizitza sozial mota horrek badu 200 urte galdu duela borroka ideologikoa.

–E. BAXOK

Itxarok aipatzen duen hizkuntz ideologia biziki inportantea da. Frantsesa, ez inperioaren hizkuntza bezala, baina askatasunaren hizkuntza bezala aurkeztua izan zen –Langue de la liberté–, baita argitasunaren eta filosofiaren hizkuntza (XVIII. mendekoa) gisa ere.

Hiriak gune erabakitzaileak ziren eta horietan baziren hizkuntzaren aldetik hiru maila.

Bat: funtzionaritzaren goi-maila; arrunt frantsesa. Behe mailan, laborari soilak arrunt euskaldunak; bien artean, erdi-jauntxoak zeuden, elebidunak. Behean zirenentzat, ideologiki eta praktikoki, zer zen gizarte ideala eta kultur eredua? Gainera, bistan da. Askatasunaren eta argitasunaren ideologia horrela sartu zen. Denbora berean herriartasunaren ideia ahuldu zen. Aberri tipiarenean ideia aberri handiak ahuldu izana da.

Hegoaldean ez zen hemen bezala gertatu. Hegoaldean Madrilen kontra egin da gerra. Hemen gehienek –ihes egindako batzuek salbu– Frantziaren alde egin zuten, Mundu Gerra handietan. Hemengo eta hango herriartasuna ez daude parean.

Herriartasuna ahulduz doa eta hori galtzen delarik euskararen atxikimendua ere bai. Atxikimendua pertsonala edo afektiboa bilakatzen da.

Sozilinguistek erraiten dutenez, gurasoen erabakiak azkenean praktikakoak dira eta ez sinbolikoak. Sinbolikoa da gurasoek erraitea euskarari atxiki direla, eta praktikakoa, beriz, nire haurra frantses eskolatan jarriko dut eta frantsesetik ikasiko du, ez haiek bezala ez izaiteko, baizik eta haiek baino gorago izaiteko.

Euskara berreskuratzeko ahaleginak egin dira urteotan. Zein da ahalegin horietaz zuen balorazio orokorra? Zertan asmatu eta zertan da petto egin? Egin zenezaketan guztia egin duzue Iparraldeko euskaltzaleek?

–E. LOPEZ ADAN

Ahaleginak hor dira. Militante batzuek Euskal Irratiak egin behar zirela erabaki zuten. Bide modernoa da, etxe guztietan sartzen da irratia. Irratien egitea ideia ona izan da, izan diren zailtasun handiekin mantentzea merezimendu handia da, dudarik gabe. Irratiek egin dituzten gauzak baliosak dira.

Baina, demagun bi herrien arteko lehiaketa egin nahi duzuela irratian. Zootzi, ea aurkitzen duzuen Sueskunen 10 gazte euskaldun beste herrietako gazteen kontra leihatzeke euskaraz. Ez dituzu aurkitzen. Kontua da botere publikoek ez dietela lagundu elkartei, ez dira batere koordinatu elkarteekin, eta elkarteek egin duten lana ez dela aski izan herrian dagoen ahalke sentimendua gelditzeko.

Hori da afera. Ikastolak, AEK, Euskal Irratiak hor ari dira. Bada zerbait, baina...

–E. BAXOK

Gertatuz geroztik aise da erraitea zer egin behar zen. Nik lau huts aipatuko nituzke.

1: Hizkuntza komunitatea edo (nahiago nuke mintzakidegoa erabiltzea), mintzakidegoa da familian hitz egitea, auzunean, herrian, auzolanean. Mintzakidegoa –euskal guneak– ahal-tzera utzi dugu. Aldiz, eskola eta leku formaletan garrantzia eta energia gehiago eman dugu. Bi guneotan euskaltasun afektiboa –lagunartekoa– eta informala uztartu behar genituen.

2: Gaitasunari garrantzia gehiago eman diogu erabilerari baino. Ikastolek indar bat egin dute euskara erabiltzeko baina ez dugu kausitu. Adibidez, Hazpamen Ikastolak bildu ziren festa baten inguruan, Seaskaren 30 urte kari. Jende franko zen. Emanaldiak euskaraz osoki egin ondotik denak frantsesera lerratu ziren, bazekiten euskaraz baina. Gaitasuna eta erabilera beharbada ez ditugu lotu.

3: Iparaldean euskalgintza eta kulturgintza bereizten ditugu nolazpait, molde bitxi bat da. EKEko lehendakaria izaki, irudi luke kulturgintzari eman zaizkien diruak galduak direla euskalgintzan ari direnentzat. Euskalgintza eta kulturgintza lotu behar ditugu berriz, zeren eta kulturarik gabeko hizkuntzak eta hizkuntzarik gabeko kulturak ez dute deus erran nahi.

4: Abertzaletasuna eta euskaltasuna ez ditugu lotzen jakin.

Hori bitxia da. Alderantzizkoa espero zitekeen. Hots, zuetako norbaitek erraitea abertzaletasuna eta euskara sobera lotu dela Iparaldean. Horrek eraman gaituela “galbidera-edo”. Hegoaldean usu entzun dugun diskurtsoa ere bada. Duela 20 urte arazoa hori zen hemen ere, euskalduntasuna Enbatarri neurri batean lotzea.

–M. ORONÓZ

Ni Baigorriko esperientziaz ari naiz beti; ene bizia Euskal Herritik kanpo eman dut. Ni baino gazteagoak direnek –euskara ez galdua arras, baina erabiltzeko jada hain trebe ez direnek– beren burua sentiitu dute baztertua euskaldun garbiengandik.

Nire irudiko, bazen ideologia bat euskararen inguruan, euskara bakarrik behar zela, eta kasik bertze guztia ez zela deusetarako on. Baigorriin ni baino gazteagoak direnak, 40-50 urtetakoak, arrunt urrun dira euskararengandik, eta denbora batez herabe eta ahalke. Euskararen aldeko urratsak eman direlarik haiek euskararen kontra egin dute momentu batez,

euskaltzaleen mugimendua bortitza eta idorra sentitu dute. Euskaldun horietarik asko ez dugu gureganatuko jada. Aldiz, haien hurrek, bakar batzuek, euskaraz ikasten dute.

–E. LOPEZ ADAN

Erramunek erran du gaitasunari erabilpenari baino garrantzia gehiago eman nahi izan zaiola. Ez naiz guztiz ados. Gogoan dut (Itxaro partaide zela), 92an, Hegoaldeko adibidea hartu genuela euskara sustatzeko, hitzarmenak eta halakoak. Hemen ere egin genuen euskararen erabilpenerako hitzarmen bat elkarteei zuzenduta. Eta huts egin zuen. Ondorio onak izan ditu elkarte batzuetan, erabaki baizuten euskara erabili behar zutela bederen agerpen publikoetan. Guk gaitasunari ez, baizik erabilpenari ematen genion garrantzia. Erabili behar dela, ongi ahal bada, baina gure leloa zen: erabili, erabili eta erabili. Bon, ez da lortu izan.

Problema da, elkarteak ez direla euskarari buruzkoak, herrikoiak baizik, eta erdaldunen presentzia oso handia da. Elkarte horietan euskararen egoera larria da. Elkarte baten helburua zein da? Inguruko jende gehienak biltzea. Jende horien biltzeko irizpidea ez da euskaldun izatea; abertzaleak eta ez abertzaleak daude. Orduan, nonbait, hor sartzen bagenuen bigarren irizpide bat erranez: “Elkarte honetan euskaraz egiten dugu”. Jende anitzek erraiten ziguten eta erraiten digute, hori inposaketa dela. Eta ez dugula inongo eskubiderik inposaketatik ibiltzeko, hori jarrera diktatoriala eta totalitarioa dela, Errepublikaren kontrakoa, edo, gaur egun, modernitatearen baloreen kontrakoa. Hori izan dugu oztopo handi bat erabilpena sustatzeko. Eta horrek planteatzen du oinarritzko problema bat: gutxi garela.

Erramunek ohiko problema bat planteatu du: euskaraz funtzionatzen duten taldeek, kultur taldeek, irekiak izan behar dutela denek. Nola egin daiteke elkarrekin ibiltzeko? Zeren eta egiten badugu modu funtzionaletan erdaraz egiten dugu. Beraz, gure helburua, euskararen biziaraztea, galduko dugu. Eta erraiten badugu, hemen euskaraz egiteko helburua dugu, euskaraz egin beharko da. Hartaz, “inposaketa”ren kontrako mentalitatea azaltzen zaigu bekoz beko. Eta oraindik ez diogu erantzun onik aurkitu. Porrot asko ikusi dugu hori dela-eta.

–I. BORDA

Haur eta helduen irakaskuntzan lortu da sistema biziraunaraztea, eta horretan asmatu dugu bederen. Horren ondorioz, euskara irakaskuntzako tresna bezala agertzen da publikoki. Euskara berdin irakaskuntza.

Bestalde –Mixekek erraiten duen bezala– euskararen aldeko borrokan sartu garen anitz, fededunak bezala sartu gara euskararen salbatzeko. Pixka bat “hautatuak” bezala kontsideratu ginen anitz urtez, eta egun ere. Hautatuek, nonbait, elebidun izateari uko egin diogu, kanpoko kulturei uko.

Ene inguruan, frantsesez edo espainolez edo ingelesez egiten diren kulturen ukatzea sentitzen dut. Eta, beharbada, euskarak iragan mendean ukan zuen irekitasun kultural eskasa ukan du mende honen bukaeran ere bai.

–E. BAXOK

“Inposaketa” aipatu duzue. Euskara ezaren eta euskararen inposaketaren artean badago euskararen aldeko pedagogia. Beharbada hor da gure hutsa. Ez dugu aurkitu pedagogia bat euskara goxoki onartarazteko; euskara beharrezkoa dela gure nortasunaren adierazteko.

Nolanahi den ere, euskaltzaleen esku zegoena egin da. Bestalde, kultur lana ezin aitzina eramarnik, badirudi botere politikoa sortzea lehentasuna izan zela.

–E. LOPEZ ADAN

Baziren gure eskuetan ziren tresnak, eta euskaradun ziren eskuetan euskara erabili izan da. Badago zerrenda luze bat Herriko Etxe gehienetan, komentzio ttipiak gehienak. Langileen sindikatuetan beste problema bat bazen.

Gero, elkarte gehienak euskaldunak ziren denbora haietan. Eta hor bazen euskara erabiltzea barne bilkuretan, jendeari nola-halako pedagogiaz egitea. Askoz errazago egiten duzu pedagogia indarra daukazunean. Erran nahi baita, elkarte abertzale batean gehiengoa euskalduna baldin bada hor osoki egiten ahal duzu euskaraz, euskaraz ez dakitenak ikasgarazteko.

Berriz, Baionan bertan, karrikan, udal kontseiluan, edota Aviron Bayonnaies-en, kasu, gehienak erdaldunak izanik, eta gainera sentimendu euskaldunik ez izanik, zer-nolako pedagogia egiten ahal duzu jende horrekin? Hor dago problema.

Beraz, gure eskuetan zeuden hainbeste gauzetan petto egin da, baina pettoa ez dugu militante edo euskaltzaleek egin, euskaldunek baizik. Gero botere publikoak daude, eta beraietan bada jarrera politiko bat, jarrera hertsia. Administrazioaren, enpresen edo sindikatuen jarrerak daude, bestalde. Ez dute euskaraz egin.

–M. ORONÓZ

Zergatik ez dira jende horiek bildu?

–E. LOPEZ ADAN

Bildu? Sentsibilizazio kanpainak egin izan dira. ELBrekin (Euskal Laborarien Batasuna) ez dakit zenbat aldiz.

–I. BORDA

Zergatik ez gara bildu? Oxtian aipatzen genuen horrengatik. Jadanik euskaltzale eta euskaldunen artean leize bat baita. Gero eta larriagoa.

–M. ORONÓZ

Denbora batez halako ideologia bat bazen. Euskaraz behar zela egin eta euskaraz bakarrik, eta euskaraz kanpo ez zela salbamendurik eta behar zela abstolutuki baztertu frantsesa. Izan da momentu batez halako ideologia.

Ezagutu al duzue frantsesez ez dakien haurrik Iparraldean? Nolabait definitzeko, hizkuntza-ren aldetiko gauchismo bat izan ote da?

–E. LOPEZ ADAN

EHEn beti mantendu izan dugu euskara bizi dadin behar dituela gune elebakarrak, eta ez badu gune elebakarrik ez dela biziko. Alta, gune elebakarrik sortzea ez da batere etsaitua beste kulturen ezagutzarekin. Itxarok oxtian erran duenak harritu nau. Hemen, euskararen aldeko militantziak eraman gaituela beste kulturen errefusatzera, ez ezagutzera. Hori has-teko ez da zure esperientzia.

–I. BORDA

Ez, baina nik ordaindu dut. Hori ordaindu egiten da.

–E. BAXOK

Nik ezagutu ditudan elebakartasunaren aldeko guztiak poliglotak dira. Txillardegik edo Koldo Gorostiagak bostpasei hizkuntza dakizkitez eta elebakartasunaren aldekoak dira (irriz).

–E. LOPEZ ADAN

Hori da. Nik ez dut etsaitua ikusten euskara bizi dadin guneeuskaaldunak behar ditugula defendatzea, eta beste kulturen preziaztea eta baliatzea.

–E. BAXOK

Nik elebakartasuna baino elenagusitasuna nahiago dut. Euskal guneeak ghetto itxura du. Mintzakidegoa azkartu behar dugu. Gunee batzuk, naturalak, non ere euskara hizkuntza naturala den. Baina, beste hizkuntzak ere behar ditugu.

Egoera honetan, non dautza aitzina jauzi berri bat egiteko gakoak?

–E. BAXOK

EKEEn molde berri batera joan behar dugu. Hizkuntza antolaketa moldeaz ez da biziki originala. Antolaketa hizkuntza politika baino gehiago da. Hizkuntza politika beharrezkoa da, baina zati bakarra da. Zenbait gauza elkarri lotu behar ditugu.

1: Familiako jarraipena ikaskuntzari lotu behar da.

2: Ikaskuntza eta erabilera. Lehenik tokiko erabilera, ez erabilera formala soilik, eskoletakoa eta, baita aisialdikoa ere.

3: Gizarte zibila eta politikoa elkarrekin lotu behar dira.

4: Gizartearen eskaera eta erakundeen eskaintza elkarri lotu. Batek bestea gabe porrot egiten du arunt.

Erakundearen eskaintza gutxiegi da gaur egun, baina behar dugu pentsatu gizartearen eskaera hain handia denentz. Militanteena bai, teorikoki bederen. Txekeak euskaraz egitearen esperientzia hor dugu. Zenbatek baliatu zuen posibilitate hori? Beraz, bada gizarte eskaeraren falta. Erakundearen eskaintzak gartsutasuna ekarri behar dio gizarteari. Landu behar dira biak, eta borrokatu. Bi borrokak ezkondu.

–E. LOPEZ ADAN

Euskal Konfederazioa hor dago eta elkarrekin hor dute bidea. Besterik gabe hor da benetakoa hizkuntza politika bat euskararen alde. Baina, Hizkuntza Plana izan daiteke euskararen kontra, kasu! Diglosia mantenduko duena. Euskararen aldeko benetakoa hizkuntza plana botere publikoen konpromiso argiaren egin behar da, neurriak hartuz, ez bakarrik elkarrekin diru pixka bat emateko, baina benetan botere publikoek politika baikorra egin dezaten.

Bestalde, Erramunen diskurtsoan bada gauza bat beti kezkatzen gaituena, eta hori da botere politikoen eskaintza egokitu behar dela populua edo gizarte zibilaren eskaerari. Guk EHE-

koek ez dugu horrela ikusten. Gaur egunean, gauden egoeran, eskaera hori ahula izanen da. Eman dezagun, irakaskuntzan zenbat gurasok nahi du haurrek euskaraz ikas dezaten? Minoria gorria da beti. Botere politikoek badaramate historiaren zama osoa, erresponetsa-bilitate historikoa, euskararen kontra politika aktibo historiko bat. Beraz, gaur egun, botere publikoek benetako politika baikor bat egin nahi badute euskararen alde, erreparakuntza historikoa eta diskriminazio positiboa onartu behar dituzte benetan.

–E. BAXOK

Arrunt arrazoi duzu, baina ezin ditugu denbora berean gauza guztiak esaldi batean sartzen ahal.

–E. LOPEZ ADAN

Baina botere publikoen eskaintzak izan behar du jendarte zibilaren eskaera baino askoz puxantagoa, ezta?

Aitzina egiteko gakoak edo giltzarriak...

–M. ORONÓZ

Egunen batez euskara ofiziala izanen dela espero dut. Beste edozein hizkuntza bezain baliosa eta ederra izanik, jendeak hori onartuko du eta egunen batez jendearen indar hori ukanen dugu euskararen ikasteko, frantsesa edo ingelesa bezala.

Momentu honetan euskara goiti ari da ikastoletan eta gau-eskoletan, baina jendeak ez du ikusten euskara izaiten ahal dela gizarte guztiaren hizkuntza, edozein mailatan erabiltzen ahal den hizkuntza. Hori konpreniarazteko gakorik ez dut.

Ofizialtasunak ekarriko du agian hori. Hortakotz, gakoa ez dakit, baina ofizialtasun eza arrazoi bat izan da euskara baztertzeko.

–I. BORDA

Zenbait urtez egiazko hizkuntza politika bat eskatu dugu. Ardatzak aipatu dituzue. Diru publikoa da gakoa nik uste, edo inportantea bederen, euskara sustatzeko. Eta horren bidez, emeki-emeki, euskarari hunkidura publiko bat etxetik landa ematea.

Militanteek bakarrik ez dute euskara salbatuko, gobernu mailako erabaki bat behar da, eta ez bakarrik euskarari buruz. Jendeak zerbitzu publikoetan nahi baldin badu euskara mintzatu, Estatuak obligatua izanen da euskara sartzea. Jendea euskaraz zerbitzatua izanen da, jendeak eta Estatuak borondatea baldin badute bederen.

Gauzak hobetzeko gakoak ez badira gure esku, ez al gara hemendik hogeita bost urtera berriro ere hipotesi pesimistetan aurkituko?

–I. BORDA

Hautetsiak eta botere publikoak molde batean gure esku dira. Guk hautatzen ditugu, herritar gisa eskatzen ahal dugu erreparakuntza historikoa, adibidez. Ez gara euskaldunak beste herritarrengandik kanpo. Ez gara “lumpen” populua, hizkuntza eskubideak badiugu eta aldarrikatzen ahal ditugu.

–M. ORONÓZ

Hautetsiek, bozen denboran, hitzaldiak egiten dituztelarik kasik euskararen kontra bezala agertzen dira, zeren eta euskararen alde sobera agertzen badute beren burua, bozak galduko dituzte.

Zendako ez alderantzizko kalkulua egin? Noizbait denek ontsa konprenituko dutelarik, hizkuntza bizia izanik, baliatu ahalko dute gure alde, gure bozen erdiesteko. Aldiz, momentuan, euskararen alde izaitea kontrako argudio bat da anitzentzat.

Hautetsiek Hizkuntz Plangintza bat egitea deliberatzen duten arte zain egon behar dela ulertu behar al da?

–E. LOPEZ ADAN

Inork ez du erraiten hautetsiek hizkuntz plan bat erabaki arte zain egon behar dugunik. Azken lan dokumentua ikusita –ez da proposamen bat– hainbat mugitu garen seinale da –EHE bereziki, erranen nuke–. Zerbait etorriko da menturaz.

Jendea ez da zain, etengabeki ari da hautetsiei eta karguei beren ardura betetzeko eskatzen. Problema da bide berriak irekitzea, ez da dudarik. Bada administrazio publiko bat.

Itxarok aipaturiko ahalak daude. Berdintasuna: euskaldunei eta besteei berdin. Berdintasunaren diskurtsoa demokrazian onargarria izan daiteke, baina hemen dugu problema oso handia.

Herriko Etxe euskaldunetaz ari naiz. Zenbat urte daramagu ea etxe horietan ematen ote dituzten urrats baikorrak euskararen presentzia areagotzeko? Horretarako badute libertatea, ez dira Paristik mugatuak. Baina gure hautetsiak herabeak dira, beti daude zain ea egunen batean lpar Euskal Herriko hautetsi guztiek erabakitzen duten zer egin behar den. Eta ikasi kontuetan ez dute bere burua sobera busti nahi.

Hori publikoki ez da sobera aipatua izan, ala bai? Herriko Etxeetan hautetsiek duten garrantzia afera honetan, alegia.

–M. ORONÓZ

Deiadarrek hori du bere helburuetan momentuko, hautetsiei buruz joatea. Ekainean izan ginen kanpaina berri bat abiatzeko; Herriko Etxeetan zer egin ahalko den hemendik aitzina, zeri lotu ahal izanaren diren auzapezak eta kontseilariak.

Hautetsien Biltzarreko presidentearekilarik mintzatu naiz, Daniel Poulourekin. Ez ohiko zuzendaritza bildu du eta hurrengo biltzarrean zerbait aurkeztea onartuko dutela aipatu du. Handik goiti zein proiektu landuko dugun haiei galde egin behar zaie. Ikusiko dugu onartzen duten zerbait egitea. Haien estrategia ez da arras finkatua. Bidean gara.

“Bai Euskarari” kanpaina, Miarritzen, 220 izenpetzaille izan ziren. Daniel Poulou eta J. J. Las-serre hor ziren, gomitaturik, ikus zezaten gizartetik badela galdera bat. Erran izan zitzairen eskaera bat dagoela. “Zer eginen duzue zuek ofizialki?” galdetu genien.

–E. BAXOK

Ofizialtasunaz bada zer erranik. Pesimismo errealista bat eraman behar dugu. Auzapeza eta hautetsi batzuegandik borondatea badago, baina prefeturaren aldetik frantsesa da haien hizkuntza. Haiek ere entzuten dituzte gure galderak, baina beren buruan ez dute egiten sintesi

hori. Anitzek ezin dezakete egin, eta nahi ez dutenek beti hatzematen dute lege bat euskara oztopatzeko.

Alta, hau da eskaintzen diguten egitura ofiziala; hiru mailetan.

1: Obrakuntza publikoa: hizkuntza politikaren erantzukizuna, arduradun politikoa Estatuarena, Akitaniarena eta Departamenduarena da, Udalerrien sindikatarena barne. Beraz, bada egitura bat, identifikatua, ez bakarrik dirua banatzeko, baina hizkuntza politika bat (idazki ofizial bat dago) eramateko. Beharbada, erabaki batzuk hartu behar dira oraindik, baina eztabaida bat izan behar da Herriko Etxeetan erraiteko zer egin daitekeen eta zer ez. Gero dago obralaritza. Elkarte eta erakunde bakoitzak definitu behar du obralaritza bat beren proiektuak aitzina eramateko, eta hori urtero eta 7 urteren epe batean.

2: Diru emailak eta eragileak ditugu, pribatuak eta publikoak. Hor sartzen dira proiektu berriak definitzeko, egin dena aztertzeko eta euskararen estatusa edo onarpena definitzeko. Beraz, bide militantetik eta ofizialetik baditugu gauza batzuk pikoan jartzen ari direnak. Hau martxan jar baledi bada zerbaiz.

Eta hori justu zer da? Hitzarmen hori noren artekoa da?

—E. BAXOK

Ipar Euskal Herriarentzako Hitzarmen Berezia edo Kontratu Plana da. Maiatzaren 18an, Ministerioarteko Lurralde Garapen eta Antolaketa Komiteak (CIADT) definitua.

Hamaika eremu dira, eta horietako lehena hizkuntza politika eta kultura da. Honetan 10 proiektu dira definituak eta badago diru bat. Estatuko eta Euskal Herriko eragileen arteko hitzarmena da.

—E. LOPEZ ADAN

Bada, artean, hemen zerbaiz. Prefetak elkarteei eman die lan dokumentu bat, eta berean bada Erramunek erranikoa, hau da, duela hiru urte Garapen Kontseiluak euskararendako ezarritako helburuak

Ez da gaizki, prefetak eta frantses administrazioak zuk erabiltzen dituzun kontzeptuak onartu dituztelako, arrotzak diren kontzeptuak, "hizkuntz politika" eta gainerakoak. Ez da hain gaizki hori proposatzea lan dokumentu gisa.

—E. BAXOK

Lan dokumentuak eskualdungoaren kontzeptua garbi agertarazten du, eta Garapen Kontseiluan blokeaturik diren gutxieneko helburuak, berriz ere, ezagutarazi dira; ez da gaizki. Baina hori baino gehiago ere bada.

Zer gehiago?

—E. BAXOK

Estatuaren, Akitaniaren, Departamenduaren eta Udalerrien arteko hitzarmena, zazpi urterako hitzarmena da.

Urtero zazpi milioi libera eskuararentzat, zazpi bider zazpi: berrogeita hamar milioi libera (1.250 milioi pezeta). Artean, gaineratiko politika ekonomikoak jarraitzen du.

–E. LOPEZ ADAN

Gauza berria da, bai. Elkarteek eman dute erantzun positibo bat, baina kritikoa beti bezala. Prest gara mintzatzeko, dokumentu bat landu izan da.

–M. ORONOZ

Lehen aldikotz erabiltzen da hizkuntz politika hitza. Alta, guretzako hor diren neurriak ez dira hizkuntz politika baterako egiazko neurriak. Beste neurriak behar dira, gizarte guztia lotzen duten neurriak: horiek guztiak kinkan daude. Guk erran behar dugu ez dela aski. Ez dela azkena, hastapena baizik.

–E. BAXOK

Ni fedea banu bezala mintzatzen naiz, ez da azken hitza hastapena baino. Hola behar dut (naiz) mintzatu, naizena naizen aldetik. Bestenaz, zuek bezain kritikoa naiz.

Finitze aldera, Ipar Euskal Herriko gizarteak ba al du aski indar, berak bakarrik, euskara bizirik atxikitzeko? Zein betebeharrak dagokie gainerako euskal herriei?

–E. BAXOK

Gauza batzuk ez dira errargarriak. Iparraldeak euskara salbatuko duenentz? Euskal Herri osoak salbatuko du euskara, elkartasuna baita Aturriaren eta Ebroaren artean. Horren adibide baikorrak badira. Euskaltzaindia edota Idazleen Elkartea. Iparraldeak badu bere tokia. Hizkuntz Kontseilua dago ere bai. Euskal Herri osoko gizarte zibilaren ordezkaria da.

Eta hirugarren bat, eta ez da hain ezaguna: EAE prest dago gu laguntzeko. Prefetak biziki gaizki ikusten du handik hona dirua jin dadin, Errepublika hain aberats delarik.

Jaurilaritzaren eta EKEren artean badugu hitzarmen bat. Gauzak ofizialki sinatzen ahal dugu Baionako Itunaren arabera. Mugazgaidiko harremanak ez dira nahitaez Madriletik eta Parisetik pasa behar.

Hemengo erakundeen bidez egiten ahal da. EKE da hemengo erakunde ofiziala, eta badago ere Hegoaldetik heldu den borondate politiko bat.

Ipar eta Hegoaren arteko elkargo horrek berrestu behar luke Europaren barrutian aipatzen den subsidiaritatea.

Gihaurek egiten ahal dugun guztia egiten dugu. Aldi batez, aurkako adibide batzuk ere badira. Udako Euskal Unibertsitatea; lehenago guk antolatzen genuen ikastaroa, 50 bat ikaslerekin. UEU zentralizatu da nolazpait, eta orain Miarritzen gauza eder bat egiten da 200 ikaslerekin. Baina horietatik dozena bat baino ez da Iparraldekoa. Beraz, aurreratze edo atzeratze bat al dago hor?

–E. LOPEZ ADAN

UEUko kurtsoak guk antolatzen genituelarik pedagogiari lotuak egiten ziren, irakasleentzat. Gaur egunean ez da hori, kurtso orokorrak ematen dira, Hegoaldean bezala. Baina hemen ez dago euskal unibertsitaterik.

Berriz ere planteatu beharko zen zerbitzu konkretu bat behar ote denentz. Azken finean, komunitate linguistikoak badu ardura leku guztietan, baina hemengoak ez da salbatuko bertakoez ez badiutuzte handik etorritako bideak erabiltzen hemengo kondizioen arabera.

–M. ORONÓZ

“Bai Euskarari” kanpaina abiatu zelarik halako beldur bat bazen, hango metodologia hemen aplikatuko zen beldurra. Hango agiriak hemen erabiltzea, kasu. Hemen biziki jende gutxi ginen metodologia haren segitzeko. Azkenean ikusi zen hemengo ahalen arabera behar zela aitzina egin. Ez ditugu molde handiak. Alta, diru laguntzei esker hemen ere talde bat ari da. Hegoaldekoekin daraman funtzionamendua normala hatzeman dute, betiere hemengo ahalak kontuan harturik.

–I. BORDA

Beste euskal herriak... EAErekiko elkarlan hori partikularzki, jende eta elkarte mailan, mugaz bi aldeetako euskaradunentzat aberatsa da. Ditugun harremanak orekatuak izateko bakoitzak besteari buruz duen iritzia argi ukan behar du.

Zenbaitetan guretzat krisiaren salbazioa han da, hemengoentzat literatur merkatua han da, eta hegoaldearrentzat hemen da euskararen tradizioa.

Frantses estatu mailan hizkuntzari ematen zaion itxura guttitua ematen zaio Hegoaldekik hemengo euskarari zenbaitetan. Horra aztertzeke puntu bat.

Alabaina, bakoitzak baldin badaki zein den bestearen errealitatea, euskal multzo handiago batean hartuko du bere lekua.

Literatura aipatu dudanez gero, Hegoaldean erabiltzen den euskara batu hori, hein batean espainola dela erran nezake. Euskara batu hori inposatzen zaie Iparraldeko idazleei, baita kazetaritzan, artikulugintzan aritzean ere. Beste elkarte zenbaitetan gertatzen da ere bai. Ez dut ontsa ikusten, beste euskal herriek lagundu behar dute muga hori hausten, eta Iparraldeko euskara ulertzen.

Bakoitzak bere lekua eta bere nortasuna atxiki behar ditu, eta, aldi berean, besteena eza-gutu. Azkenik erranen nuke, Iparraldeko bizilagunen % 10 prest gara euskararen biziraupena ziurtatzeko. Baina hemen ditugu gure interlokutoreak: frantses gobernua eta instituzioak.

2. Hezkuntza⁵

Egun Iparraldean eskoletan dabilzan ikasleetan % 66,9k ez du inolako harremanik euskararekin, ama eskolatik Lizeora bitarteko mailatan, orotara, 52.367 ikasle direnetan.

OROTARA 2024-2025 kurtsoan	52.367 ikasle
MURGILTZEA	% 8,5
EUSKARAZ	% 3,3
ELEBIDUNA	% 19
HAUTAZKOA	% 2,2
FRANTSES ELEBAKARRA	% 66,9

Azken bost urtetan ez da sumatu funtsezko bilakaerarik. Sare publikoan zein pribatuan gero eta haur haboro euskara hutsean ari dira ama eskolan eta lehen mailan. Ikastoletan bigarren mailan ikusten da emendatzerik handiena.

AMA ESKOLA 2024-2025	8.999 ikasle
MURGILTZEA	% 10
% 100 EUSKARAZ *	% 17
ELEBIDUNA	% 20
HAUTAZKOA	% 3
FRANTSESA	% 50

*Euskaraz ehuneko ehuneko ikasten dutenetan gorakada handia izan da, 1009 ikasletatik 2019an eta 1.621 dira aurten.

LEHEN MAILA 2024-2025 kurtsoa	16.036 ikasle
MURGILTZEA	% 10,3
% 100 EUSKARAZ	% 0,4
ELEBIDUNA	% 29,9
HAUTAZKOA	% 0,8
FRANTSESA	% 58,6

Euskarazko hautu guztiak emendatu dira, hala: murgiltzean puntu bat gehiago emendatu da, Elebidunean bi puntu igo da. Azken urteetan, euskaraz ari direnak ere badira (% 0,4).

BIGARREN MAILA /KOLEGIOA 2024-2025 kurtsoa	14.178 ikasle
MURGILTZEA	% 8
% 100 EUSKARAZ	
ELEBIDUNA	% 16
HAUTAZKOA	% 5,6
FRANTSESA	% 70,4

Bigarren Mailan agertzen da arazo nagusia euskarazko irakaskuntzan. Lehen mailan euskaraz aritutako aunitzek maila honetan uzten dute euskarazko hautua. Publikoan zein pribatuan elebidunen kopurua igo da, baina baita elebazarrean diren eta ere neurri berdintsuan.

LIZEOA 2024-2025 kurtsoa	11.165 ikasle
MURGILTZEA	% 4,8
% 100 EUSKARAZ	
ELEBIDUNA	% 5,1
HAUTAZKOA	% 0,1
FRANTSESA	% 90

“Elebiduna” entzuten denean ez da pentsatu behar erdia euskaraz eta erdia frantsesez direnik. Ikastetxe bakoitzean erabakitzen dute zer ikasgai zein hizkuntzatan eman. Batzuetan ikasgela osoak euskaraz emaiten du, eta besteetan banatzen da. Hautatzekoak direnetan, irakasleen arabera, oren aunitz galtzen dira, batzuek hiru oren, besteek oren bat, besteek oren eta erdi...

Azken hamar urtetan ikasleen maila apaldu da. Lehen, sail elebidunean aritzen ziren aunitzek etxen euskara jasotzen bait zuten, bereziki barnealdean. Egun, ez da gehiago hala.

Seaskak (39 ikastetxe ditu orotara) bilakaera positiboa izan du azken urteetan Kolegioko mailan. Hala, ikasle guti batzuk gehiago izan ditu (4 ikastetxe ditu egun). Bernat Etxepare Lizeoan izan dute emendatze handiena. Lanbide Heziketa saila jarri dute eta ikasle kopurua emendatu da azken urteetan 363 ikasletik, bost urtetan, 534ra. Gero, 2017an Lizeo berria ireki zuten Baionan eta tipia gelditu da jadanik. Beste Lizeo bat irekitzeko pentsatzen hasiak dira.

3. Kultur-egitura (Lapurdi eta Nafarroa Beherean bereziki)

3.1. Hedabideak eta argitaletxeak

Euskarazko hedabideetan eta euskal literatura eta musika karrikaratzen duten argitaldarekin alderatuz, erran behar da frantsesez lanean ari direnetan zabalkunde aunitz handiagoa dagoela. Aitortu behar da euskal munduak indar handiagoa duela okzitanierarekin konparatuz.

Egunero karrikaratzen diren massmediak frantses hutsezkoak dira, bereziki bi: *Sudouest* eta *La Republique des Pyrenees*. Euskarazko egunkaririk ez dago Iparraldean, *Berria* Hegoaldekoa baita.

Prentsa idatzia. Asterokoak direnak: *Herria* (1944tik astero karrikaratzen dena, Lafittek sortua eta *Eskualduna* ordezkatu zuen, nazienganako jokaera positiboa omen zuena), eta *Iparraldeko Hitza*, *Berria* egunkariaren inguruan sortu zena.

Prentsa digitala. Euskaraz dagoen bakarra *Kazeta.eus* da.

Liburu argitaletxeak. Azken urteetan ugarituz ari dira autoedizio lanak, mundu guztian bezala. Euskarazkoetan, bi aipatu behar dira: Elkar eta Maiatz.

Elkar argitaletxea Iparraldean sortu zen 1975. urtean. Hainbat liburu interesgarri karrikaratu zituen eta oraino elkitzen ditu, nahiz eta bere produkzio nagusia Hegoaldeari lotua izan, joan den urte parrastan.

Argitaletxe gisa Lapurdin egiten den Maiatz aipatu behar da, Luzien Etxezaharreta arduradun nagusia delarik eta Itxaro Borda ere ondoan duelarik. Etxe hau, 1981ean sortua, Iparraldean euskarazko literatur liburu gehien karrikaratu dituen da, nahiz eta azken urteetan liburu elebidunak ere argitara eman (euskaraz gain, frantsesez eta okzitanieraz).

Argitaletxearen aitzindaria, izen bereko Maiatz aldizkaria izan zen, urtean bizpauru ale karrikaratzen dituen eta izkiriatzaile ezagunak atereaz batera, hainbat gazteren lehen plazaratzea ekarri duena eta Maiatz aldizkariari esker ezagun bihurtu direnak, liburuak plazaratuz gerora.

Bi argitaletxe nagusi hauetaz landa, badira tipiagoak direnak, beren produkzioaren zati nagusia frantsesez dena, baina euskaraz ere liburuak karrikaratzen dituen, eta kasu batzuetan liburu bakarra, bi edo hiru karrikarat eman dituen. Hala, batzuk aipatzeko, zenbait desagertu direlako, Astobelarra-Le gran chardon; Izpegi (CPIE Pays Basque); Gatu-zain; Zortziko; ZTK; Hatsu (poesiari lotua); Eskualtzaleen Biltzarra; Kilika; Matahami; Jakintza; Editions de la Rhune; eta eskolentzako lan didaktikoak plazaratzen dituen bereziki, IKAS.

Diska argitaletxeak. Urteetan, Elkar agertu arte, Agorila izan da etxe nagusia, honek karrikaratzen baitzituen euskarazko diska gehienak, frantsesezko inguruetako musika "erregional" eta baita okzitanierazko zerbaite ere.

Geroago, Hegoaldeko argitaletxe batek bereziki, Herri Gogoak, Iparraldeko LP zenbait diska argitara eman zituen. Goiztiri izeneko iparraldeko etxe batek diska guti karrikaratu zituen 1970 inguruan.

Erran behar da Elkar liburu eta diska argitaletxeak aitzinerat eraman zituela Iparraldeko kantari eta musika produkzio gehienak. Eta hala segitzen du egun ere.

Hogei eta lehen mendean Nafarroa Beherean sortu den ZTK etxeak, liburu batzuez gainera, hainbat diska elki ditu Iparraldeko musikaz.

Autoedizioaz landa, badira etxe txikiak euskarazko diska batzuk atera dituztenak. Errate baterako, Belarri, Herrimin, Saroia (Kalakan taldearen lanen disketxea eta, hauengatik, Berzaitz anaiena).

Irratia, Hegoaldean zein Iparraldean, egoki uztartu da euskara irrati hizkuntzarekin. Iparraldean orain izen amankomuna harturik, Eskual Irratiak bezala ezagutzen dira hango lurraldeetako irratiak:

- Gure Irratia Lapurdin, sortu zen 1981an Milafrankan. Ondotik, Baionarat joan zen, eta 2006an Uztaritzera. 30.000 entzule ditu.
- Nafarroa Beherean, Irulegiko Irratia 1981. urtean sortu zen, Irulegi izeneko herrian. Egun, 21.000 behazale ditu.
- Xiberoko Botza, Zuberoan 1982an sortu zen irrati librea da. Zuberoako berri emale nagusia da. Argia Saria jaso zuen 1994 eta 2022an.
- Hirurek elkarrekin sortu zuten 1999an Eskual Irratiak izeneko federazioa. Gerotik sortu zen Antxeta Irratia Hendaian eta hau ere federazioko kide da. Irrati horien programazioaren bi herenek, guti gora behera, elkarlanean egin dira, nahiz eta gero irrati bakoitzak euren edukia garatzeko orenak badituen.

Telebistari dagokionez, ETBk astegun guzietan oren laurdeneko albistegi laburra emaiten du arrastirietan: Iparraldearen Orena.

Bada Nafarroa Beherean bideo sail handia kudeatzen duen Kanaldude izeneko enpresa, Alduden sortua, era orotako grabaketak eginez. 1997an lehen urratsak eman zituen. Aldudarrak Bideo izeneko sozietateak Kanaldude bultzatu zuen, eta Arcom izenekoarekin hitzarmen bat izenpetu zuen Akitaniako eskualde berriak 2017an.

Euskarazko bideoak egiteko asmoz hasi ziren lanean Kanalduden. Horrela, heien emandietan emaiten dituzte honelakoak: musika, elkarriketa, mahain inguruak, gizarte mailako berriak, dokumentalak, hitzaldiak, zinemari buruzko iritziak eta abar.

Bost Hedabideak. 2013an elkarlanean hasi ziren bost hedabide hauek: *Herria*, *Iparraldeko Hitz*, Eskual Irratiak, *kazeta.eus* eta Kanaldude. Hona hemen webgunea: www.hedabideak.eus

Publizitate alorrean hasi ziren lanean, oroentako *pack* batzuk proposatuz. Gero, bost hedabideen ekoizpen amankomunak aitzinerat eraman zituzten, hala nola, 2022ko Legebiltzarreko Hauteskunderi buruzko emankizuna. Eta baita Euskararen Nazioarteko egunaren kariatara.

3.2. Kantagintza

Euskal Herria herri kantaria eta dantzaria izan da, Voltairek erran bezala 1756. urtean. Alde bietan izan ditugu afizio hauek, baina ene ustez Iparraldean kantari hobekiagoak eta kantu izigarri erakargarriagoak izan dituzte, tradizionalki.

Tradiziozko kantuak landa, erran behar da kantu-sortzaileek edota folk musika Mixel Laberieriek ekarri zigula lehenik hego zein iparralderat. Eta rock'n roll mundura lehenak Errobi bikote lapurtarra (Anje Duhalde eta Mixel Ducau) eta Niko Etxart xiberotarra izan ziren. Beraz, Iparraldea bere ttipitasunean hogeigarren mendeko musikaren sortzailea izan zen. Hemen, Lapurdi eta Nafarroa Behereko kasuak ikusiren ditugu.

Soroak (Iker, Irkus eta Ugutz Robles-Arangiz anaiak eta Txabi Villaverde) izeneko taldeak 1959an diska bat atera zuen Ximun Haranek bultzaturik. 1960ko irailaren 1ean, Nafarroa

Behereko Arbotin Euskaltzaleen Biltzarra ospatu zen eta bertan kantatu zuten. Mixel Labegeriek erran zien “Soroak ez, zuek sorroak zirezte, hots, bibelarrak. Kantu berriak ekartzen baitituzue”. Hau erran zuen jende guztiaren aitzinean. Gero, Baionako Museumean bigarren diska 1962an grabatu zuten, Ximun Haranek Alemanian erositako grabagailuarekin, eta Goiztiri diskoetxeak argitaratu zuen. Labegerie plazaratu baino lehen hasi ziren kantari Soroak taldekoak.

Etxamendi-Laralde baxenafarrak batetik, eta Pantxoa eta Pello lapurtarrak bestetik, bikote ezagunenak izan ziren. Geroago Xalbador eta Ihdoi plazaratu ziren, hauek ere Nafarroa Beherekoak. Oro estilo xumean kantari, *a capella* edo kitarrarekin. Errobi bikotekoak (Anje Duhalde eta Mixel Ducau) ere kitarra akustiko banarekin hasi zitzaizkigun, rock’n rollera abiatu baino lehen. Bakarlarietan, Erramun Martikorena (hastapenean, Angele arrebarekin hasi zena), edota Manex Pagola kantu sortzaile handia, biak baxenafarrak.

Urria taldea eta geroago hango liderra bakarka hasi zen, Beñat Axeari kantari trebea dugu. Guk taldea ere aipatu behar da, partaideak hauek zituela: Beñat Sarasola eta Joanes Borda lapurtarrak, eta, geroago, Panpi Lakarrieu eta Pier Pol Berzaitz xiberotarrak, gero Beñat Davant, eta azkenik, Eneko Labegerie, Mixelen semeetariko bat.

Emazteetan, Patxika Erramuspe (1943), Maite Idirin (1943-2024) Ugao herri bizkaitarrekoa genuena, eta Estitxu Robles-Arangiz (1944-1993) Lapurdin sortua, bizkaitar jatorrikoa. Estitxuren lau ahizpek (Edurnek, Garbiñek, Gizanek eta Maitanek) *Ainarak* taldea osatu zuten.

Patxika Erramuspe Nafarroa Behereko Alduden sortu zen 1943an. Baionarat joan zen bizitzera. Manex Pagolak bultzatu zuen kantagintzara. Ikastolen alde lan handia egin zuen. *Zazpiribai* eta *Ortiziken* emanaldietan kantatu zuen Ipar zein Hegoaldeko kantariekin. Elkar (Euskal Liburu eta Kantuen Argitaldaria S. L.) enpresaren sortzaileetakoa izan zen 1972an, iparraldeko beste hainbat lagunekin batera.

Egun plazetan dabilatzatenetan, Kalakan hirukote (eta orain bikote, Jamixel Bereau eta Xan Errotabehere) trebea, eta beraiekin ibilitako Thierry Biskari *Tirrit*, bakarka ari dena. Lehen, Paxkal Indo ibili izan zen Kalakan-en sorreran *Tirritekin*. Jojo (Bordagarai) eta Ramuntxo (Carrere) bikotea, Caroline Phillips eta Mixel Ducau (*Bidaia*), Pantxis Bidart, Kattalin Indaburu, Maialen Errotabehere, Aire ahizpak (Mixel Aire pertsulariaren alabak: Miren, Amaia eta Paxkalin), *Xabaltx*, Anne Etxegoien, Amaia Riouspeyrous, Xendarineko ahizpak, Leire Irabarne zena, Jurgi Ekiza, Mattin Lerissa, Unama taldea (Zubeldiatarrak, hau da, alde batetik Nahia eta Unai, bertzetik Domeka eta Kamila, elkarren artean kusiak), Saioa bikotea, Julen Axiari, Izarrak (Nafarroa Behereko emazte hirukotea), Pauline & Juliette kantari tradizionalak, folk edo kanta-sortzaileak.

Desagertu aitzinetik, Txakun taldeak folk-rocka jotzen zuen (1991-1997), Begiz begi taldeak egiten duen bezala. Beste mota bateko musikan, egun hauek ere baditugu: Sustraia taldea (rock), Sohano (pop-folk), Diabolo Kiwi (reggae), Gadafiste Brothers & Sisters (punk), Kuartz (rock-blues), Maskak (pop-rock), 2zio (rap), Doktor Deslai (reggae), Mirabe (rock).

3.3. Pertsulariak

Iparraldean beti izan dira pertsulariak edo koblariak. Ohiko plazetatik landa, libertimenduetan kantatu izan dute, adibidez. Bainan badirudi ez duela izan Gipuzkoan izan duen indarra. Bizkaian ere Gerra Zibilaren ostean hartu zuen indar amini bat, koplatic bertsora jauzi eginez.

Hogeigarren mende hastapenetan aipatu daitezke Mattin Irabola *Senpereko Mattin* (1879-1935), edo Jean-Pierre Larralde *Panpale* (1886-1945) Lapurdiko Luhusoko arotza. Honek, pertsulari nekaezinak, pertsularitza berpiztu zuen, eta Iparraldeko plazetan aunitz ibili zen koblaria (herriko bestak, toberak, azokak...) izan zen. Kantukide izan zituen Goienetxe, Matxin eta berantago Ligetx xiberotarra. Berantago oraino, Mattin aheztarraren maisuetarik bat izan zen. Beste batzuek aipatuz: Mixel Dargaitz, Joanes Harriet *Premundo*, Joanes Ibarra edo Iriarte ezagunak egin ziren Hegoaldean.

Teodoro Hernandorenak Iparraldean 1946 eta 1958 urteen artean hainbat pertsulari txapelketa antolatu zituen. Pertsularietan, Iparraldean bizi ziren hegoaldekoak kontuan izan gabe (hala nola, Juan Jose Eizmendi *Errexil*, Felix Iriarte, Ximun Ibarra *Zubikoa*, Meltxor Otamendi, Juanito Goikoetxea *Akotei*, Juan Felix Iriarte, *Berjinanto*) kantatutakoetan, Iparraldeko beste pertsulari batzuen artean, hauek aipatu daitezke:

Arnaud eta Bernard Larramendy, Irisarri eta Suhuskunekoak; Jean-Baptiste Inzabi (1911-1978), Mañez Iriart, (1905-1976) Jean-Baptiste Iribarnegarai *Xetre* (1896-1956) hazpandarrak; Léon Ainziart (1920-1983) heletarra; Mattin Gariador (1901-1967) Arrangoitze herrikoa; Etxexuri amikuztarra; Mattin Treku *Mattin* (1916-1981) Ahetzekoa; Uztaritzeko Piarres Capdeville *Kattabil* (1868-1952); Manuel Sein, *Xanpun* (1928-2002); Josep Alkhat (1932-1986); Dibarrart. Eta xiberotarretan, Pierre Bordazaharre *Etxahun* Iruri (1908-1979).

Asko lehenago, Martin Larralde *Bordaxuri*, 1815eko *Galerianoaren kantuen* egilea, hazpandarra zen. Bere osaba Bernard Larralde (1771-1853) eta honen semea, Jean-Baptiste Larralde medikua (1804-1870) pertsulariak izan ziren.

Hazparne inguruan, XIX. mendean, pertsularitzak garrantzi handia ukan zuen. Pertsuak jente aitzinean ematen ziren eta izkiriartzen. Bestalde, Hazparnen gizon eta emazte pertsulari bat baino gehiago baziren. Bidarraiko Otxalde, Durruty-Xuberri, Katxo, Joanes Urruna-Daguerre, Gaxte Leon, Amespil-Patrun, Ebasun, Iriart-Iturrilo eta Munonborda hor ziren; pertsuak baino zirtuak emaiten zituztelarik.

Jose Mendiague, Hazparnen egon zen aldudarrak, Montevideora joan behar izan zuen biziaren irabazteko. Haren pertsuak ederki idatziak dira, bere kantuetan arrakastatsuenak *Kantuz sortu naiz* delarik.

Baxenafarroako *Xantxo* deitu mandozainak, Baigorriko haranean lan egin zuen 1835 eta 1850 artean. Pertsulari trebea omen zen Manex Apezena, diruaren truk pertsuak idazten zituen honen edo haren kontra. Bidarraiko Otxalde, ofizioz mugazaina, euskal biltzarre orotara gomitatua zen. Hilabeteen behin, Hazparneko merkatuan, pertsuak kantatzen zituen. Herri hortako

Xetre pertsulariak honela aipatzen digu: "Gizon gaztea, ernea, ongi ikasia". Zubiak, pertsulari fin bat zen, denek gain-gainetik estimatzen zutena, Behorlegikoa. 1909an, Edouard VII Inglaterako Erregeak, pertsularien entzuteko nahikeria adierazi baitzuen. Eta horra, Zubiak, Baxena-barreko hiri nagusia, Erregearen aitzinean pertsutan ari izan zen.

Irulegiko Joanes Etxarren, Eiheralarreko Larramendi, Ezterenzubiko Manex Etxamendi, Arnegiko Pudes, Bankako Peio Erramuspe eta beste zenbaitek, zeingehiagoka, galarrotsetan parte hartu dute.

Bettiri Ibarrarten kantu ederrak dira, hala nola *Sotoko oporra, Mitxelengo zubia, Itsua eta sastrea*.

Hernandorenak antolatutako Iparraldeko Txapelketa hauetan Mattin eta Xalbador (Fernando Aire; Urepel, 1920-1976) nagusitu ziren ia urteroko ekitaldietan, Etxahun Iruri ere giblean ez zela baratzen, inoiz lehena, irabazlea izan zela 1946an. Xanpunek ere ontsa egin zuen zenbait urtetan.

Baina Iparraldeko bi pertsulari handiak eta arras ezagunak Mattin eta Xalbador bihurtu ziren, Ipar zein Hegoaldean. Bikote egokia, umorez eta seriotasunez kantatzen zutenek, zikito-janetan, bestetan, libertimenduan... Eragin handia izan zuten. Heien unguuran beste pertsulari batzuk ibili ziren, adibidez, Ezpona, Xanpun, Alkhat, Mendiburu, Arrosagarai, Irigarai, Mihura, Mixel Aire, Laka.....

Emazteetan, hauek ditugu aipatzeko: Hazparneko *Aña Debrua* (Maiana Etxegarai, 1887-1935). Gehienetan, Maiana Hargain (1860-1925) kanboarrarekin kantatzen zuen. Eta Mari Luixa Erdozio (1846-1925) ere ibiltzen zen pertsutan bat-batean.

Egun dabilzanetan aipatzekoak dira Amets Arzalluz, Sustrai Colina, Patxi Iriart, Odei Barroso, Ekhi Erremundegi, Gilen Hiribarren, Mizel Mateo, Xumai Murua, Bixente Irigarai, Aimar Karrika, Bittor Thikoipe. Emazteetan, Maddalen Arzalluz, Pantxika Solorzano, Irantzu Idoate, Maddi Sarasua, Eneritz Artetxe, Maddi Ane Txoperena, Miren Artetxe, Elixabet Etxandi, Joana Itzaina, Irantzu Idoate.

3.4. Lapurdi eta Nafarroa beheko literatura. Hegoaldeko eragina egun

1545. urtean Bernat Etxeparek izkiriatu zuen lehen euskarazko liburuarekin, *Linguae Vasconum Primitiae* delakoarekin, Iparraldean euskal "literatur nagusitasuna" egon dela erranen nuke.

XVII. mendean ehun ostotatik gorako liburuen 36 edizio karrikaratu ziren eta hauetan, argitaratu ziren hogeita hamabi Lapurdin, hiru Zuberoan, bat Nafarroa Beherean eta bat ere ez Hegoaldean, Mokoroaren 1936ko *Genio y Lengua* liburuaren arabera, *Ibar* izengoitiz plazaratua.

Etxeparen segitukoa aipatu behar da Joanes Leizarraga, *Jesus Christ Gure launaren Testamentu Berria* (1571) euskarara itzuli zuena. Kronologikoki, gero Axular eta Sarako Eskola dugu (Materre, Joanes Haranburu, Joanes Etxeberri Ziburukoa, Harizmendi, Argaignarats...).

Axularrek *Gero* (1643) lan arras garrantzitsua euskal literaturan, hiztegi biziki zabalarekin eta ikaragarritzko erritmoko prosan izkiriatu zuen. Axularrekin gure prosa goi mailako kalitatera heltzen da. Hogeigarren mendearen 1970 inguruko izkiriatzaleetara heldu arte, hoberena bezala kontsideratu daiteke. Sarako Eskolaren lapurtera klasikoa garai haretako “euskara batua” izanen da, gipuzkera literarioa sortu arte hemezortzigarren mende erdian, Kardaberaz eta Mendibururekin. Gipuzkeraren aitzinetik, Zuberera euskalki literario bezala Oihenart, Tartas, Bela aita-semeak eta Maitiarekin sortu zen, aitzinago ikusiko denez. Azkenik, Mogelek eta Añibarrok bizkaiera literarioa sortu zuten. Mogelen *Peru Abarka* liburua aipatzekoa da, 1802 egina eta 1881an argitaratua.

XVIII. mendean Joanes Etxeberri Sarakoa dugu, euskararen aldeko lanekin, hezkuntzara zuzenduak. Eta baita Haraneder itzultzailea ere, lehen *Itun Berriaren* itzulpen katolikoarekin, beste liburu batzuen artean. Pierre D’Urte ere itzultzailea da. Bernard Larregi, Andre Baratzia edo Mihura beste izkiriatzale batzuk dira.

L. L. Bonaparte printzearen eraginez, Duvoisinek *Bible Saindua edo Testament Zahar eta Berria* (1859) egokitu zuen lapurterara. Manuel Intxauspek *Itun Berriaren* zatiena egin zuen zuen, eta *Uscaldunaren Laguna* izeneko liburua izkiriatu.

D’Abadien jokoetara Otxaldek aurkeztu zituen bere lan zonbait, baina denetan aipatu beharra J. B. Elissanburu dugu, pertsu sortzaile trebea eta *Piarres Adame saratarraren zenbait historio* nobela bukatu gabea egin zuena. Zaldubi (1828-1907) poeta maila handikoa zen, sorkari gehienak erlijiosoak direlarik. Hemeretzigarren mendearen hondarretan Diharassaryk apezten eskubideetaz eta M. Elissanburuk franmazonez dihardute. Martin Duhalde meditazionez bi liburu izkiriatu zituen. Haranbourek liburu bat itzuli zuen. J. M. Hiribarrenek *Escaldunac* (1853) izeneko poema liburu ezaguna egin zuen.

1886an *Le Reveil Basque* aldizkari ezkertiar elebiduna sortu zen. Honi aitzina egiteko, elizak *Eskualduna* astekaria sortu zuen 1887an, hurrengo urtean, zuzendaria Jean Hiriart-Urruti (1850-1915) zelarik. *Eskualdunakoek* Hamalauko Gerran lubakietatik berriak igortzen zituzten. Lehen Mundu Gerrak iraun zuen lau urteetan, hamar milako tirada zeukaten eta etxe bakoitzean, gutenez hiru jendek irakurtzen zuen. Narratzaile trebeak ziren aldizkarien partaideak. 1944ra arte iraun zuen *Eskualdunak*.

Hogeigarren mendearen hastapenetan, Hegoaldean Aranaren garbikerizaletasuna nagusitzen da, Azkue edota Urkijoren joera garbizale moderatuen gainerik. Ipar Euskal Herrian ez zuten joera honi segidarik eman, literatura tradizionalaren bideari baizik. Mende honen hastapenetatik Iparraldeak bere tokia literaturan galtzen du.

Mende erdirantz, Iratzeder eta Miranderen poesia lanak aipatu daitezke. Jean Barbierrek *Piarres* izeneko nobela kostunbrista egin zuen. Oxobi apez baxenafarrak *Alegiak* lan arras interesgarria utzi zigun. Jean Etxepare Bidegorri (1877-1935), Argentinan sortu eta Kanbon zendu zena, medikua, laiko bakarrenetarikoa izan zen. *Buruxkak* (1910) artikulua bilduma eta *Berebilez* (1930) Nafarroan eta Gipuzkoan zehar egin bidaien kontakizuna karrikaratu zituen.

Izkiriatzaile handia izan zen Jean Etxepare hau. Jean Elizalde (1883-1961), *Zerbitzari* apai-zak prosaz zein hitz neurtuz gauza aunitzez izkiriatu zuen, aunitz eta ongi.

Teatroan, Piarres Larzabal aipa daiteke eta ipuingintzan Jean Etxepare Landerretxe (1937-1961) jatsuarra *Mendekoste gereziak eta beste* ipuinen bilduma argitaratu zuen. Inazio Mujikak berrargitaratu zuen Ereinen ipuin bilduma, sarrera dirdizari batekin.

Itxaro Borda⁶k erraiten digu *Eskualduna* eta *Herria* aldizkariak izan zuten garrantzia izkiri-atzaile berriak sortzeko tenorean. Sariketak, bekak eta blogak duten garrantziaz mintzo zaigu, *Maiatz* aldizkaria eta argitaletxea ahortzi gabe. Honek guztiak gazteei eman dien aukera diosku.

Iparraldean karrikaritzen den euskal literatura Hegoaldekoari lotzen zaio, nortasuna ukatu gabe, hizkerak bistan dena erakusten diguna. Iparraldean izkiri-atzen denak frantses edota europar ereduak barneratuak ditu, Hegoaldeko izkiri-atzaileek gaztelaniazkoak bereganatzen dituzten bezala.

Jon Mirandek (1925-1972), *Herrian* idazten hasi zena 1949an, eta Txomin Peillenek (1932-2022) *Igela* aldizkari satirikoaren egiletzan parte hartu zuten 1962tik goiti, bi urtetan sei ale karrikaratu zituztelarik.

Herria astekariak, kolaborazionismoa leporatu eta 1944an debekatu zuten *Eskualdunaren* segida hartu zuen, idazle-gaiak sortzeko merezimendu izan zuena, Piarres Lafitte buruzagi zuelarik. Interesgarria da azpimarratzea jende arruntak herrietan, Zuberotik Lapurdiko kostara, irakurketarako nolako gosea zuen, nahiz eta frantsesa jakin ez. Piarres Lafitte, lanbidez Uztaritzekeo seminarioko irakasle izan zena, Iparraldeko literaturaren burmuin izkutua izan zen, euskaraz izkiri-atzen zen guztia gainbegiratzen zuena.

Hegoaldeko demografiaren pisuak eta Lehen Mundu Gerrak Iparraldean ekarri zuen frantsestea, Iparraldeko lehen beherakada ekarri zuen. Egoera ekonomiko traketsak Iparraldean emigrazio handia ekarri zuen Ameriketarat (hemeretzigarren mendean, hogeigarrenean baino haboro) eta bereziki, Paue, Bordele eta Pariserat joan den mendean.

Euskara Batuaren sorrera 1964 eta 1968an Baionan eta Arantzazun gauzatu zen. Mitxelenaren intentzioa edo helburua erdialdeko euskalki erabilienean gainean eraikitzea zen. Hau da, Gipuzkera, Lapurtera, Ipar-Goi Nafarrera... nihaurek ez dakit noraino Baxenafarrera ere, mendebaldekoa behintzat, nahi izan zuen kontsideratu. Bainan, azkenean, Mitxelenaren asmo onak eguneroko praktikak eta demografiak baztertu zituen eta gipuzkera, edo Azkuek proposatu bezala, "gipuzkera-osotua" izan da baliatzen dena.

Iparraldean, izkiri-atzaileen eraginez edo bitartez, beren euskara batua sortu zuten, Lapurtera-Baxenafarrera deitzen zaiona. Lau euskalkiekin (Lapurtera, Baxenafarrera –mendebaldekoa eta ekialdekoa–, eta Zuberera) batera, hau da *Herria* aldizkarian baliatzen dena.

Honak nahi nuke ekarri Itxaro Bordaren iritzia, lan honen hastapenean Inkesta Soziolinguistikoa egin "Iritzian".

Literatura aipatu dudanez gero, Hegoaldean erabiltzen den euskara batu hori, hein batean espainola dela erran nezake. Euskara batu hori inposatzen zaie Iparraldeko idazleei, baita kazetaritzan, artikulugintzan aritzean ere. Beste elkarte zenbaitetan gertatzen da ere bai. Ez dut ontsa ikusten, beste euskal herriek lagundu behar dute muga hori hausten, eta Iparraldeko euskara ulertzen.

Antzeko zerbait erraiten du Luzien Etxezaharretak, *Maiatz* aldizkari eta argitaletxearen arduradun nagusia denak *Berria* egunkariak egin dion elkarrizketa batetan, 2024ko urriaren 24an karrikaratua.

Hiru probintzia horiei [Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa] lotua da, eta erran nahi du iparraldeko zerbait izan dugula, hasieratik. Jakina da Euskal Herriko idazleen erdiak gipuzkoarrak direla. Normaltasun batean bezala sartua da euskal literatura, eta literatur eredu bat sortu da azken hogeitaz urte hauetan; Hegoaldeko estilo bat balitz bezala. Gu Iparraldeko berezitasun horren alde ari izan gara: hemengo euskalkien, espresa bideen, hemengo euskararen herrikoitasun aberats horrek egin ekarpenak ez zirela galdu behar iruditu baitzaigu. Baina ikusten dut, halere, idazle berriei inposatzen zaiela estilo berri bat, Hegoaldetik.

3.5. *Maiatz* aldizkari eta argitaletxearen garrantzia

Frantzian, eta Iparraldean, egoera sozio-politiko-kultural orokorra aldatu zen lehen aldiz presidente sozialista baten boterera helduak 1981ean. Mitterranden presidentetzaren denboran legeztatu ziren irratia libreak, batetik eta kultura, lehentasunetan jarri zen, bestetik. Testu inguru euforiko horretan sortu zen *Maiatz*, Luzien Etxezaharretaren ekimenez, inguruan hogeita hamar bat idazle biltzen zirela.

Bilkura ezberdinetan, hor ziren, besteak beste, Itxaro Borda, Mayi Pelot, Aurelia Arkotxa, Marikita Tanburin, Auxtin Zamora, Txomin Peillen, Manex Erdozaintzi-Etxart, Eñaut Etxamendi, Piarres Xarritton, Emilio López Adan... belaunaldi, joera, amets desberdinekoak aldizkaria sortzerakoan denak xede bakar batetan sartuak. 1982ko otsailean atera zen lehen zenbakia. 1984an, *Maiatz* argitaletxeari eman zitzaion hastapena, bi libururekin.

Lehen aldiz, Iparraldeko bi egilek Hegoaldeko Euskadi Literatura Saria eskuratu zuten: Itxaro Bordak 2002an % 100 *Basque* nobelarekin eta 2006an Ur Apalategik *Fikzioaren Xte-rrak* ipuin bildumarekin, bi lanak Susa argitaletxean karrikaratuak.

Izkiriataileak ugarituz, izkiriatzeko eremuak eta moldeak ere biderkatu ziren. Auxtin Zamorak, Jakes Ahamendaburuk, Txomin Hegik, Manex Lanathuak, Kepa Akixok edo Xabier Soubeletek olerkien lurraldea hautatu dute; Mattin Irigoienek eta Pantxo Irigaraik antzerkiarena; Luzien Etxezaharretak, Antton Lukuk, Mailux Legorburuk, Mikel Dupak, Eric Traormilinek narrazioena; Mikel Hiribarrenek eta Nine Goihenetxek artikulua bildumak osatzarena; Mixel Tikoipek eta Koldo Ameztoik ipuin herrikoiena; Pierre Mestrot-ek eleberri beltza lantzen du; Ur Apalategik bere lehen testuak *Maiatzen* eman zituen. Eta Piarres Aintziartek, Jean Etxepareren

beribilezko bidaia bizikletaz egin zuen 1989. urtean. Egile gehienek liburu bakarra, edo bi, dituzte, baina Jean Louis Davanten belaunaldiko idazleek 60ko hamarkadan irekiriko xendra dute *Maiatzen* orrialdeetan jarraitzen. Eleberri, poema eta saiakera liburu askoren egilea den Itxaro Bordaren kasua ere bada.

Itxaro Bordaren ustez, hiru autore enblematiko daude berezien lerroan: Mayi Pelot (1947-2016) lehenik, euskaraz aurrenekoz zientzia fikzioa landu zuena, bi ipuin bilduma publikatuz, 1985ean *Biharko Oroitzapenak* eta *Teleamarrauna*, 1987. urtean; gero, poesia, narrazioa eta arte garaikideak uztartuz, Ziburuko Eric Dicharry hausnarketa bat harilkatzen du, eten-gabe, hiru ardatzak bilduz; aipagarria da azkenik, *Maiatzen* eskutik, sei liburukitan, Eñaut Etxamendik (1935), bizitza luzean zehar, izkiriatu artikulu, ipuin, nobela labur eta kantuen altxorra.

Autore gazteak ere sortu dira Gazte Luma izena duen bekaren bidez, hala aipatu daitezke Eneko Bidegain, Nora Arbelbide, Katixa Dolhare, Bea Salaberri, Peio Jorajuria, Maialen Hegi-Luku, Ramuntxo Etxeberri, Beatriz Urruspil edota Eneritz Zelaia. Aipatzekoak dira, Maddi Zubeldia, Bidegain, Katixa Dolhare-Zaldunbiderekin eta Salaberri, zenbait aldizkari eta egunkarietan aburuak ematen baitihardute.

Euskal literatura indartu eta aniztu da, bainan irakurleak eskas dira, ikastolen haiduru izan gara irakurleak sorturen zirelakoan. Ikasleek euskara ikasi dute eta badirudi aski zaiela. Horretara, ezin baita behartu.

Maiatz elkarteak 60-70etako sortzaileek gazte-gazte zirenekin elkarrekin izaiten ziren. Baina, belaunaldien arteko arroa handitu da. Literaturatik urrun dira gazte euskaldunak eta hurbilago dituzte ikus-entzunekoak: irratiak, telebista programak, antzerkiak, bertsolaritza, kantagintza, zinema...

3.6. Antzerkia. Teatroa Lapurdi Eta Baxenafarroan⁷

Santibate eta Libertimendua. Bi hauek Lapurdin eta Nafarroa Beherean emaiten dira hainbat herritan. Santibate direnetan *zirtzilak* izeneko gazte maskaratuak gabez dabilta karrika, etxe eta ostatuetan, kantari eta dantzari, ihauteri astearen inguruan. Hauekin batera, bi per-tsulari eta musikariak dabilta. *Zirtzilen* besta neguaren sinboloa da. Libertimendua egun argiz iragaiten da. Antzerkia, dantzak eta jantziak prestatu behar dira antolaketa zainduan. Hemen, bolanteak (parte hartzaileen izena, Nafarroa Behereko Kabalkadatik hartua) udaberriaren hastapena dakarkute. Urteetan lotan izan eta gero, 2000. urteetan bi ospakizun horiek berriz egiten hasi ziren, eta neskek ere parte hartzen dute.

Toberak. Tobera-munstra herri antzerki mota hauen bidez, gizarteak herritar baten jarrera salatzen zuen. Zigor kolektiboa zen eta Europa guztian hedatua izan da, bertzte izen batzuez, hala *charivari* frantsesez, *cencerrada* gaztelaniaz, *rough music* angelese. Euskal Herrian hauek ere baliatu izan dira, aipatu toberak edo kabalkadak landa: *galarrotsak*, *karrusa zin-zarrotsak*. Manera zahar honetan iraun zuen 1937ra arte.

Besta handia egiten zen teatro satiriko honetan, salatu nahi zen pertsona hori alegiazko auzi batean epaitzen zen, gorte eta sujetekin antzeztuz. Auziaz landa, dantzariak (bolantak edo kaxkarotak gizonezkoetan, basandereak eta andere xuriak, emazteetan) beren lana egiten zuten. Haez aparte, musikariak behar ziren, noski dantzarazteko. Pertsulariak ere badakite giroa nola berotu. Pailazoak ere ageri dira, jendeari irri eginarazteko. Desfile batez heltzen dira parte hartzaileak, eta baita joan ere bukatzerakoan, herritar andana bat ere sartzen delarik ekitaldian.

Azken Toberak 1937an Irisarrin egin zirenak izan daitezke. 1939-1945ko gerra ondoan, gizartearen aldaketarekin, mota honetako ohidurak ere aldatu dira. Aitzinetik, gizartearen zenbait sektorek gaizki ikusten zituzten toberak emeki-emeki desagertu ziren.

Denborarekin eratu ziren kabalkadak eta toberak, bizi izateko gaiak aldatuz joan ziren. Adibidez, 1950 urtetik aitzinera, alegiazko gaietan oinarritzen ziren, joko guziak atxikiz (auzi, dantza, zirtzil...). Gero, 1970 urteetan, abertzaleek toberen irakurketa politiko bat proposatu zuten, boterearen ordenua zalantzan ezarteko.

Egunko Kabalkadak 1990 urteetatik goiti antolatzen direnak konpromiso bat aurkitu dute, herrien arazoak aipatzen dira, elkartasuna sustatzeko eta bermatzeko, bortizkeriarik gabe.

Komediak Lapurdin eta Nafarroa Beherean

Antzerki berri hau 1920. urtearen inguruan sortu zen, teatroa etxaldeetan, eskola giritinoetako aterpeetan edota parropietako zinema aretoan. Honelakoak, Senperen eta Hazparnen 1922an abiatu ziren, euskal teatroa sortuz. Beraz, derragun teatro honek ehun urteurrena bete duela Lapurdi eta Baxenafarroan.

Lehen komedien aroa (1922-1945). Jean Barbierren arabera (1875-1931) leku hauei esker teatroa egiten ahal baitzen, orduan hasi ziren euskarazko komediak jarraituki taularatzen. Egia erran, lehenagotik ere zenbait obra ttipi plazaratuak zituzten, erraterako, Luhuson, Ziburun, Saran, baina funtsezko segidarik gabe.

Gazteria nolabait beren esku atxikitzeke, apezek, ahal bezainbat herritarren laguntzarekin, *patronage* deitu eraikinak altxatu zituzten, besteak beste, "lizunkeriarik" gabeko frantses filmen zabaltzeko. Euskarazko filmik ez zenez, euskaltzale batzuek pentsatu zuten, besteak beste, Jean Barbier Senpereko erretoreak, euskaldun gazteek teatroa bederen egin zezaketela, eta teatroa euskaraz. Funtsean, bere lehenbiziko komedia, *Gauden Eskualdun*, 1921ean argitaratu zuen *Gure Herria* aldizkarian. Apezek eragin handia ukan zuten, bai idazle gisa, bai gazteen moldaketan, eta hori berrogeita hamar bat urtez.

Komediaz komedia (1945-1970). Daniel Landartek bere ikerlan liburuaren hastapenean izkiriatzen duen bezala, 1945ean hasirik eta 1970a arte, komediez sekulako xehetasunak ematen dizkigu *Herria* kazetak, Lapurdin eta Baxenafarroan egiten ziren komediez. Zuberoko berrietan, aldiz, mende laurden batez, hiru aipaldi baizik ez baitziren agertu. Piarres

Larzabal izan zen antzerki autore nagusia Lapurdin eta Nafarroa Beherean. Umorea darabil, ardura politikoa ere eta baita lapurtera fina eta ederra ere. Hogei teatro lan izkiriatu zituen, aipagarrienak *Etxahun*, *Bordaxuri*, *Ibañeta* eta *Matalaz*.

Apezen eskutik abertzaleen eskuetara (1970-1990). Eliza katolikoak bihurgune gaitza hartu zuen Vaticano II kontzilioan (1962-1965). Erabaki zuen, adibidez, larunbat arratseko mezak igandekoarentzat balio zela. Apez batzuek hori berehala onartu zuten, beste batzuek ez. Orduan apezek mezatiarren kontrola osoa galdu zuten, gazteak bereziki parada horretaz baliatu zirela Elizako urratsetarik urruntzeko. Ordu arte, parropia bakoitzak bere erretorea bazuen. Parropietan, erretorea eta bikario bat edo bi ziren. Baina apez eskasez, murrizketak hasi ziren: erretore bakar bat bi parrokiarentzat eta horrelakoak. Ez zuten lehenago bezainbat denbora gazteriaz arduratzeko. Hau euskararekiko behekadaren arrazoietakoa bat ere izan daiteke. Telebistaren hedatzeaz batera.

Kasik berrogeita hamar urtez (1922-1970) ekintza katoliko gisa apezan esku egonik, laikoek beregain hartu zituzten antzerki taldeak, abertzale batzuek berehala konprenituko zutela euskal alor horren garrantzia. Baina euskal teatro emanaldiek segitu zuten, gehiengotan, Elizaren izenean apezek altxarazi zituzten *patronage* aretoetan.

Euskal Antzerki profesionala eta amateura (1990-2021)

Talde profesionalak. Hegoaldean, Maskarada taldea euskara hutsez antzerki egiten hasi zen bezala, Iparraldean ere, XXI. mendea etortzearekin batera, ordu arte frantseseraz bakarrik egiten zuen Le Théâtre des Chimères konpainia profesionalak *Haurra xutik* osoki euskaraz eskaini zuen. Geroztik, euskarazko beste obra batzuk plazaratu zituen: *Kaukaziarrak*, *Borobila*, *Baba zango horiak*, *Otso* eta azkenik *Azken itzulia*. Le Petit Théâtre de Pain konpainia sortu zuten **Ximun eta** Manex Fuchs anaiek, eta orain, Axut konpainia abiarazi dute.

Talde amateurrak. Amateur mailan segitzen dutenen artean, eta herritarrez bakarrik osatu talde zaharrena eta iraunkorrena Armendaritzekoa da. Herriko Bestakari, urtero, antzerki bat eskaintzen du; halaber Makeako taldea ildo beretik dabil. Badira beste bi talde: Larrazkeneko loreak (Aldude-Banka-Urepele) eta Garaziko Sokorri Katolikoa. Jadanik eman obrak berriz taularatzen dituzte.

4. Xiberoa (Zilegi bekit xiberotarrez izkiriitzea)

Züberoa edo Xiberoa, hanko mintzazaleek erraiten düen bezala, lürralde ttipia izanagatik eremüz eta bizizalez (14.000 beno gütiago dütü), kültür mündü izigarri aberatsa dü.

Gizartea lehen sektoreari lotürik bizi izan bada ere, hogeigerren mentean espartingintzari lotü zen Maule, hiru lantegi handi eta milaka langile izanik, Maule hiri sozialista bihurtzeraino. Bena emeki-emeki espartingintzaren eia desagerpenaz, industria berriak eta modernoak sortü dira Xiberuan, bereziki Maule üngürüan. Egün, aeronautikarako produk-

ziona dūen entpresak ere izanik, beste zonbaitekila batera. Eta zerbitxüak non-nahi dira. Bere ttipitarzünean, Xiberuak modernizatze bat izan dü, bena etxalteei etxeki deie, aise ez bada ere.

Xiberuak hiru eskualde dütü, Pettarra goialdean, Arbaila erdian ekialderantz eta Basabürüa hegoalderago, zati birekin ibarresküin eta ibarrezker. Udalerrriak 42 dira, gehi Eskiula, Biarnon dena.

Xiberoko kültür berezitarzün garrantzitsuenak hauek lirate, ene uste apalean: mintzajia, kantoreak eta bortü botza, dantza jauziak eta teatroa. Hauek azaltzen ahalegindüren niz, aberastarzün hain handia ez bada ere osto gütitan aise emaiten.

4.1. Üskara. Lehenik eta behin aipatü behar da xiberotarren mintzajia. Eüskalki zinez aberatsa, aditz sistema zabalagoareki, ablatibo edo *elaidekuaren* baliatzeaz. Hiztegia ere izigarri aberatsa da, beste üskalkietan beno haboro erranen nüke. Eta lehen mürrüa, barrikada edo behaztopü dena, fonetika. Zaila, bena lilüragarria.

Xiberoko mendebaleko sei herrietan (Ozaraina-Erribareita, Etxarri, Domintxaine-Berroeta, Arüe-lthorrotze-Othaibi, Lohitzüne-Oihergi eta Pagola) ekialdeko baxenafarreraren eragina handia düan xiberotarra mintzo dira, bien arteko nahasmena-edo dena.

Eta Biarnoko herri batzuetan, Barkoxetik hüilan, xiberotarrez mintzo dira. Eskiula da herri nagusia. Gero, badira herri batzü non aüzo batzuetan xiberotarrez mintzo diren, eta kasu batzuetan, etxalteren batean edo gütitan mintzo dira. Hala, Baretos haraneko herriak: Inhasi, Arhantze, Aramitze, Landa; Ereta eta Izorra toponimia eüskaldüna düe. Josbaig haranean: Josibaia (etxe bakarra), Arren (etxe bakarra), Ustasu (bi etxe), Sangoine (etxe bakarra), Jeruntze eta Orrin (etxe bakarra). Eta Olorue mendebaleko herriak: Mumurre, Sanpe eta Donamaria. Honetaz bada libürü izigarri interesgarria, *Biarnoko Eüskaldünak*, Philippe Etxegorrik izkiriatüa.

Baliatzeaz, xiberotar ezagün batzüer behatü neiena ekarriren düt honat. Allande Sokarros (1957-2021) kazetaria zen, Xibero eijerki ezagützen züana. Lagüna nüan eta entzüna deiet zonbaiti hura zela Xibero onkien ezagützen züana. Hari behatü neion Xiberuan eia 14.000 bizizaletik, üskara jakin 4.000ek zakiaela, eta egün orotan baliatü, mintzatü 1.500k baizik. Honek, emaiten deiküen argibideeki, egoera zinez latza, garratza erakusten deigü.

Transmisionea eia etenik dela jakiteko, ene beste lagün batek Mixel Etxekoparrek erran züan aihari batetan, bera üskara erakaslea delarik zonbait eskoletan, sei eta hamar urte arteko haurretan, berrehun ikasletik, bost baizik mintzo zirela üskaraz. Ikastola izan da üskararen heldüra egin düana, etxeko etena ikusirik. Eta Xiberuan, ikastolan xiberutarrez erakasten düe, hamabi urtetara artino.

Beste adixkide batek, Jan-Mixel Bedaxagarrek, erran zeitanez: “Gü, Manu, Xiberun erresistentzian bizi gütü”. Egia animalekoa, bai.

4.2. Kantoreak eta bortü botza. Erran behar da Xiberoan sortü direla Eüskal Herriko kantore eijerrenak, elez eta sonüz, ene ustez. Heben argitü behar nuke kantore zonbait anonimoak direla, hau da, egile ezezagünek eginak, herrikoiak erraiten zaienak; bena izan düe xiberotarrek kantore-ontzale izigarri trebeak eta aipatü behar dira, lehenik, bi Etxahunek.

Pierra Topet *Etxahun* Barkoxe (1786-1862) bere bizitza hain gogorrean xiberotarren oroi-menean betiko baratü diren zonbait kantore, ele ahantzezinekila eta sonü zoragarrieki⁸. Xiberotar mintzaje zinez aberatsa dü, nik beste ihori irakur edo behatü gabea, ene uste apalean. Hala nola, güti batzuen izenbürüak emanez: *Urzapal bar badüzü, Mündüan malerusik, Ahaide delizius huntan, Maria Solt eta Kastero*.

Pierra Bordazaharre *Etxahun* Iruri (1908-1979) kantore-ontzalea izaitez batera, bat-bateko koblakaria zan (Ligetx zentü zenean, koblakarako bikotekiderik gabe baratü zen, nahiz eta Xalbador eta Mattinen lagün mina izan), dantzaria eta dantza sortzailea eta txülülaria. Harmonika ere joiten züan. Kantore⁹ goxuak sortü zütüan eta ahaide eijerrekila, hala nola: *Agur Xiberua* (bere kantore famatüana eta baita Xiberokoa ere), *Goizian argi hastian, Lo ama maiitia, Matalazen hiltzia, Anaia da etxen ezkontü, Lo hadi aingürüa, Laida pilotaría, Domecq mariñelaren hiltzia*.

Beste kantore ontzaleak aipatüz: Alexis Etxekopar *Attuli*, Dominika Etxart *Llarraki*, Niko Etxart Dominikaren seme gehiena, *Latxikana* eskiularra, Jan-Mixel Bedaxagar, Mixel Etxekopar, Pier Pol Berzaitz, JohaÑe Bordaxar, Jean-Louis Aranburu. Baita Roger Idiart eta Beñat Sarasola lapurtarrak ere, bena xiberotarrez emaiten düenak.

Kantore herrikoetan ere badira bitxiak. Batzuk erraiteko: *Txori erresiñula, Zü zira zü ekia-ren pare, Bazterretik bazterreal, Xarmagarri bat badüt, Gaztetarzünak bainerabila, Agota, Goizean goizik jeiki nündüzün*.

Gero, badira ere elerik gabeko ahaireak, errate baterako *Belatxa* izenekoa. Arbailletan emaiten dira bereziki mota honetako soinüak.

Manera berrian kantatzeari "eliza bezala" erraiten zaio, hau da Bachs ondoko müsika baliatüz eta "txaranbela (edo txanbela) bezala" izkiriatü ezin den müsika kantatzeari, laurden tonotan kantatzen dena. Soinütresna ere bada txanbela izenekoa, eta zazpi zilo aitzinean eta bat giblean dü, mihi bikoitza düan tresna lüzeari erraiten zaio. Honen azken joile eta kantari izigarri trebea, bai "eliza bezala" eta bai "txanbela bezala", Petiri Caubet *Xübüko* Arhane izan zen (1913-1988). Charlie Chaplin aktore eta züzendariak Atharratzen ezagütü züan eta nahi izan zeion müsika ikasketan Parisen pagatü, haren kantatzeko manieraz lillüratürik.

Xiberoko kantariak heien kantoreak emaitako manerari "bortü botza" erraiten deioe. Hau da, izigarri goitik kantatzen düe, esküak giblean dütüelarik. Lehen, botz batetan emaiten züen eta ihoiz, bitan. Gütitan hiru botzetan. JohaÑe Bordaxar hazia da zonbait urte direlarik lau botzetan kantari bere hiruzpalau lagünekila: Ttuttu Luro, Jean-Noël Pinque, Errobert Larrandabürü eta Dominika Urruti *Bentaber* kantarieki.

Kantarietan¹⁰ aipatü daitekeie lehenagoetan Jan-Pierra Bordalekü, Dominika *Bidegarai* eta Pierra Kehellattipi santagraztarrek, Pierrot Lohidoi eta *Attuli* barkoxtarrak, Ximun *Estekalla*, Hagola eta *Latxikana* eskiularrak, Pette Lezarte larraintarra, Pierra Nekezaur eta Johaïne Bar-koz altzaiarrak, Pettiri Poiü, Battitta *Sobiet*, J. I. Constantin, *Etxahun*-Liginaga, Battitta Arabarko, Jean-Pierra *Etxeber* eta egünkoetan: Mixel Arotze, Bedaxagar, Berzaitz, Bordaxar, Niko Etxart, Mixel Etxekopar, Altzükütarrak taldea, Luzien Larraus *Joa*... Jan-Mixel Bedaxagarrek erran zeitanez talde honetako kantari hanitxen errejenta edo erakaslea Atharratzen bizi zen Santa Graziko Junes Xübürü izan zen. Kantarien eskola, ostatüak izan dira.

Emazteetan Maite Mugordoi, Luisa Dapp, Madouce Araguas, Añes *Kokostegi*, Aña Mari *Axigar*, Tehenta taldea, Maddi Oihenart barkoxtarra, Ainerak eta Amaren Alabak sei lagü-neko talde zoragarria.

Gazteagoetan, *Xiberotarrak*, *Bertzaitz anaiak*, *Xiberroots* reggae taldea, Ozke rock eta metal taldea aipatü behar lirате.

4.3. Dantza Jauziak¹¹

Norbaitek errana da Xiberoko dantza jauziak grabitatearen kontrako borroka dela. Dantza tradizionalen mündüan lekü gütitan atzaman daiteke xiberotarrek düen trebetarzüna.

Dantzariak Xiberoko herri güzietan izan dira. Herri dantzari fama gehien izan düene-tan, batzuk aipatzeko: Altzai-Altzabeheti-Zunharreta, Altzürükü, Atharratze, Barkoxe, Eskiula, Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine, Sohüta eta Urdiñarbe.

Oinarritzko ürratsak hauek dira: Siple, pika, ützüel eta hiru, biga, aitzina pika, aitzina biga, exker/eskuin, ebats, ebats lüze, zeina, pika üngüratüz. Gero, badira hauen konbinazioneak.

Xiberoko dantza jauziak hiru motetan banatü daitezke: Jauzi büztanak (Aitzina pika, Ostal-ersa, Ahüntza, Larrabürü, Hegi, Zazpi jauziak, Buhameak, Lapurtar motxak), Jauzi lüzeak (Muxikoak, Moneinak, Xibandriak, Baztandarrak) eta Jauzi bereziak (Bralea kontrapas, Atha-rraztarrak –*Etxahun* Irurik sortüa– eta Bazterresak –Mixel Etxekoparrek sortüa–).

4.4. Maskaradak

Maskaradak dantzez osatzen dira, eta teatro amini batez. Bi Maskarada dira, Gorriak eta Beltzak. Berrogei lagün üngürü dira. Gorriak honak omen dira eta dantzari bikainak dütüe. Beltzak, zikinak, dantzari txarrak eta beti oihuka ari direnak.

Gorrietan: Aitzindariak dira bost dantzari trebeenak (Zamaltzaina –pertsonea nagusia–, Entseinaria, Gatuzaina, Txerroa eta Kantiniersa), Marexalak (Zamaltzainaren ferratzaileak), Jauna eta Anderea (Ezpatadün Jauntxo eta emaztea), Laboraria eta Laborarisa (Nekazariak), eta Kükülleroak (dantzari gazteenak).

Beltzetan: Xorrotzak (ezpataren zorrotzaileak eta kantariak, pherediküa emaiten düenak), Kerestüak (biarnesez ere mintzo direnak eta Zamaltzainaren zikiratzaileak dira), Kauterak (iji-

toak, tipin konpontzaileak; Kabana Haundia da nagusia eta pherediküa emaiten dü; Pitxu da bere taldeko bat, zarata gehien egiten düana eta hiltzen dena) eta Buhameak (ijitoak ere; Buhame jaunak ere pherediküa emaiten dü); Bedezia (medikua; Pitxu arrapizten dü). Ihoiz izaiten dira Aitzindari beltzak.

Goizez, “barrikada haustea” egiten da herriko zenbait aüzo edo kartieletan. Gorriak banaka dantzatzten düe. Beltzak estilo zakarrez aritzen dira eta Xorrotzek biribiltzen düe Barrikada haustea.

Arrastirian, Barrikada Haustea egiten da, goizean bezala.

Ofizioak. Marexalek Zamaltzaina ferratü behar düe, hatsarrian gaizki eta gero onki. Khe-restuak Zamaltzaina zikiratzen düe, bena ezin düe; mutila botatzen dü eta Pitxu hartü, bena hau are gaizkiago ari da. Kantiniersa hartü dü eta ezin zikiratü! Azkenean onki zikiratzen düe Zamaltzaina eta airerat barrabilak jaurtiki. Gabota, bost Aitzindariak egiten düe, gehienetan biribilean, baina lerro irekian ere bai. Xorrotzak kantatüz jentea agurtzen düe, ezpata zorroztü behar düe, bena gaizki, mutila bota, Pitxu kontratatü eta gaizki ere, azkenean, ontsa egiten düe. Buhameak plazan sartzen dira zarataka eta Buhame Jaunak bere balentriak kontatzen dütü. Godalet Dantza, Aitzindariak egiten düe; Zamaltzainak godalet baten gainean egin behar dü dantza, ardua bota gabe. Kauterek (lau tipingile, Kabana Haundia eta Pitxu) zarata handia egiten düe plazan sartzekoan. Jaunaren tipina konpondü behar düe, Jaunak txanpon batzuk jaurtikitzen deie eta heiek hartzen, jauzi egiten düe eta Pitxu zentzen da eta bere testamentüa irakurtzen düe. Bedeziak ebakuntza egiten deio eta arrapizten da Pitxu.

Jolasak. Ofizio-joko horien artean egiten dütüe dantza ezbardinak. Batez ere aitzindariak, eta dantza batzuk beste arizale batzuek ere bai. Barrikada haustea. Goizean bezala aritzen dira. Gorriak onki dantzatüz, Beltzek gaizki eta Xorrotzek kantoreki biribiltzen düe “barrikada haustea”. Bralea. Hiru zati dütü: Kontrapasa, kate irekian dantzatzten düe, Jauna бүрүан eta Laboraria giblean. Entseinaria aitzinean doa, bandera esküz aldatüz. Txerrero, Gathuzain, Kantiniersa eta Zamaltzainek biribil barnean dantzatzten dira algarreki. Karakoiltzia: Katean dantzatzten den ürrats bat baizik düena. Braletik jauzia: ürrats ikusgarriak, zail eta bereziak, bakoitzak bere trebezia erakusten dü banaka. Dantza-jauziak. Aitzina Pika eta Moneinak ohikoenak dira, bena beste jauzi batzuk ere egiten dütüe.

Müsigagileak txülülaría ttunttunarekila eta arrabita jolea ziren. Arrabita desagertü zen eta geroago, ttunttuna. Honen leküa armadatik ekarri tabalak hartü züan. Orain, izaiten dira txülulari bat beno haboro, eta bi beno ere. Ttunttun bat, biga edo habororekila.

Txülülarietan, Pette Onnainty *Lexarduart* (1872-1938) Lakarrin sortüa izan zen hogeigerren menteko lehen erdiko xirulari garrantzitsuena. Zurgina zenez, txülülak eta ttunttunak egiten zütüan. Txülülären arteko primaka egin zen 1930ean Atharratzen eta *Lexarduartek* irabazi züan. Berari esker Txülüla-ttunttuna baratü zen Maskaradetako ezin besteko soinu-tresna bezala, klarinetari aitzin egiteko indarrez, xirulariari hargina edo maiastürü egün baten soldata ezarriaz. Beste xirulari handia Ximun Patalagoiti *Xotal* (1898-1964), Lakarrikoea ere, izan

zen, bigarren saria izan zutena lehiaketa horretan. *Lexarduart* bezala, bi txululareki bardin trebe zen. Xirulrietan, tuntuuna joiten azkena izan zen, belaualdi berria jin artino.

Hauen ondokoan, txululari guti baratü zen. Aipagarrienak: Allande *Etxahun*-Liginaga, Allande Agerret *Mizkandi*, Johane Copain, Pierra *Etxahun*-Iruri. Gero, gazteak datoz. Hauen, bereziki aipatu behar da Jean-Mixel Bedaxagar (Urduñarbe, 1953). Bederatzü Maskarada egin dü xirulari gisa. Pastoral-egilea ere bada, dantzaria eta maila handiko kantaria. Berak ber-sartü züan ütirik zen tuntuuna. Eta geroago, beste xirulari aparta, Mixel Etxekopar (1963, Gotaine-Irabarne). Dantzaria izatez landa, soinu-tresna hanitxen joilea da, pastoral-egilea, kantore ontzalea, koblakaria eta dantza sortzaile. Tabalari gisa lehengoetan, Pierra Ager Garat, Allande *Etxahun*, Beñat *Ttanbur* Hegoburu...

4.5. Pastoral¹²

Pastoralari Xiberuan lehenago Trajedia erraiten zeion. Izen honek emaiten deikü haren izaeraren berri, hau da, güdüa, hiltzea. Epikotarzüna behar da, nahiz eta komediatik ere zerbait badüan. Heroiaren bizia kontatzen da, eta honik ürrentzen da, edo zentzen bada ere, haren askaziakoek düe irabazten. Ihoiz, heroi bakar baten bizia beno, jente baten bizitza kontatzen da.

Zuberoako herri teatroaren idazki üngürüan kokatü behar da eta herrikoi ohidüretan konprenitü behar dügü. Heroier sujet erraiten zaie historia, Biblia edo elezaharreko presuna baten biografian oinarritürik direla, manera bipolarizatü batetan aurkeztürik, zeinetan beti onkiaren, hau da kirixtiak urdinez jantziak eta mündü zelütiarreko pertsonaiek gaizkiaren, türken gorritz jantziak direnen kontra, lehenen garai-pena segürtatüa dago.

Herri teatro honen jatorria finkatzerakoan iritzi kontrajarriak atzamaten dütügü. Alde batean, XIX. menteko ikerlarien (Xaho, Michel, Webster eta Vinson bereziki) zaharkitüak baratü diren iritziak, ikuspegi erromantiko batetik abiatürik Erdi Aroan edo lehenago ere kokatzen zütien eta pastoralari üskal izaera emaiten zeioen. Heien ustetan, XV. eta XVI. mentetan Europar nagusi ziren eredu dramatiko herrikoieki biltzen zen.

Hamazazpigerren mentearen erdi aldera Oihenart izkiriataileak erraiten deikü mente bat aitzinago Pastoral bat emana izan zela Nafarroa Behereko Donibane Garazin. Hamazortzigerren mentean, Egiategi filosofo xiberotarra Pastoraletaz mintzo da. Hemeritzügerren mentean Agosti Xahok, adibidez, bena Georges Hérelle ikerleak bereziki, Pastoral eta haren aldeak ikertzen dütü.

Georges Hérelle izango da, joan den mentearen hatsarrean, ikerketa sakona egingo düana, zeinetatik sortüren diren azken azterketen ondoriozko bi iritziak. Hérellen ustetan, Erdi Aroko frantses "misterio, mirakülü eta moralitate antzeppen motan" Europako Mendebaldean hedatürik zen kate baten azken katebegia baizik ez da pastoral, Europar zabaltü zena, bena lekü orotan desagertürik, Xiberuan baizik baratü dena.

Hamabostgerren mentean sortü omen zen, Herellen ustetan. Xiberotarrek etxeki düe, bena aldaketak eginez, garaiari egokitze. Izkiriatürik izan zen Pastoral testü zaharrena hamazortzigerren menteko Sainte Elisabeth de Portugal da, 1750ean

Eskiulan eman izan zena. Txomin Peillen izkiriatazaila xiberotarrak uste züan hamazortzigerren menteko testü elibatetan hamazazpigerren menteko eüs kara zaharraren herexak borogatzen direla.

Herellen lanetan oinarritürik, botere mugagabekoa herri besta eta üsantxeetaz izanen züan jarrera kanbiamenareki, hau da, Inkisizioaren lan errepresiboa bigerren mailarat igarotzen da eta Elizaren jarrera ebanjelizatzailea barkamenean oinarritürik da eta ez zigorrean. Honek, gainera, azaltzen deikü zergatik ez dügün XVIII. mente aitzineko pastoralen esküizkribürik.

Ezin dira parekatü XVIII. eta XIX. mentetako esküizkribüei dagozkien antzeppenak XX. mentearen bigerren zatiko egileek egin düenekilan. Teatro honen biziraüpen eta etxekitze harrigarria bere bilakaeran eman diren aldaketei esker izan da.

Txomin Peillenek eta Junes Casenavek XVIII. mentea beno lehenagoko molde dramatikoak bazirela defendatzen düe. Zehazki, Peillenek aitzineko antzeppen üskal tradizioe bat izan litekeena errepikatü ondokoan (Gabriel Aresti eta beste batzuk aspaldi zaintüa) hainbat arrazoierengatik desagertü zena eta zeinez zati txiki batzuk besterik ez dira gorde, betiko pastoralarentzat.

Casenavek Erdi Aroan Xiberoako bertako teatroa defendatzen dü, Santa Graziko XI. menteko kapituletako irudietan oinarritü, eta orain dela urte batzuk, Altzabehetiko eliza berregitüratzekoan atzamandako XIV.eko fresko batetan. Bertan, ikusi daiteke emakume kantari errenkan esküin esküan makila bana düelarik eta, bere azpialdean, "Santa Gratiae izena. Baliteke izen bereko pastoralaren adierazpen ikonografikoa izaita. XIX. menteko bi libürüska badira izen horretakoak.

Xiberoko beste teatro manerakoak desagertü dira: astolasterrak, edo xaribari fartsak, hogeigerren mentearen hatsarretik antzezten ez direnak, eta lhauteiriko pastoral erriegingarriak (lhauteetako trajikomeriak) arras bizitza llabürra izan züenak, hala, sei aldiz baizik eman ziren XVIII. mentearen ürrentzetik XIX.aren erdialderat artino.

Pastorala ez zen urte orotan emaiten. Gero, urte berean bizpauru pastoral eman izan dira, zonbaitetan algarrenganik hüillant diren herrietan. Gero, urte lüzaz, urtean pastoral bat baizik.

Lehen, pastoralak lüzeagoak ziren. Hau da, pare bat egünez iraüten omen züan. Gero, egün bakoitzekoak emaiten ziren. Geroago, zortzi orenetatik, sei orenetara llabürtü zen. Bi mündü gerlen artean lau orenetara ttipitü zen.

Müsigagileak: Lehen, bi ziren: txülülaria, ttunttunarekila, eta arrabita-joilea. Geroago, arrabita desagertü zen, eta gero ttunttuna. Honen leküa zerbitxü militarretik ekarria zen tabalak bete züan, txülülaren lagün gisa. Geroago jin dira pistoiak (tronpeta, saxofoia, tronbona, klarineta, tuba...) eta berantago, egün ikusten eta behatzen diren kitarra, perküsiõne haboro, zonbait txülüla, eta baita txaranbela ere.

Jan-Mixel Bedaxagarren *Akitaniako Alienor* izeneko Pastoralean –arizale oro emazteak zirela, lau satanak eta zortzi dantzarik salbü–, hiru txülülarik ttunttunareki jo züen (bera Jan-Mixel, Mixel Etxekopar eta Jean-Charles Sans-ek), eta azken honek arrabita ere jo züan, estilo zaharrean (txülüla eta ttunttuna, arrabitareki), lehen beti egiten zen maneran.

Pastoralen üskara kritikatu düe mintzaje handiustezkoa, frantses ele hanitxeki egina. Pastoral, gizonen gaüza zen, emazteen leküa betetzen züela. Bertsetak lau herroketan agertzen dira, bi letra larri hatsarrean, bi errima urrentzean eta bi erranaldi artean.

Testüa gogoz erranik da, neurri finko gabeko eta arautik kanpoko errima düen laudün nagusiko ürrentü gabeko segida, bi melodia desberdinetan emaiten diren doinü monotonoan ahoskatzen da: bata, pertsonaia gehienek baliatzen düena eta lehen pherediküa, azken perediküa eta aingürüen koroari dagokiena. Lehenengoa sinplea da. Bigarrenak, doinü kanbiamen haboro dütüena, XV. mentekoa da Henri Gavelek dioenez. Georges Hérellek, beste alde batetik, pastoreko gogoz erraitea Erdi Aroko eliz antzezpeneko bertsetekila aldentzen dü, bere ustetan pastoralaren jatorri segürrena. Arizaleek, heien artean desbardintzen dütüen igitze kode baten barnean, emaiten dütüe bertsetak: neurrizkoak eta galantak kirixtienak, eta azkarrak eta nahasiak, türkenak.

Berez, mutilek ziren arizaleak, nahiz eta onki jakina den hainbat pastoralen antzezpenak neskek soilik egin zütüela, XIX. mentearen ürrentzetik eta egünko antzezpenetan algarreki aritzen dira.

Süjeta da testü gehiena errezitatzen düena eta bere bizitza Pastoralaren ardatza da, beti ere bere jarraitzailez, lagünez edo menpekoez üngüratüa. Hauetan, taldekatzzen dira betiko gizarteko hiru mailak: gerlariak, laborariak eta apezgoa. Gehienetan, nahiz ez izan horrela egokitütako testüan, bere bizitza osoa antzeztzen da, bere sortzetik heriotzara artino.

XVIII. menteko emanaldietan maskarak baliatzen zirela jakina da egün, Txomin Peilleni esker, zeinek Jusef Egiategi pentsalari xiberotarraren lanak ikertzerakoan atzaman züan. Eta honek borogatzen dü generoan agitü diren kanbiamenak.

Pastoralaren geiak santüer lotürrik ziren. Gero, *Napoleon* zentü eta güтира, 1821ean bere gei laikoa sartü zen eta hala segitü züen. *Üskaldünek Ibañetan* Pastoral berrizalea izan zen, 1906an izkiriatüa. Izenbüria üskaraz züan lehen aldiz, eta üskara honean egina. Üskaldünen historiaz ari da, hiru alderdi agertürrik: türkak, kirixtiak eta üskaldünak. Barkoxen 1929an *Guillaume II* izeneko Gerra Handiaren soldado izanak eman züen, frantses ikuspegi ofizialetik, *Salahankak* izkiriatürrik.

Testüak. Batez ere Hérellek egindako bilketari esker eta pertsona batzuen dohaintzari esker egün Parise, Bordele eta Baionako liburutegietan ehun eta berrogei bat esküizkribü kaier dütügü, azken hiru mentetan zehar taularatü diren hirutan hogeita bi laneki. XVIII. menteko testüak dira, eta XIX.ekoak, gehienak eta eia guztiak Euskal Herriko Unibertsitateko Filologiako fakultateko libürütegian errepikatüak dira mikrofilm batetan, Gasteizen. Badira orano sailkatü ez diren kaierak bildüma pribatüetan. Aipatüren diren erraniko lanak, Hérellek antolatu züan sailkapena kontütan hartürrik.

Antzinatasun profanoa: *Edipo* (esküizkribü bat) eta *Astyage* (bost esküiz.); Itun Zaharra: *Abraham* (zazpi esküiz.), *David* (esküizk bat.), *Moisés* (esküiz. bat), *Daniel* (esküiz. bat), *Josué* (esküiz. bat), *Jacob* (esküiz. bat), *Judith* eta *Holofernes* (bi esküiz.) eta *Esther* (esküiz. bat).

Itun Berria: *San Joan Bataiatzailea* (lau esküz.), *Seme Hondatzailea* (hiru esküz), *Saint Jacques* (bost esküz.), *Saint Etienne* (esküz. bat), *Sainte Veronique* (esküz. bat), *Jerusalem Suntsitua* (esküz. bat), *San Pedro Apostolua* (esküz. bat) y *San Andres Apostolua* (esküz. bat); Hagiografia: *Alexandre* (lau esküz.), *Sant Alexis* (bi esküz.), *Saint Blaise* (esküz. bat), *Sainte Catherine* (bi esküz), *Sainte Elisabeth* (hiru esküz.), *Sainte Engrâce* (bi esküz.), *Sainte Eustache* (esküz. bat), *Sainte Eustache et Sainte Euphémie* (esküz. bat), *Saint Jean Calibyte* (bi esküz.), *Saint Julien d'Antioche* (esküz. bat J. Vinsonek argitaratua), *Sainte Marguerite* (hiru esküz.), *Saint Martin* (esküz. bat), *Hiru Martiriak* (hiru esküz.), *Mustafa* (zazpi esküz), *Saint Roch* (bost esküz.), *Sainte Ursule* (esküz. bat), *Saint Jean Guérin* (esküz. bat) y *Sainte Engrâce et Saint Jean Guérin* (hiru esküz).

Ekitandi Kantuak: *Charlemagne* (bi esküz., B. Oihartzabalek argitaratua), *Les Quatre Fids d'Aymon* (lau esküz.), *Roland* (lau esküz, J. Saroihandyk argitaratua) eta *La Jérusalem Délivrée* (esküz. bat).

Abentura Eleberriak: *Robert le Diable* (bi esküz.), *Richard de Normandie* (bi esküz.), *Hélène de Constantinople* (hamar esküz, A. Leonek argitaratua), *Pierre de Provence* (esküz. bat), *Sainte Geneviève de Brabante* (lau esküz.), *Jean de Paris* (lau esküz), *Jean de Calais* (bi esküz.), *Warwick* (esküz. bat), *Célestine de Savoie* (esküz. bat) eta *La Princesse de Cazmire* (esküz. bat).

Elezaharreko Historia: *Clovis* (hiru esküz.), *Le Bâptême de Clovis* (bi esküz.), *Saint Louis* (hiru esküz.), *Jean d'Arc* (bi esküz.), *Godofredo de Bouillon* (esküz. bat), *François I* (esküz. bat), *Henri IV* (esküz. bat), *Louis XI* (esküz. bat), *Koulikhan* (lau esküz.) eta *Napoleon* (bost esküz.).

Bilakaera. Trajedia honi ezin zeio etxeki berehala hatsarretik egün artino. Ezinbesteko bilakaera agitü da, geien hautatzean. Libürusken datak ez badüe baieztatzen ere, üsü aitzineko esküzikribüen kopiak dira. Txomin Peillenek (*Euskera*, 1981) funtsezko lau mürgerri proposatzen dütü: Bibliako segidari lotürrik direnak eta hagiografikoak (XVI. eta XVII. Menteak); batez ere abentura eleberri edo *romans*, libürüen hedapenari dagokiena (XVII. eta XVIII. menteak); Frantziako historiako geiak (XIX. mentea) eta, azkenik, XX. mente taularatzeak (*sujets* edo gei üskaldünak).

Egileak. Pastoralen egileak ziren (egokitzaileak eta taula xüxendariak aldi berean) herri teatro tradizioner etxekitzeko ardüra züenak. Zonbat lanbidetakoak (nekazariak, zapatariak, errejenta-maisuak...) heien aitzinakoetatik hartütako üsantxa bati jarraipena emaiten zeioen eta familia berean bat beno haboro atzaman genezake. Nolabaiteko kültür maila züan presonak ziren, zeren irakurtzen eta izkiriatzen bazakiaen popülüaren gehiengoa analfabetoa zen garaian.

Georges Hérellek XVIII. XIX. eta XX. menteko hirutan hogeita hamabost egile üngürüko zerrenda bat osatu züan. Emankorrenak nabarmendüren dütügü: XVIII. mentean, Sarrikotako Bernard Etxebarne, Atharratzeko Agie (Michel eta Xahok aipatua) eta Garindaineko Jean

Mekol Igoa. XIX. mentean Jean Mekol II., Atharratzeko Jean-Pierre eta Jean-Baptiste Saffores, Uhartehiriko Jakes Oihenarte, Eretako Pée-Labordetarrak, eta Sohütako Jean-Pierre Heguiaphal Igoa. XX. mentean Atharratzeko Jean Aguer, Piarre Salaber, Jean-Pierra Heguiaphal II eta Marcelin Heguiapahal.

Kanbiamen handia Pierra Bordazaharre *Etxahun Irurik* dakar 1953an, *Etxahun Koblakari* pastoralarekin. Izenbürüa üskaraz darama, heroia üskaldüna da, mintzajia xümea da, jentek baliatzen düana, bena frantsesezko ele hanitxeki eta khantoreer lekü garrantzitsüa emaiten deie, aitzinetik bizpairu baitziren eta latinez. Hala, bederatzü Pastoral izkiriatü zütüan: *Etxahun koblakari*, *Matalaz*, *Bereterretx*, *Santxo Azkarra*, *Le comte de Tréville*, *Chiquito de Cambo*, *Pette Beretter*, *Ximena* eta *Iparragirre*.

Junes Casenave Santa Graztarrak 1976an beste iraultza bat ekarri zeion pastoralari: üskararen maila aberatsa sartü züan; historiaren ikerketa xüxenagoa, libürüetan egina eta ez libürüxketan; hamasei silabetara ekarri züan bertseta, erditik zatituz. Hamar trajedia taularatüak zütüan Casenavek üskaraz eta beste zortzi taularatü gabeak ützi zeizgün.

Geroztik jin izan dira pastoral izkiriataile berriak: Allande Agergarai (*A. d'Oihenart*, *Sabino Arana*); Jean-Mixel Bedaxagar (*Agosti Xaho*, *Akitaniako Alienor*); Pier Pol Berzaitz (*Harizpe*, *Atharratze Jauregian*, *Madalena Jauregiberri*, *Ramuntxo*, *Bereterretxe*, *Petti Buhome*, *Jean Pitrau*); JohaÑe Bordaxar (*Monzon*, *Jose Mendiage*, *Belako Zaldüna*); Junes Casenave (*Santa Grazi*, *Ibañeta*, *Pette Basabürü*, *Zumalakarregi*, *Santa Kruz*, *San Mixel Garikoitz*, *Agota*, *Jesüs*, *Santa Engrazi*, *Eñaut Elizagarai*); Frantxua Caset (*Domingo Garat*); Jean-Louis Davant (*Abadia Ürrüstoi*, *Eüskaldünak iraultzan*, *Agirre Presidenta*, *Xiberoko Makia*, *Antso Handia*, *Xiberoko Jauna*, *René Cassin*); Joana Etxart (*Joanikot*); Niko Etxart (*Ürrüti Jauregiko Peirot*); Mixel Etxekopar (*Üskalamerikan artzain*, *Ederlezi*); Roger Iriart (*Xalbador*, *Etxahun-Iruri*); Kanpo Keheille (*Herriko semeak*, *Xahakoa*), Maritxu Negelua (*Sibastarrak*); Tiittika Rekalä (*Oiherkoren trajeria*, *Belagileen trajeria*).

Kantore gidariak. Kantoreak lekü handia hartü dü azken hogeï urtetan, hamar-hamabi pastoral bakoitzean. Horier gehitü behar zaie koblakarien bertset elibat algarrizketetan, bertset gregorianoak beno, ahaire xumeagoetan emanak, monotonia hausteko baliatü daitezkeenak. Batzük aipatzeko, Mixel Etxekopar, Niko Etxart, Pier-Pol Berzaitz, Sophie Larrandabürü, Lüxi Etxekopar, Beñat Axeari...

Trajedia dramatiko hau errejent edo pastoralier deitzen denak xüxentzen dü. Betiko pastorean, eskuizkribüaren kaieraren egilea zen, eta gainera egün taula xüxendaria erranen geneikeo. Eman behar zen lehen ürratsa arizaleak atzamaitea zen, hamazortzi eta hogeita hamarren artean güti-gora-behera. Gero, testüaren ego-kitzapena egin behar zen, hau da, libürüaren irakurketa, haien iritzian taularatzea merezi züen zati egokiak haütatüz. Manera honetan, milatik bi mila arteko bertseta ziren, eta hauen gogoz erraitea zazpi edo zortzi oreneko iraüpena izan zitekean. Azkenean, lehen eta azken pherediküa konposatzen ziren eta mustrakak hasten ziren.

Pastoral errejentak lan garrantzitsua egin dezake Pastoralaren izkiriataileareki, hobekuntzak proposatuz. Aipatzeko Jean Hégiaphal, Pierre Hégiaphal, Pierre Aphezetx Salahanka, Leon Salaber. Bigerren Mündü Gerla ürrentürrik, Lexardoi, *Eihartxet*, Lapeyrine, Jauri, Tartaxü, Allande Bordazaharre, Marzelin Hégiaphal (1910-1996), Battitta Urruti (1919-2004) erakasle famatüen ondotik jin direnetako batzuk hauek dira: Mixel Berzaitz, Jean-Pierra Rekalt, J. F. Lexardoi, Jean Berdot, Mixel Arotze *Zaratantxü*, Pier Pol Berzaitz, Jean-Mixel Bedaxagar, Sophie Larrandabürü eta Maite Ithurralde, Nikole Lougarot, Battitta Berrogain, Xantiana Etxebest, Maite Davant...

Ezin dira baliatü teatro klasikoaren arauak pastoralaren ikertzeko. Lehen perezidüak, lautan hogeï edo ehun bertseten artean izaten zütüan, ikusleei egiten zeien agurra, geiaren aurkezpena, geiaren llabürpena eta arizaleen jitearen iragarpenaz osatüa zen. Azken Pheredikian ikusleei bere arreata eskertzen zeien, barkamena eskatzen zen egindako akatsengatik, geia llabürki azaltzen zen lanaren mezü morala azpimarratuz eta ikusleei dantza egitera kumitatüz ürrentzen zen.

Eszenategia oholta soil bat da. Gibelean, trenkada bat zeinetan kokatzen den, ikusleen aldetik so eginik, sartze borta, kirixtiena esküinean eta türkena ezkererat. Azken honek bere gainean deabrüa irudikatzen düen panpina dauka eta türkek irten eta sartzen direnean, igitzen da. Batzuetan, hirugerren borta bat ere egon zen erdialdean, mündü jainkotiarra, batez ere aingürüak, adierazten züen pertsonaiak erabiltzen züena, egünko pastoraletan beharrezkoa bihurtu dena. Arropak daramaen kolorearen arabera dira, gorria türkena eta urdina kirixtiena, urdina zelüa delarik eta erdiko xuria, argi kolorea, xahütarzüna adieraziz.

Lehenago, Pastoral emaiteko leküa zabalago zen. Atzineko zatia hütsik üzten züen, orai desagertü diren zaldi güdüak egiteko. Eta jentea, bi aldeetan jarten zen. Güdü edo borroka gabeko Pastoralik izan da. Baita artzain gabekoak ere. Hori, orain, ezinezkoa da.

Beste berrikuntza pastoral jaiekaldietan banatzea da; artalde baten agerpena nahiz eta ez izan zerikusirik geiareki; "trapa" jartzea, hau da, satanek hildako türkek "infernürat igorteko" baliatüren düen ziloa; mota güzietako kantak antzezpenean zehar; eta lanaren libürüska inprimatzea ikusleek aisago segi dezaïen. Azkenik, egilearen figurak izan düan aldaketa azpimarratü behar dügü.

Emazteak trajeria. Lehen ürratsa Marcelin Hégiaphal errejentak 1976an Urdatx / Santa Grazin egin züan Junes Casenaveren lehen trajeria, emazteak kür edo koroan sartüz.

1979ean neskatala eta emazte gazte eli batek, Battitta Urruty errejent züelarik, Etxahunen *Ximena* eman züen Atharratzen eta gero Irurin, halako erronka bat bezala. Mezü eder eta ozena entzünik izan zen ondoko urtean Urdiñarben, Etxahunen *Iparragirre* trajeria, Urruty berriz errejent zelarik, andereek emazte rolak bete zütüen lehentze gizonekiko antzezpen batetan. 2000. urtean Eskiulan, Berzaitzen *Madalena de Jaureguiberry* trajeria, J. Berdoten manaspenean, lehentze andere bat süjet izan zen gizonekiko antzezpen batetan. Miraküilü

hori arraberritü da 2006an Urdatx / Santa Grazin, *Santa Engrazia* trajerialan, J. P. Rekalt errejent züalarik, eta berriz Aloze-Ziboze-Onizepean, Rekalt anaiekin, *Belagileen trajedian*. J. M. Bedaxagarren *Akitaniako Alienor* trajedian, arizale oro emazteak izan ziren, lau satanak eta zortzi gizon dantzari salbü, bera Jan-Mixel errejenta (eta txülülaria) zelarik.

4.6. Literatura xiberotarrez¹³

Lapurteraren ondokoa, bigerren üskalki literarioa sortü zena, xiberotarra izan zen.

XVII. Mentea

Xiberotarrez izkiriatiürük izan ziren lehen libürüak autore hauenak izan ziren: Oihenart, Tartas, Bela, Belapeyre eta Maitia.

Arnaud Oihenart (1592-1667). Legegizon mauletarra. Eüskaraz *Les proverbes Basques* libürüan bi zati üskaraz dütü: *Atsotitzak* (706, frantsesezko ützülpinareki) eta *Gaztaroa Neurthitzetan*, poemekila.

Joan Tartas (1610-?), Sohüta. Apeza. Bi libürü egin zütüan: *Onsa hilceko bidia* (1666) eta *Arima penitentaren occupatione devotac* (1672). Lehen libürüan Züberoak, Nafarroa Behereak eta Lapurdik emaiten deie zer bait hizkuntzan. Amikuzeko azpieüskalkitik hurbil ebili zen, xiberrotarrezko gaüza hanitxeki.

Jakes Bela (1557-1595). Mauletarra. Legegizon familia batekoa. Kalbinista da eta emaztea, katolikoa. Frantsesez *Tablettes* elki zuän. Bertan, badira 44 atsotitz üskaraz, zeinak Oihenartek bere obran agertüren dütü. Eüskal gramatika eta eüskal hiztegia ere egin zütüan, bena ebatsiak izan ziren.

Athanase de Belapeyre (?-1698). Jakes Belaren semeetariko bat. Apez katolikoa. Xiberotar hütsez izkiriatiürük izan zen lehen libürüa egin züan: *Catechima laburra eta Jesus-Christ gouré Gincó Jaunaren eçagutcia, salvatu izaiteco*. Belapeyre züberera klasikoaren aita da.

Jakes Maitia. Apeza. Züberoako bikario orokorra zen. Apezpikuak katixima üskaraz, frantsesez eta biarnesez nahi izan züan karrikaratü. Üskal ützülpina Belapeyrek egin züan: "Catechima Oloroeko diocezaren cerbuthuco ecinago ilustre eta choragarri Messire Joseph de Révol hanco apezcupiaren manuz egin. Eta Züberoa herrico uscaldunen amorecatie utzulia Messire Jacques de Maytie Oloroeco calongiaz eta hanco vicari generalaz". (Pauven) Jérôme Dupoux, 1700. Berriz inprimatüa izan zen 1743, 1746 eta 1788an.

XVIII. Mentea

Mente hontan literaturan beherapen handia emaiten da, Lapurdin zein Xiberuan. Arrazua, ekonomikoa eta espirituala da. Donibane-Ziburuko portuko arrantzaleek urak hetsiak dütüe, Angalaterrak Kanada hartü eta itsas urak beretzat dütü. Protestanta kalbinistak badoaz eta izkiriataile katolikuak lozorroan baratzen dira.

Martin Maister. Berataz datu güti dira. Apeza, Ligiko erretore. Kempisen Imitazionea xiberera ützüli züan, *Jesu-Kristen Imitazionia* (1757) izenbürüaz.

Jusef Egiategi. Filosofoa. Hiru libürü izkiriati zütüan, bena argitara atera gabe. Txomin Peillenek atzaman zütüan Parisko Biblioteka Nazionalean, Abbadiek harat eramanik. Peillenek lehen libürüaren edizione kritikoa egin züan eta Euskaltzaindiak 1983an karrikaratüa: *Lehen liburria edo filosofo huskaldunaren ekheia* (1785).

Beñat Mardo. Barkoxe. Koblakaria. Joskina lanbidez. Ahozko koblakarietan fama handiena izan züana Xiberuan, hogeigerren menteko Ligetxeki. Izigarritzko erraztasuna omen züan, edozertaz, edonoiz, edonon koblaka hasten zena. Xahok zioen hoge libürüetan ezin zela haren obra osoa bildü. Egün, dozena erdi kobla gorde dira. Adibidez, *Ni deitzen nük Beñat Mardo* (sei bertset), edo *Barkoxeko gatü jaleen kantorea* (sei bertset).

XIX. Mentea

Abbadia aita-semeak. Antoine (1810-1897) irlandarra zen amaz, sortzez, haurtzaroaz. Aita, Mixel izenekoa, ürrüstitarrak üskara erakatsi zeion. Mixelen lan xume bat bada üskaraz, izenbürü frantsesareki, bena: *Le corbeau eta le renard*. Antoinnek Euskal Jaiak antolatü zütüan. Izkiriati güti, lapurterazko gütün batzuk. Xiberotarrez, *Zubernoatikako gutuna*, aski lüzea, Urruñako udalari igorria.

Agosti Xaho (1811-1858). Atharratzekoa, ama mauletarra zuen. Antiklerikal amorratüa, hargin-libroa, ezkerrekoka, errepublikazalea. Abbadia eta bera adin berekoak, biak urte bere-tan Parisen ikasle, üskaltzale handiak, poliglota ziren biak. Louis-Philipperen monarkiaren kontre biltzen ziren errepublikazaleak (Xaho) eta legitimistak, eskubiko monarkiazaleak, karlisten eitekoak ziren. 1836an gramatika lan bat eman züen algarrekila: *Zazpi Üskal Herrietako Üskaldüner*. Lanaren zati nagusia Xahok egin züan. Abbadiek aitzin-hitza mardula egin züan, beste hizkuntza zonbaiteki konparazioneak eginez. Gainera, Xahok kantore bildüma egin züan, hiztegi bat hasi eta grafia berria proposatü: *Règles de l'ortographie euskarienne*. Frantsesez, *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques*.

Jean-Baptiste Arxu (1811-1881). Altzürükü. Eskola errejenta. 1848an karrikaratü züan *La Fontaineren aleighia berheziak neurt-hitzez frantzesetik uskarara itzuliak* eta 1852an gramatika bat, hiztegi bateki, *Bi mihiren gramatika, uskara eta frantzes*a. Xiberotarra dü oinarri, bena ekialdeko behenafarreraz osatürik, Tartasen maneran, xiberotarra beste üskaldünei zabaltü nahirik.

Pierra Topet *Etxahun* Barkoxe. (1786-1862). Laboraria. Bizitza gogorra izan züan, haserre hanitx izan omen zütüan, güzi honek bültzatürik kantore izigarri arrakastatsüen eta maila gorenekoen sortzailea izan zen. Üskara zinez aberatsa baliatü züen bere kobletan, baita zaharra eta klasikoa ere, zonbait ele bearneseki nahasirik. Hala, batzuk aipatzeko *Maria Solt eta Kastero*, *Ürxapal bat, Mündüan malerusik, Ahaide delizius hontan, Etxahunen bizitziaren khantoria, Bi ama alhabak...*

Emmanuel Intxauspe (1815-1902). Zunharretan sortua. Apeza, Baionan apezta eta bertan bizi 1890ra artino. Vatikan I delakoan Erroman izan zen. Onizegainan zentua zen. Goi mailako izkiriatailea xiberotarrez. Eta baita lapurteraz eta frantsesez ere. Lan hanitx uskaraz (hamar unguru) egin zutuan. Hona heben batzuk: 1. *Jesu-Kristen Ebanjelio Saintia Sen Mathiurren arauera, Inchauspe apezak Zuberoko usvaralat utzuliric*. 2. *Dialogues Basques* (L. L. Bonapartek bultzatua, lau uskali literarioetan, xiberotarrezko bertsionea egin zuan). 3. *Maria Birjina-ren hilabetia, edp Mayatzian egun oroz egiteko irakourtalaiak Maria Virginaren bizitza eta berthute ederren gainen*. 4. *Kantika Saintiac* (zubereraz).

J. D. L. Salaberri (1837-1903). Mauletarra. Legegizona. Bere lan nagusia *Chants Populaires du Pays Basque* (1870) izan zen, 50 kantore, hitzez eta ahairez, bildu zutuelarik. Beste lan bat *Uskalduner: beti aitzina xuxen xuxena dabila Uskalduna*. Parlamentarigei errepublikazale baten alde 23 ostoko kaiera karrikatu zuan. Behenafarrera honean egin. Frantsesez, *Les mascarades souletines, avec les airs notés*, in *La tradition au Pays Basque* liburuan, 256-280 ostoetan.

Jean Iribarne (1814-1890). Altxabehetin sortua eta Zalgizen zentua. Apeza. *Almanak uskara edo Ziberouko egunaria* izeneko aldizkariko xuxendaria izan zen. Hiru liburu argitara eman zutuan: 1. *Ciberouko guthuna* (1852). 2. *Mysterio edo eguia gehienac* (1856). 3. *Sen Grat Olorueco aphezcupiarentzaco Mous de Lassale catradaleko erretorac erran dutianac uscaraz ezarriric* (1879).

J. B. Althabe (1843-1911). Mauletarra. Apeza. Hondarribiko 1902ko ortografia biltzeko bilkuran izan zen. Bi liburuak zientifiko-teknikoak karrikatu zutuan: *Chiberouko botanika eta lantaren jakitaita* (1900). Eta *Hounkailu berrien enthelegia Ciberouko laborarier* (1904).

Felix Larrieu (1863-1941). Mauletarra. Bedezia. Paris aldeko hiri batetan bizi izan zen. Maurice Ravel musikariaren laguna izan zen. Uskarazko lanetan: 1. *Uskal Noelen lilia*, Eguberriko kantore bilduma da. 2. *Almanak Uskara*. Frantsesez, *Mauléon et le Pays de Soule pendant la Révolution*.

XX. Mentea

Jean-Baptiste Constantin (1847-1922). Santa Grazi. Errejentia eskoletan. Zonbait artikulu eta kobla agertu zutuan *Eskualduna* astekarian eta beste kazeta batzuetan.

Albert Constantin (1873-1957). Izpuran sortua. Bedezia. Aita Jean-Baptiste zen, eta ama Santa Graziko dendari-joskina. Xiberoko berriak *Eskualdunan* eta artikuluak *Gure Herrian* karrikatu zutuan.

Kadet Oxibar (1880-1968). Gameraen sortua. Apeza. 1979an Sü Azia elkarteak bere *Lehenago Gameraen* izenburuko liburuak agertu zuen.

Jean Pierre Oxibar. Misiolaria Txinan. *Asiatik Euskal Herrialat* lana karrikatu zuan *Gure Herrian*.

Jean Jauregiberri (1880-1952). Argentinan sortua. Alozen zentü. Bedezia. Aintzina eta Gure Herrian izkiriati züan. Bere lan nagusia frantsesezkoa zen, *Basabürüan*. Jakes Sarrailletek ützüli züan üskaraz.

Madalena Jauregiberri (1884-1977). Errientsa. Lehen Mündü Gerlan senarra zentü zeion. Begiraleak kültür elkartea sortü züan, orano bizi dena Donibane Lohitzunen. Üskararen balioaz artikülü hanitx izkiriati züan, bena gehienik frantsesez.

Clement Jauregiberri (1895-1965). Lehen Mündü Gerlan kapitain gradoareki ürrrentü züan gerla. Bildozen bizi zen. Xiberoko makiaren bürüa izan zen sei ehün gizoneki, Xiberua libratüz 1944ko üdan. Alaba Margaitaren esküizkribüetan ikusten da üskaraz ere lüma hona züala.

Jean-Baptiste Borthiry Sala (1889-1974). Larraine. Koblakari fama bazüan. Sü Azia-k zonbait kobla karriaratü zeitzon 1979an.

Fabien Hastoy (1879-1950). Lexantzü. Atharratzen zentüa. Errejentia eskolan. Artikülüak izkiriatiak *Eskualduna* eta Gure Herria aldizkarietan. Antzerki llabürak eskolan emaitako ere egin zütüan. La Fontainen hamabost alegia üngürü üskaraz egokitü zütüan.

Pierre Lhande (1877-1957). Aita-ama xiberotarrak zütüan. Baionan sortua. Frantsesez haboro izkiriati züen eüskaraz beno. Lafitteren arabera, gipuzkeraz xiberotarrez beno hobekiago emaiten züan. Xiberotarrez artikülü güti egin zütüan.

Louis Ligetx (1901-1940). Larraine. Zihigarat ezkontüa eta han zentüa. Bat-bateko koblakari trebea zen. Ez deikü kobla hanitx ützü. Bena izigarri trebea zen aho-mihiz, Beñat Mardo bezala. Heltü bada, xiberotar koblakari trebeenak, edozein geiz kantatzen züenek. Etxahun-lurri bena zorrotzagoa omen zen bat-batean, biek kantari behatütakoek erraiten züenez, zalua goa zen Ligetx.

Pierra Bordazaharre, *Etxahun* (1908-1979). Irurin sortua. Koblakaria eta kantore-ontzalea. Koblakari gisa Ligetxeki ikasi züan, bena hau gazterik zentü zelarik, ez züan izan Pierra *Etxahunek* noreki ikasten segi eta haboro ikasi koblaka. Hernandorenak antolatü zütüan sari-keta bat irabazi züan Hazparden 1946an. Kantore ontzale gisa, kantore zoragarriak sortü zütüan, ele goxo eta ahaire erakargarrieki. Badütü 400 üngürü kantore karriaratüak. Pastoralgile bezala, bederatzi izkiriati eta mende laurdenez bakarra izan zen. Pierra *Etxahunek* Pastoral iraultzez gain üskaldün gei eta süjetak ekarriaz, Pastoraletan kantore haboro sartü züan, üskarazkoak zirenak (ez latinez, lehenago bezala).

Thomas Uthurri (1920-1997). Atharratzeko semea. Apeza. Lüma sotila honek ere, bena plaza gizona ez zen. Artikülü batzü egin zütüan.

Alexis Etxekopar, *Attuli* (1924-2005). Barkoxe. Laboraria. Kantoreak sortzen biziki trebea zen, bena ez zen plazan agertü zale. Kantore eijer hanitx sortü zütüan, adibidez, *Pilotarien biltzarra*, *Sorleküa kitatüz*...

Guillaume Eppherre (1911-1974). Altzürükü. Apeza. Üskara eijerra züan, xiberotarrez, bena baita lapurteraz ere. Xiberoko üskalkiaren izenean, Lhanderen ondoko Xiberoaren ize-

neko eüskaltzaina izan zen eta Davanten aitzinekoa. Bere lanak sakabanatuak dira eta biltzea mereziko lükeie.

Gregoire Eppherre *Ddiddue* (1929-1974). Altzürükü. Apeza. Honen lanak ere biltzekoak dira, anaiarenak bezala.

Mixel Eppherre (1932-1999). Oso koblakarizalea zen. Lüma sotila züan, bai xiberotarrez, bai behenafarreraz. Artikülü parrasta egin züan, bereziki *Gazte* hilabetekarian eta azken urteetan *Lema* jeltzalean, bena sinatü gabe. Hauek ere bildü beharrekoak, anaiarenak bezala. *Enbata* kazeta (1960) eta mügimentüaren (1963) sortaileetarikoa izan zen.

Johañe Eppherre (1931-2004). Altzain sortüa. Aipatü Eppherreren askazi hürrünekoa. Apeza. Üskararen langile zintzoa eta ixila, gramatika ikasgaiak eginez, Sü Azia elkartearen lan eginez, ihoren lanak libürüetan plazaratüz. Koblak ere izkiriati zütüan.

Junes Casenave-Harigile (1924-2018). Santa Grazi. Apeza. Palestina eta Donapaleun urte hanitxez izana, Basabürüko ibar-eskuineko parropietan apez izan zen. Lan oparoa egin züan üskal letretan: hemezortzi Pastoral; olerkiak (*Oihanealat*, 1984) eta beste hanitx *Maiatzen*; Saioak (*Amikuze*; *Züberoako antzerkia*); Historia lanak (*Orhiako Naba*, 1987; *Zumalakarregi güdabürüa*; *Ximun Gimon Zetegiet*, 1793-1861; ützülpentak (*Egün oroetako irakurgeiak*, Bibliaren zatiak; *Itun edo Testamentü Berria*); Artikülüak gei ezbardinez, kazeta eta aldizkari parrasta batetan; *Hiztegia* (Züberera-Frantsesa eta Français-Souletine); Gramatika lanak (*Xiberoan üskaraz libürüa*, Sü Azia, 2001); *Aroa* libürüa; 1989an *Maiatzen*, *Altzai*ko *Herensugea*, *Sineste zahar eta ez hain zahar* eta beste *Sineste zahar eta ez hain zahar* eta beste; Basabürüko ipuinak (1997, Izpegi).

Jon Mirande (1925-1972). Parisen sortü eta zentü zen. Aita-amak xiberotarrak zütüan. Etxen frantsesez mintzatzen ari zeitzon, eta berak bere kasa ikasi züan. Xiberotarrez, lapurteraz eta gipuzkeraz ikasi züan. Gizon berezia, arrazista, nazien alde agertü zen, paganoa zen, üskaldünen Urtzi gürtzen züan. Hizkuntza hanitxez mintzo zen, heietan bat, bretoia, beste bat hebreera. Üskal izkiriataileetan bazütüan adixkideak, Peillen (politikoki zeineki ez zen ados), Jon Etxaide kristaua, Gabriel Aresti komunista. Izkiriataile izigarri hona bezala kontsideratüa. Bere lan nagusia *Haur besoetakoa* izeneko nobela zen. Poema eder hanitx izkiriati züan, eta baita ipuinak eta artikülüak ere, eta *Gauaz parke batean* izeneko narrazionea. *Igela* izeneko literatur aldizkari hetodoxoa berak eta Peillenek elki züen, sei aletan, bi urtetan. Mitxele-naren arabera, Kafka eta Poe eüskara ekarri zütüan.

Txomin Peillen (1932-2022). Parisen sortü zen, aita-amak xiberotarrak zirela. Etxen frantsesez ari zeitzon eta bere kasa ikasi behar izan züan. Biologoa eta erakaslea. Euskaltzain urgazlea, eta gero osoa (Piarres Larzabalen ondotik, eta honen aitzinetik Campión).

Aldizkarietan 191 ikerlaneko artikülüak (*Argia*, *Elhuyar*, *Euskera*, *Fontes Linguae Vasconum*, *Galeusca*, *Gernika* –hegoameriketakoa–, *Gure Herria*, *Herria*, *Igela*, *Jakin...*). Kazetaritzan artikülü hanitx (*Egunkaria*, *Le Journal du Pays Basque*, *Berriak*, *Biga*, *Elgar*, *Elkarrekin*, *Gara*, *Berria*, *Le Miroir de la Soule*, *Time*, *Zubiak* aldizkarietan). Literatur lan sakabanatuak (*Euzko Gogoa*, *Egan*, *Gernika*, *Igela*, *Maiatz*).

lkerketa Libürüak 29 izkiriatiü eta 20 karrikaratü (bat gaztelaniaz, lau frantsesez eta 13 üskaraz). Batzuk aipatzeko: *Jon Miranderen idazlan hautatuak*, *Egiategiren lehen libürüa*, *Animismua Zuberoan*, *Allande Elixagaraien ixtorioak*, *Zuberoako itzalargiak*, *Paristar euskaldun bat*, *Zuberoako herri sendakuntza*, *Agur Zuberoa*, *Oihenart hautatua*, *Ehiza eta zepoka Basabürüan*, *Euskaldun etorkinak Ameriketan...*

Literatura Libürüak: üskaraz 21 izkiriatiü eta 17 argitarat emanak. Batzuen izenbürüak erranik: *Gauaz ibiltzen dena*, *Itzal Gorria I*, *Gatu Beltza*, *Haur ipuinak* (1, 2 eta 3), *Igela*, *Emazte goxoa*, *Aintza txerriari*, *Kristina Bolsward*, *Itzal gorria II*, *Alarguntsa beltza*, *Ale gorriak*, *Ale berdeak*, *Mende joanaz...*

Jean-Louis Davant (1935). Ürrüstoi-Larrabilen sortüa eta han bizi emaztearekila. Bi alaba eta hiru arrahaur dütü. Aljerian soldado egona 27 hilabetez. Nekazari ingeniaria. Erakasle 35 urtez Hazparneko Laborantxa Eskolan. Eüskaltzain osoa 1975tik, Guillaume Eppherrerren ondotik, eta hau Pierre Lhanderen ondotik.

Olerkiak: 6 libürü (*Makila Gorria*, *Denboraren aroak*, *Nahi gabe*, *Itsasoak iraultzan*, *Ihesi*, *Harri txintxolak*). Trajeriak/Pastoral: sei (*Abadia Ürrustoi*, *Eüskaldünak*, *Agirre Presidenta*, *Xiberoko Makia*, *Antso Handia*, *Xiberoko Jauna*, *René Cassin*, *Nafarroako Blanka*). Libürüxketan bi: *Etxahun-lruri* eta *Manex Goienetxe*.

Nobela bat: *Iparraren bila*. Saiakerak: *Aberri eta klase burruka eta klase burruka euskal mogimenduan*; *Zuberoako idazle zenduak*; *Zuberoako literaturaz*. Antologia laburra.

Allande Etxart (1950). Altzain sortüa. Hiru nobela dütü karrikaratüak: *Matalaz ez balitz zaldiz agertü* (2017), *Garindainen txülüla ezagün zen* (2018), *Leheneko eüskaldünari fama zaio baratü* (2019). Saioa ere badü *Xiberoko sagarretaz* (2013). Eta Victor Hugoren ütülpen bat: *Andere natura* (2014).

Ttittika Rekalt (1959). Altzabehetin sortüa. Pastoralak izkiriatzetz gain (*Oiherkoren traje-dia*, *Belagileak*), *Etxebarre 007* ikuskizunaren testuaren izkiriatailela da. Xiberoko Botzako langilea izan da urtetan komunikazionea xiberotar eijerrez emanik. Aktore lanetan ere ari da, zineman (*Gartxot*, *Xora*) telebista, zoin teatroan. Ipuin libürüa badü karrikaratüa: *Mula Nazrudin eta...*

Itxaro Borda (1959). Baionan sortüa, bena Nafarroa Behereko Oragarren lüze bizi izana. Baita Parisen eta Maulen ere. Eüskaltzainbürü-ordea da. Orain Baionan bizi da. Lan hanitx egina literaturan, 13 poema libürüak karrikaratü dütü eta baita 13 nobela ere, hauetariko bat, *Bakean ützi arte* (1994), xiberotarrez egina.

Egün xiberotarrez izkiriatzeten diren testu gehienak pastoraletako lanak dira. Honetarako ikusi Pastoral atala. Hortik landa, ütülpen lanak egin izan dira, eta ütültzale garrantzitsuak erraiteko: Jüje Etxebarne, Beinat Espil, Pepeia Etxebarne, Jakes Sarraillet... Kazetari gisa, Jean-Louis Davantekin batera, Allande Sokarrosek urte hanitxetako lan garrantzitsua egin du. Eüskaltzaindian eta üskarari lotürik, Battittu Coyos izan dügü aipatzekoa.

Izkiriataile xiberotarrek hanitx etxeki due heien uskalkia, nahiz eta guti batzuek Lapurtera/Behenafarrera baliatu ihoiz.

4.7. Koblakariak

Hogeigerren mentean koblakari famatuena Xiberoan Luis Ligetx (1901-1940) eta Pierra Bordazaharre *Etxahun* (1908-1979) izan ziren. Algarrekila kantatzuen zuen. Ligetx "xuria" zen eta Pierra Etxahun "gorria", horrela entzulegoaren nahiak betetzen zuten. Ligetx gazterik zentu zen, 1940an eta Pierra Etxahunek, nahiz eta Hernandorenak antolatutako txapelketetan ebili, behin lehena -txapelduna- izan zen, beste koblakari xiberotarrik ez zuanez, guti ebili zen koblaka, ez bait zuen noreki ikasi eta trebatu buruz-burukoan ihardunez.

XX. mendearen hatsarrian, Ohitx eta Borthiri-Sala koblaka ari ziren oraino Xiberuan. Luzien Villeneuve *Soholuztarra* (Atharratzeko auzo baten izenez hala erranik, 1852-1934), atharratzarra, familia noble baten semea, kobla izkiriataile bezala ezaguna zen.

Jan Battitt Constantin Bordaxar *Joanes Garaztarra* (1847-1922) erakaslea zen. Lapurdiko Lehuntzen sortua, Donibane Garazi aldean egona, bere bizitza zati handiena Xiberoan iragan zuen. Euskaraz gain, lau hizkuntza menperatzen zituen: frantsesa, latina, espainola eta okzitanoa. Koblaka lanik handiena xiberotar mintzairan egin zuen.

Eia hirutan hogeitertan ez zen xiberotar koblakaririk plazetan kantari ebili. Jean-Mixel Bedaxagar kantaria, dantzaria, txulularia eta pastoral-egilea ebili izan zen koblaka trebatu nahirik urtetan, bera ez zuen izan noreki ihardun Xiberuan eta xiberotarrez. Hogeitertan mentean hasi dira koblakariak Xiberuan sortzen. Hala, Mixel Etxekopar soinu-tresna hanitx joilea, dantzaria eta kantore ontzalea (1963, Gotaine-Irabarne); Joanes Etxebarria (1984, Barkoxe) Ipar Euskal Herriko txapelketan hirugerren izan zena Amets eta Sustrairen ondokoa) eta Pette Etxebarria anaiak (aita eta ama bizkaitarren semeak); Johane Sarrailet (1997); Haitz Capot (2001, Zalgize); Beinat Larrori; Aetz Etxart (2004, Urdiñarbe). Emazteetan, Leire Casamajou (2001, Sohuta).

Ramuntxo Christy, Xan Alkhat... Xiberuan bizi edo ebiltzen diren manexak dira, bera xiberotarrez kantatzen due koblaka.

5. Azkena. ondorioak

Ikusi bezala Inkesta soziolinguistikoan eta Hezkuntzari dagozkion datuetan, euskara Ipar Euskal Herrian desagerturik izan daiteke 2050. urtean, 25 urte barne, ez bada euskaraz mintzo den populazioaren % 20 tik % 30era igotzen, UNESCOk ezarritako gutieneko portzentaiak kontuan izanik hizkuntza bat galdu ez dedin. Alde positiboa izan daiteke ikastolarat doazen haurrek euskara ikasten dutela etxetako euskararen transmisio eza etenik, nahiz eta irakurzaletasun handirik izan ez, bera euskalzaletasuna bai, beste gauzekiko,

irakurtzetik at: telebista eta irratia, zinema eta teatroa, kantagintza eta bertsolaritza. Honi gehitu behar zaio alde positibo bezala euskara gizartean onartuagoa dela lehen baino inkestan ikusten denez. Era berean, bada kultur militante gutiengo bat euskaraz sortzen duena literaturan, musikan eta teatroan, pastoral, maskarada eta libertimenduan, hedabideetaz gain. Hor da erronka: tradiziozko lau euskalki ederren lurralde fisikoki oso polita ipar Frantziako milaka biztanle erakartzen dituen, bi euskalki literario zaharrenekin (lapurtera eta zuberera), lehena garrantzitsuena izan zena garai batean, egun euskal kultur basamortua bihurtua izan daiteke. Hizkuntzaren eta euskal kulturaren hondamendia badator ala gainditu daiteke?

OHARRAK

¹ EEPk lau hanka ditu, 2004an sortu zenetik: Frantziako Estatua (Kultura, Hezkuntza eta Barne ministerioek dute ordezkaritza), Akitania Berria eskualdea, Pirinio Atlantikoetako departamendua eta Euskal Hirigune Elkargoa.

² Euskal Konfederazioaren kideen artean eremu anitzetakoak kausitzen ditugu: irakaskuntza (Biga, Euskal Haziak, Seaska), helduen euskalduntze-alfabetatzea (AEK), hedabideak (Eskual Irratiak, Hitzak), material pedagogikoak sortzen diharduen IKAS, aisialdiak (Uda leku), kultur arloko elkarteak... Azken denboretan, egitura ofizial baten (EEP) agerpenarekin bere eginbeharraz eztabaida zabalik dago, beti kontuan harturik bere burua herri-mugimendutzat jotzen duela.

³ www.mintzaira.fr VII. Inkesta soziolinguistikoa Iparraldeko emaitzen aurkezpena 2023.03.30
<https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/> ipar-euskal-herriko-inkesta-soziolinguistikoa

⁴ Euskara Iparraldean www.argia.eus Argiaren 1776 zenbakia. 2021eko uztailaren 20a

⁵ www.berria.eus 2024.12.07 'Ipar Euskal Herriko ikasleen %67k ez du harremanik euskararekin'.

⁶ *Euskal literatura Iparraldean* (1960-2020), Euskaltzaindia.eus webgunean.

⁷ Daniel Landart, *Komediaz komedia Lapurdin eta Baxenabarren, 1945-1970*. (Elkar, Baiona, 2019).

⁸ Pierre Topet, «Etxahun»: Bertsoak eta kantak <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/E/Etxahun.htm>

⁹ Khantan - Etxahun-Iruri <https://armiarma.eus/emailuak/mizka/etxahun-iruri.htm>

¹⁰ Züberoako kantariak, Jean Mixel Bedaxagar, Elkar / Sü Azia, 2019.

¹¹ Züberoako dantza jauziak, lürra bezain biribilak, Mixel Etxekopar. Aitzina Pika, Jean Mixel Bedaxagar, Sü Azia, 2018.

¹² *Pastoralaren Historiaz*, Jean Louis Davant. Euskonews.eus 520 zenbakia.

La Pastorale Basque de Soule. Jean-Louis Davant, Elkar 2019.

Xiberoko Antzertia edo Pastoral, Junes Casenave-Harigile. Euskaltzainak Bilduma, Euskaltzaindia, 2011.

Pastoral in aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus

¹³ Jean-Louis Davant, *Züberoako Literaturaz. Antologia laburra*, Euskaltzaindia, Euskaltzain Bilduma, 2008. Txomin Peillen, *Züberoako itzal argiak*, Elkar, 1988. Jean-Louis Davant, *Züberoako idazle zenduak*. Elkar, 2001.

CULTURA, HERENCIA Y UNIVERSIDAD: LO QUE ETA ROBÓ A LOS VASCOS

ANA ESCAURIAZA ESCUDERO

ETA: una pieza más del puzzle cultural

Gero, bai, poliki-poliki, joan nintzen Arestiren munduan barneratzen. Lagun eta gidari Oskorri izan nuen, hasiera batean.

Irrintzi bat entzun dugu
ezpataren aurrean
oskorria zabaltzen da
euskaldunen lurrean.

Hasierako hitz horiek, oskorriaren zabaltzea, zeru gorriaren agerpena etorkizunean, metafora balitz bezala hartu nuen. Gorriak gu ginen: batzuk, marxistak, eta bestetzuk, leninistak; eta irakurrienak, marxista-leninistak. Amaierako hitzak, nola ez, oso genituen maiteak.

Euskal Herrian ez da
klase sozialik
izango
eta euskaldunak
zoriontsuagoak
izango
gara.

Kanta horrek Karl Marxen eta Frederik Engelsen *Manifestu Komunistaren* edukia dakar, laburbildurik eta poesia moduan, ordea.

Andre-gizonek elkarri
loturik diraukete
haien artean batere
katerik egoteke.

Hitz lauz esanda:

Ezer barregarriagorik ez da, bestalde, komunisten ustezko emakume-komunitate ofizial horrek gure burgesei eragiten dien izu-ikara ultramoral hori baino. Komunistek ez dute emakumeen komunitate bat ezartzeko beharrik: ia betidanik egon da.

(*Manifestu Komunita*, Engels Fundazioko Itzulpen Taldea).

Segitzen du kantak,

Fabrikak izango dira
euskal langileenak
eta solo-pinudiak
nekazariak,
itsasontziak izango
dira marinelenak,
euskararen harmoniak
sozial poetenak.

Era berean, Marx eta Engelsen testuak.

Proletarioek ezin dituzte ekoizpen-baliabideak konkistatu indarrean dagoen jabetze modua abolitzen ez badute, eta beraz, gaur egun arteko jabetze modu guztiak abolitu gabe. Proletarioek ez dute ezer babesteko; jabetza pribatu existentia orain arte bermatu eta segurtatu duen guztia suntsitu behar dute.

(*Manifestu Komunita*, Engels Fundaziok Itzulpen Taldea).

Euskararen harmoniak, sozial poetenak.

Esaldia, ederra izateaz gainera, egiazkoa balitz...

Euskararen harmoniak balira poetenak (sozialak izateke)...

Malkoak euri balira...

Lehen ilusio galtzea berehala izan zen.

Sanjuandegiko jaiak ziren Azpeitian, eta Oskorrik jotzen zuen. Hasi ziren kantatzen eta, hara bilduta zeudenen artean, batzuk oihuka eta zalapartaka hasi ziren:

Espainolistak kanpora!

Taulara igo ginen Oskorrikoei laguntzera. Han jarri ginen adiskideok haragi-babesa egiten. Ez zen gehiagora joan gauza. Amaitu zuten eta nork bere bidetik jo zuten, orain arte.

Oskorrikoek komunista fama zuten. Ez komunista epel txepel, komunista-komunista fama baizik, komunista epelen aurkakoak: alegia bene-benetako komunistak ziren.

Nire bihoca
ezkerrean dago
eta bertako odola
gorria
da.

(Gabriel Aresti, "Fernandoren Egiak", *Euskal Harria*).

Baina euskaldunak ziren.

Zer gertatzen ari zen orduan?

2

La vida de Brian pelikulan pertsonaia batek galdetzen dio besteari ea zer egiten duten erromatarrek beraien alde. Elkarriketa oso da barregarria, baina zer pentsa ematen du.

- Bai, ados, aitortzen dut akueduktua eta estolderia erromatarrek eman dizkigutela.
- Eta errepideak. Irrigazioa, osasuna, irakaskuntza, ardoa, bainu publikoak, ordena publikoa.
- Beno, baina estolderiaz, osasunaz, irakaskuntzaz, ardoaz, ordena publikoaz, irrigazioaz, errepide eta bainu publikoez gain, zer egin dute erromatarrek gure alde?

Galdera da zer egin duen gure administrazioak euskararen eta euskal kulturaren alde 1975az geroztik.

1982.ean Euskararen Legea onartu zen Eusko Legebiltzarrean (Arestik ez zuen ezagutu, ez Legea bera, ez Legebiltzarra). Legeak, azken finean, hizkuntzaren inguruan zegoen (eta dagoen, ez dezagun ahaztu) oinarritzko adostasuna elikatzen (ez gizentzen) jarraitu du orain artean.

Euskara hiltzorian dela diote, batzuek.

Euskara traba dela diote, bestetziek.

euskara salbo ikusi arte
ez dut kenduko bizarra.

("Egun da Santi Mamiña", *Harri eta Herri*).

Hori kantatzen genuen, garai batean, kalejira jendetsuetan.

Bizar-peitu asko ikusi ditugu, ordea, Administrazioan lan egiten, eta legea azken muturre-raino eramaten:

Hizkuntza-ereduak, eskola publikoaren dekretuak, HABE, EiTB, EHU/UPV, unibertsitate publikoa... batetik,

AEK, euskal argitaletxeak, euskal aldizkariak, euskal egunkari bakarra, euskal prentsa (oro har), euskal mundua inoiz baino hedatuagoa eta sendagoa, bestetik.

Ez naiz kejavu nire denboran

Ez dut egundo esan ai.

("Keja eta Promesa", *Harri eta Herri*).

Hala ere, orain, keja eta desditxa nonahi.

Apokalipsiaren aldia buru gainetan erortzeaz bagenu bezala.

Literaturaren arloan idazle asko sortu eta hasi dira: Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, Anjel Lertxundi, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Kirmen Uribe, Miren Agur Meabe, Jokin Muñoz, Itxaro Borda, Unai Elorriaga, Aritz Gorrotxategi, Itxaro Borda, Pello Otxoteko, Juan Ramon Makuso... burura datozkidan eran, eta buruan ditudan guztiak ez aipatzearen. Izenak garrantzia du, jakina, eta izenari atxikimendu handiagoa diote batzuek izanari baino, penaz diot, *sorry*.

Barkatu, diren guztiak ez badituz aipatu.

Idazle batzuk euskaraz hasi ziren, gaztelaniaz idazten amaitu dute.

Mario Onaindia, esaterako, horietako bat.

Ospitaleko gelako atean bi zaindari zituela eman zuen azken hatsa.

Billie Holiday ere bi polizia atearen aurrean zituela hil zen bere etxean, New Yorken.

Ez da inoiz gaur bezain txukun eta dotore idatzi izan.

Euskara batua mesedegarri izan zaio euskal kulturari, hori bai dela ia inork ukatzen ez duen lorpena, ukazio-herri honetan.

3

Gabriel Arestik 1964.ean argitaratu zuen *Harri eta Herri*.

Eskaintza hitzetan aipatzen dira Martin Maria Arrizubieta Larrinaga, Joxe Azurmendi, Antonio Arrue, Aingeru Irigarai, Luis Mitxelena, Rafael Castro, Ziriako Parraga, Dominiko Peillen, Gereziaga ahizpak, Julian Landajo, Jose Maria Basaldua, Vidal de Nicolas, Grego-

rio San Juan, Julio Maruri, Balendin Aurre Apraiz, Bladi Otero, Mikel Lasa, Antonio Jimenez Pericás, Sebero Altube, Joane Maria anaia, Dario Ruiz Gomez, Jurgi Oteiza.

Poeman barrena beste izen batzuk ere ageri dira, uharte aurkituak balira bezala: Amaia Lasa, horietako bat.

Batzuk hilik daude. Beste batzuk bizirik, eta, ez denak, baina idazten jarraitzen dutenak ere badira.

Harrizko Harri Hau (1970) liburua Ramon Saizarbitoriari eskaintzen dio.

“Hiru urte luze” izeneko poema Agustín Ibarrolaren oroitzapenak betetzen du, itzalean bada ere.

Hiru urte luze
eta zu gabe
Bilbao
asko tristatu duzu.

Eta Ibarrolaz gain, Arestik oroimenaren baratzera dakartza Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Gabriel Zelaia.

Horien biografia, banan-banan hartuta, euskaldun banakakoaren biografia da. Bakoitzak bere gorabeherak, bere argi-ilunak, bere aurre-atzeak, bere alde-iferentzuak.

Denekin osa daiteke azken berrogeita hamar urteko mapa sentimental eta ideologikoa.

Agustín Ibarrola 2023.eko azaroan hil zen. Euskal Herriko berri dakienak ez du ahaztuko haren aurkako jazarraldia.

Vidal de Nicolas 2016.eko urtean hil zen. Gerra zibila amaitu ondoren ihes egin zuen eta Frantzia atxilotu eta kontzentrazio-esparru baten itxi zuten. Espainian, behin baino gehiagotan atxilotu zuten Alderdi Komunistakoa izateagatik. Ermuako Foruan presidente izan zen eta horregatik jazarria.

Lurdes Iriondo, Xabier Lete, Gabriel Zelaia, Bladi Otero, denak hilik daude.

Antonio Arrue, Luis Mitxelena, Juan San Martín, denak hilik daude.

Bakoitza bakoitza da, baina bazegoen Arestirengan lagunenganako bihotz-zabaltasuna, aitortza-borondatea, adiskide-nahia.

Euskararen lana denena zela, edo inorena ez; horren kontzientzia zuen Arestik.

Irudipena dut azkenerako etsipena hartu zuela Arestik berak ere, euskara, ikusi zuen, ez zela denena: ez da denona; edo batzuen gehiago da, beste batzuen baino.

Zergatik euskaldun guztiak ez gara euskaldun berdinak?

Zergatik euskaldun batzuk dira beste batzuk baino euskaldunago?

4

Gozotasuna da, eta, era berean, beratasuna, laztantasuna. Horiek guztiak baliagarriak zaizkigun arren, nolabaiteko gozotasuna adierazteko, koska gutxi dago beren arteko ibilbidean.

1959.ean argitaratutako poema bateko zatia da, hurrengoa. Maitasun deklarazioa; gero ere, deklarazioak asko egongo ditu Arestik.

Deklarazioa boteretik egiten den diskurtsoa da, kasu batzuetan, poetak ahotsean eta hitzean aurkitu duen boteretik.

Honetan, ordea, boterea maitasunak ezarria da.

Melitxu Basurtuko
piko meladua
mesperu ustel gozoa
sagar eztiatsua.

(Bizkaitarra).

Meli, melatua.

Meli *melos*, hortik dator “melodia” hitza, musikaren oinarria, bizitzaren sustraia.

Musika ezia, buruan geratu eta galtzen ez.

Arestiren gozotasuna emaztearengana isurtzen da, zaila da horko lau lerroetan eztitasunaren halako erakustaldirik eskaintzea.

Maitasuna da Aresti poetak gogoan duena, haragi batek beste bat maite duen modukoa.

Nola maitatzen haunadan,
Meli;
hiregatik
munduko bekaturik haundiena
kometitu behar
dinat,
gramatikari
ganibetkada bat
eman behar.

(Harrizko herri hau).

Gozotasuna bizitzaren ezaugarri behinen-behinenekoa dugu. André Comte-Spontville filosofoak dio bertuteen artean emea dela.

Norbaitek gainera lezake bertuteak ez duela sexurik, eta norbaitek erantzun lezake emetasuna ez dela sexu kontua.

Todoroven arrangura arrazoizkoa:

Mundu guztiak onartuko balitu maskulinoak diren balioak?

Tetosterona usaina nonahi, matxirulokeria paseari, hiriko kaleetan, nor gehiagoa, nor gutxiagoa, nor nori nor...

Faltan legokeena maitasuna izango litzateke, izan ere gozotasunaren beste esanahia maitasuna da.

Kultura kontua da, agian.

Ez da emakume jaiotzen, egin egiten da.

Dena horren sinplea balitz, egin egitea bezain erraza.

Emakume gara sortzen, edo gizonezko, eta gero gerokoak.

Ez dago balio maskulino erabatekorik, ordea, nik ez dut uste halakorik, ez dagoen bezala erabateko balio femeninorik.

Gizon edo emakume izatea ez da, berez, ez on ez txar.

Gizaki izatea da helburu, bietan, gizaki, bere argi-itzalez horniturik, indarreko, indarkeriarik gabe, gogor, gogorkeriarik gabe, maitagarri, gorrotorik gabean ere.

Maitasuna da bake egoeran, baita gerran ere: zenbat eta indartsuago, hainbat eta eztiago.

Gereixa bete gozoa
baldin bada erosoa,
izango du nork jasoa;
gerrian lotu arren arantza
zorrotz eta penosoa,
gañean maiz du zozoa,
arras gutiziosoa,
kenduko dio lausoa.

Betidanik emana diet begia bertso horiei. Gereziak gustukoak dira, ezin uka, bai handiak bai txikiak, denak dira ahoaren neurrikoak.

Apirilaren aldean, gure auzoan, hasiko dira gereziondoak lore erakusketan, zein baino zein koloretsuago.

Zein da ordea, zehatz esatera, gereziaren kolorea?

Berotasun gozo bat
zañetik zañera
nere gorputz guztian,
maitea, sentiitzen da;
gustoaren pasioz
sartzen zait ikara,
itzikan ere ezin
asmatu dedala.

Pasioaren definizioa labur esanda, gustuaren pasioak sortzen ikara. Pasio, bertsoetan, ez da zerbait alegoriko edo abstraktu, nahi duguna baina ezin lortu dezakegun hori, gure ahalmenetik kanpo dagoelako, gure gorputza ezin zabaldu haraino, eta gure arima ezin kontsolatu, ezintasun horretaz. Zerbait zehatzagoa da, aditu eta sentitzen dena, zainetik zainera, burutik burura, gorputz batetik bestera.

Adanek eta Evak paradisuak kanporatuak izan zirenean ezagutu zuten bekatuaren gozotasuna. Hori idatzi zuen Hildegarda de Bingenek (1098-1179). San Agustinek hori jakinik, bizitza bestelakora bihurtzen denean gogoan du. Gozotasuna ez da bekatuan aurkitzen, bertutean baizik.

Zu gozoago zakidan, gozotasun gezurgabea, gozotasun doatsu ta seguru.

(Aitorkizunak).

Zentzumenak ere ikuskizunaren gozoaz itsutu daitezke.

Paradisua geratu da, gozamen sinbolo.

paradisuan
gozoez
goza
dadin.

(Euskal Harria).

Maitasuna da, ez genuke euskaldunok arazorik izan behar hala aitortzeko.

Egunsentiko arrosa
zabaltzen asia
da zure ezpain gozo
itxumen ezia.
Adios nere biotz,
korputz ta bizia,
adios nere maite
txit maitagarria.

Bertso anonimoak dira, Aita Zabalak paratutako *Amodiozko penak bertso berrietan* liburutik jasoak dira. Izenburuak berak esaten digu amodioan gehiago, eta seguru asko handiagoak, direla penak pozak baino.

Aita Zabalak berak esaten digu sarrerako hitzetan.

Izan ere, amodiozko *penak* dira liburu onetan geienbat aitatzen diranak. Amodioak pozak ere izango ditu noski. Bañan, agidanean, oiek ez dute euskal bertsolaria bertsogintzara bultzatu. Olakoetan, ixilik gelditu da. Penak, berriz, barrenean ezin gorde, lertu eta kanpora azaldu ditu.

Irudipena dut pena aipatzen kontu honek topikoari erantzuten diola, bertsoak dira jendearen aurrean kantatzeko, edo salgai jartzeko.

Ai au penaren andia,
niretzat txit illgarria!

Poza baino gehiago askoz salgarriagoa da pena.

Munduan tristura adinako pozik ez da, munduaz haratago joan beharra dago, aurki dezagun non bozkario hartu, non jolastu alegantzian. Baina penagarri da mundu hau uztea, batez ere goiza ederra denean, urretxindorra kantari ari denean, egunak kanpora begiratzera gonbitea egiten duenean.

Goiz eder onetan erail bear nabe
txindor baten txintak gozotan naukela?
El naiten leyora begiok intz gabe.
(Lauaxeta. *Azken oyu*a, 1937).

Eguraldia barne sentimenduaren akuilu eta eragile da.

Hala ere hemengoak ez du zerikusirik espero den hangoarekin.

Jauna, eriotz au arren emostazu;
koldarrentzat itxi larrosen usaña.

Arrosen usaina, edertasun hilkorren adibide, koldarkeria da gerran edertasunaren bila abiatzea, gozotasunaren irritsak liluraturik bizitzea.

Eguraldi tristearen aurpegi ilunaren aurrean uztail mineko ekia, ezia halabeharrez.

Eztiagotu zaigu
azkenean
uztail mineko ekia
Ohitza lizunez
ihaurri dagotzin
baserri tristeetan,
gau ilun beraren
aiduru diraute
poetek, itzal edaleek...

(Jakes Ahamendaburu, 1990)

Ezin gozotasuna ahaztu, kanta hau entzun orduko. Denak ez dira iritzi bereko.

Arestik ez zuen Bizkaiko paisaia halako kolorez pintatu.

Bizkaia maite,
atzo goizean ikusi zintudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi,
bihotzean sua
zure berba lehun
zure gatzaren bizia
zure burdinaren gorria
dira gaur neretzat aterbe.

(Jose Angel Irigarai / Benito Lertxundi, *Bizkaia maite*. 1977).

Greziarrek asmatu zuten gozotasuna, hori diote adituek. *Iliadan*, gerra krudel eta bortitzaren irudiak irakurri arren, badira bestelakoak ere. Ezagunena eta hunkigarriena Priamoren eta Akilesen arteko elkarrizketa da. Akilesek Hektor hil du, eta Priamo eskean etorri zaio, eman diezaion semearen gorpua behar eta merezi bezalako ohorearekin izan dadin omendua. Akilesek men egiten du. Biek negarrez bukatzen dute, Priamo hil dioten semearengatik; Akiles, hil zaion aitarengatik.

Beste pasta bateko heroiak, haiek.

Iliadaren amaiera ez da garaipenaren gorazarrea, ez, porrot eta suntsipen batena baizik.

Beste klase bateko idazleak, haiek.

Aita-amaren seme-alabekiko samurtasun eta gozotasuna kantatua izan da beti.

Labana zaurituak dira
euskararen hitzak,
hegal ustez zorrotzak eta
kamuts deklaratuak
atari berriko mugetan.

Zertarako tximeletari
mitxilotea deitu,
txitxidola, mitxirrika,
txitxipapa edo txilipitaina,
haurrei pinpilinpaxa
aski zaienean...
Nork sinistuko du
amaren musuak
samurtasunaren hizkuntzan
elebakar direnik?
Nork izendatuko ditu
egun euritsua eten eta
ilunabar aratza prestatu duen
eguzkiaren erasanak lurrean?

Nor mintzatuko zaie piztiei
kitarrarik gabe, hitz hutsez?
Mendeak hizkuntzaren antzeko hotsez
larrua maitatzen, eta
euskararen hitzak tartailo daude
oraindik
odoluts den maiteminduaren mingainean.
Zergatik ez ditugu
Zuberoako hitzak ahoskatzen
gure mintzairan?
Gure haurrek hitz egingo al dute
penarik gabe,
hizkuntza derrotxatu beldurrik gabe,
beti geroaren ikara garaiturik,
esango ote dituzte
lur bustiaren gainean bilutsik.

(Pako Aristi, 1998).

Kezkagarriagoak zitzaizkion Arestiri egiaren eta askatasunaren faltak.

Egia gozoa izan daiteke, baina gehienetan garratza izan ohi da.

Beti esanen dut
egia.

(Harri eta Herri).

Egia, zeinen hitz ederra, bera ere, maiz, gezurrezko ezpainetan zatartuko ez balitz.

5

Arestiren hitzak dira.

Itzala eman nahi duenak
argia hartu behar du.

(Harrizko Herri Hau).

Aresti Bilbao da, edo Bilbo, nahiago baduzue.

Arestiren Bilbo, edo Bilbao, nahiago baduzue, gerra ondorengo hiri bat da, gerra ondoren hiri guztiak ziren bezalakoa, zertxobait grisago, eta ez hiriko barne-giroagatik soilik, ibai ondoan jarri zituzten fabrika eta enpresa handien eraginez ere bai: Bilbo ketsua, Bilbo langilea, Bilbo gorria, Bilbo futboleroa, Bilbo ingeles zalea;

Bilbo usaintsua, metal noble eta puru guztiek bezain metal ez-puruek airera botatzen zuten beren lurrinaz, Bilbo airezkoa;

Bilbo surrealista, tximinietako gasek halako itxura ematen zioten lur honetakoa ez zirudiena, “Blade Runner” gogora zekarrena: mundu zaratatsua, mundu eskutik ihesi zihoana, mundu atzerria;

Bilbo, zorrotz eta elizkoi, indar ezkutua ibaiaren zeru gauekoan keinuka;

Bilbo mirari-egile, ura ardo kolore bihurtzen baitzuen, eta ardo burdina.

Bilbon, ezinezkoa Gil de Biedmaren *De vita beata* poeman esaten dena errealitate bihurtzea:

En un viejo país ineficiente,
algo así como España entre dos guerras
civiles, en un pueblo junto al mar,
poseer una casa y poca hacienda
y memoria ninguna. No leer,
no sufrir, no escribir, no pagar cuentas,
y vivir como un noble arruinado
entre las ruinas de mi inteligencia.

Lur jotako jauntxo baten moduan bizitzea, ez dut uste Arestiren gustuko izango zenik. Etxejabea, bai, lan handia egin ondoren,azienda gutxi (ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak), memoria, bai, oroimen gabe ez dago poesiarik.

Bilbo hiri gaiztoa poetentzat, bai orduan eta bai gaur. Nahiago dituzte, auzo hirian bezala, Donostia itxurazko eta itxura zalean, sukaldariak, kirolariak, dendariak, pregoilariak, ile-paintzaileak, arrantzaleak, xelebrekeria guztietan xelebreenak direnak.

Jasaten dute idazleren bat edo beste, baldin eta poeta ez bada. Amen.

Gogora ekarri behar Blas de Oteroren hitzak:

Y yo me iré.

Ez, ez zen itzuliko. Min egin zioten (Bilbon) bihotz barreneraino.

Baina ez dezagun pentsa poeten min hori gaurkoa denik. Ez, ez da gaurkoa poeton mina. Jenófanos ere, bostehun urte K. A, kexu zen ohore gehiago eskaintzen zitzaiolako joko olimpi-koetan irabazten zuenari, jakinduria erakusten zuenari baino. Hona hemen poema ezin ahaztuzko hauek:

Atsegin txikia hartuko luke hiriak
jokalaria batek irabaziko balu Olinpian.

Halako balentriek ez dute hiriko altxorrik betetzen.

Ez hiriko altxorrik, ez hiriko ondasunik, ez hiri-irudi erlijioso bat idazterakoan, baina orain-goan hatzak zuzen joan zaizkit teklatuan, Aresti gizon erlijioduna baitzen, baina seguru asko bere erlijioa oso berea zen, oso berea eta jendearen artean zabaltzen zaila.

Egiaren bila abiatzen den gizonak arrisku handia du, egiaren beharrean, okerra ere aurki dezakeelako, eta jendeari ez zaio halakorik gustatzen, jendeari ez zaio egia hutsa gustatzen, nahiago du okerra egiaren jantzian, egiaren lurrin airezkoz bustirik badator. Eta ez zen Aresti poeta, ezta Aresti gizona ere, egia moztortzeko jaioa.

Bolada honetan askotan etorri zait akordura Aresti, ez bere poesiagatik, uste baitut poeta baino gehiago zela, gizon hutsa izanagatik. Poesiak, azken finean, ez du ezertarako balio, edo gutxi balio du.

Are gutxiago poetaren bizitza adierazten duen poesia esperientziaduna. Esperientziak, niri behintzat, zerbait erakutsi baldin badit, bizitzako gertaerarik gehienak arruntak eta garrantzi gabeak direla da.

Poesia baliagarria da egiara edo bizitzara hurbiltzen gaituen neurrian, ilusio guztiak marruskatzen dizkigun neurrian, nola Bilbo hiriak Otero zenari errotik kendu zizkion. Minetik gertu dagoen poesia dut gustuko, edo minean mintzen diren poetak, Aresti, Otero esaterako.

Gustuko dudan poesiak itzal egiten die Pascalen gogoetei, edo Montaigneren entseguai.

Gustuko dudan poetak hika hitz egiten dio munduari, Arestik bezala.

Aresti gizona nuen maite: dut maite. Egiazko gizona baitzen, faro etikoa naufragoentzat edo itsasoan gehiegi sartutako itsaslarientzat.

6

Nik ere hilen hinduket
sorterri neurea,
urde zikinen ohandea
ez hendin izan.

(Harrizko Herri Hau).

Samina, Arestirena, egun da Santimamiña, bihotzeko mina, euskal herri nerea ezin zaitut maite, baina nola bizi (herria maite dugunok) zugandik aparte, esaten didate euskaldunek ez naizela haien parte, ni naizelako haien parte mesede baino kalte.

Inork ez du aditzen
ene mintzaera;
euskal bertsotan hartu
behar dut erdera/
Euskadi, madre mía/
no puedo quererte/
pues solo me prometes/
sufrimiento y muerte...

(Harrizko herri hau).

Ez da argudio berria, oso zaharra. Nemesio Etxaniz azkoitiarrak halako zerbait adierazi zuen, maitasunezko poema batean.

Ezten atzokoa
nere malkoa.

Minaren sakonean beste min bat dagoela esan nahi du, gaurko malkoak atzokoen ondo-rengoak direla. Bizitzak aurrera joan nahi duenean, bidean aurkitzen dituen oztopoak saminak propio jarritakoak dira.

Idazleak sorterriarekiko erakusten duen garraztasuna ere ez da gaurko kontua. Joycek Irlandari buruz jaurtiak gogoangarriak dira, Arestiri puntua ematen baitiote, olerkigintzan jarraitzeko.

– Badakik Irlanda zer den? –galdetu zuen Stephenek bortiztasun hotzez–. Bere umealdiko txerrikumeak jaten dituen txerrama. (James Joyce, *Artistaren Gaztetako Portreta*, Irene Aldasororen itzulpena).

Joyceren oihartzunak Arestiren poeman ez ezik, Jon Juaristiren poemagintzan ere entzungarriak dira. Jon Juaristi, ez dakienarentzat diot, Arestiren itzultzaile eta laguna izan zen:

el canto inacabado
de mi hermano mayor [Gabriel Aresti]...
enmudecida por la muerte,
por el desprecio, por
vuestra sordera hereditaria, oh hijos
putativos de Aitor.

Aitorren etxea defendatuko dut, nire aitaren etxea defendatzea baita.

Esan zezakeen Arestik bere poemarik ezagunenean. Nire amaren etxea defendatuko dut.

Guk, Urola bailara barruko euskaldunok, gurasoen etxeari “amaren etxe”a esaten diogu, amarengandik sortu gara, amak gaitu hazi eta lagundu, behar izan dugunean, bere ondora ekarri gaitu izuak abisu ematen zigunean, hotzak eta goseak erasaten gintuenean oso. Gure belaunaldiko mutilek ez dugu aitarik, behar bezala, ezagutu. Ama, ordea, bai.

Arrazoi izango du Freudek dioenean itzulera-nahi guztiak amaren sabelera direla; hortik dator agortzen ez den nostalgia, sekula kentzen ez den mina, amarekiko eta amaren sabelarekiko mina, hara joateko desira ezin betea eta ezin azken muturreraino eramana.

Amaren etxean bakean egoten ginen geure buruarekin, etxea baino gehiago gaztelua zen, babesleku, aterpe.

Euskadi, Arestirentzat, emakumea zen, ama.

Euskaldun askorentzat ere bai.

Oi ama Eskual Herri goxua
Zutandik urrun triste banüa
Adios gaixo etxen dena
Adios Xiberua

Aitaren etxea beste zerbait da guretzat, baina irudipena dut Arestirentzat etxea aitarena zela, aitaren aitarena, alegia aitonarena, belaunez belaun leinu baten eskuetan egon dena.

Jon Juaristik ere aitaren irudia darabil "Spoon River, Euskadi" poeman:

¿Te preguntas, viajero, por qué hemos muerto jóvenes,
y por qué hemos matado tan estúpidamente?
Nuestros padres mintieron: eso es todo.

Poemak indarra du, ezin uka, deiadarra da kontzientziak argitze aldera, edo iluntze aldera, ezin jakin.

Nik neure zalantzak ditut poema horren aurrean paratzen naizenean, izan ere, aita batek ez dio gezurrik esaten semeari, oso bihotz gaiztoa eduki behar horretarako. Ahal izanean, isilik geratzen da, seme-alabek erantzun gaitzeko galdera egiten dizkionean. Bestela, itzurbi-dea hartuko du, elkarriketa beste norabait eramanez.

Haurrek merezitako aitak dituzte. (Jean Paul Sartre, *Hitzak*).

Bestalde, zer da gezurra? Zer da egia?

Arestik garbi zeukan, egia ez zen oro gezurraren lur eremurako zen.

Egia ona zen, eta ona zelako zen egiazkoa.

Era askotan uler daiteke Arestiren poema. Aitaren etxea izan daiteke aberriaren metafora, edo izan daiteke euskararen metafora, nondik begiratzen den eta, batez ere, zer haizek jotzen dion aitaren etxeari so dagoenari.

Euskal Herrian etxeak ematen dio nortasuna euskaldunari, identitate sinbolo da, abizenarekin batera, nongotasunaren ikurra da, nortasunarena baino gehiago. Aitaren etxea galtzea da gerta daitekeen okerre, iraganarekin lotzen gaituzten sustraien galera da.

Inork, gurean, ez du galdetzen nor zara?, baizik eta nongoa zara?

Zein etxetako garen gutako bakoitza, baieztapen horrek esanahi bat edo beste hartzen du.

Euskal kultura eskergaiztokoa izan da beti, baina zaila da erdal mundutik ulertzea.

Si Gabriel Aresti viviera lo tendrían silenciado y medio mendigando. En vida Aresti ha sido tratado como los Unamuno, los Pío Baroja, los Blas de Otero, los Oteiza o los Gabriel Celaya. A Aresti lo fueron matando a golpes de represión y de disgustos tanto desde el franquismo como desde las fuerzas democráticas.

(Agustín Ibarrola).

Aresti ez da, idazle-poeta-kantari-artista guztien artean kaltetuen atera dena. Donostian, Polloeko hilerriari alde batetik jira ematen dion kaleak haren izena darama. Bai, ezaguna da, Arestiren poema hura, ironiaz dionean Jainkoak ez dezala nahi Bilboko karrika bati nire izenik eman diezaiotela...

Arestik bere buruaren poesia egin zuen, gehien bat. Poesia soziala deitzen zaio, baina niaren poesia zabalgarria da: nitik-nira.

Maldigo la poesía de quien no toma partido hasta mancharse.

(Gabriel Celaya).

Pido la paz y la palabra.

(Blas de Otero).

Ez da poesia intimista, zentzu estuan hartu behar baldin bada.

Baina poesia intimistaren aurkaria ez da poesia soziala, poesia ez-intimista, ez barnera-koia, poetaren baitatik baitara irrist egin gabe ez doana.

Sinbolismoaren, modernismoaren eta surrealismoaren gainbehera eta gero poesia sozialak (horrela deitua izan denak) hartu zuen indarra.

Celayak eta Blas de Oterok gizartearen aurreko aitorpena maite zuten, batzuetan elegia antzekoa.

Arestiren poesiak asko du aitortzatik.

7

Gabriel Arestik ez zuen ezagutu guk ezagutu izan duguna, eta guk ez dugu ezagutu Gabriel Aresti ezagutzera iritsi zena.

Gabriel Arestik ez zuen ezagutu Espainiako Konstituzioaren aldeko kanpaina eta hura onartzeko erreferenduma, ezta Euskadiko Autonomia Estatuaren aldekoa ere.

1978.eko abenduaren seian burututako erreferendumean. Euskadiko probintzia guztietan, Konstituzioaren aldeko botoek irabazi zuten, % 70 inguruko babesa lortuz. Hala ere, abstentzio handiena izan zuen autonomia-erkidegoa izan zen (% 55,3).

1979.eko urrian, bozketa egin ondoren, Gernikako Estatutua onartu zen.

1980ko martxoaren 9an egin ziren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta I. lege-gintzaldiari ekin zioten. Euskal Kontseilu Nagusiko jarduneko presidente eta EAJko hautagai Carlos Garaikoetxea lehen lehendakari izendatu zuten diktadura frankista amaitu ondoren.

Gabriel Aresti ez zen iritsi ezagutzera Carlos Garaikoetxearen legealdia, ez Jose Antonio Ardanzarena, ez Juan Jose Ibarretxerena, ez Patxi Lopezena, ez Iñigo Urkullurena, ez, azkenik, Imanol Pradalesena ere.

Sei lehendakari berrogeita bost urtean, eta bakarra EAJkoa ez zena.

Gabriel Arestik ez zuen ezagutu ETaren su-etena eta, gero, haren disoluzioa, feminismoaren gorakada, bertsolaritzaren hipermmodernizazioa, normalizazio demokratikoa (zerbait bada hori), Guggenheim museoa, EITBren bilakaera (ona edo txarra, nondik begiratzeko den), euskal antzerkiaren garapena, euskal zinemagintzaren loraldia, besteak beste.

Bizi izan balitz, zein izango zatekeen haren iritzia? Ez dago jakiterik.

Imanolen heriotza ez zuen ezagutu Gabriel Arestik.

Mundu honetan dena
sortzen da aldatzeko,
ni ere aldatzea
ez da harritzeko.

(Joseba Sarrionandia).

Batzuk oso azkar aldatu ziren, abantadan, hain azkar non aldaketa hori ez zen ikusi, haren errainua baizik. Beste batzuk oraindik daude noiz aldatuko zain.

Jean Paul Sartrek bere bizialdian benekotasuna bilatu zuen (*l'authenticité*), norbera izan nahi, edozein une eta edozein egoeratan. Estoizismo zaharraren zantzua ikusten dut hor, mundua aldatu egiten da, baina jakintsua ez. Sartrek berak *L'Existencialisme est un humanisme* liburuan esaten digu edozein egia aurkitzeko, lehenagotik egia absolutua bilatu behar dela. Uler bedi, ez dago egiaz mintzatzerik, ez badakigu egia absolutua zer den.

Gabriel Aresti, alde horretatik begiratura, benetakoa zela uste dut. Eta egiaren bila ibili zela ere bai, ez zegoen tokian beharbada.

**OESTE
MENDEBALDEA**

NAZIO-IDENTITATEA: DIMENTSIO ANITZEKO

XOSÉ M. NÚÑEZ SEIXAS

Gizakiak, dena delakoa badarik ere, familatik haratago, hainbat identitate kolektibo hartzen ditu: generoaren, etniaren, hizkuntzaren, lanbidearen, sorterriaren, nazioarenak... Gizaki bakoitzak bere burua bakartzat du, baina partekatzen ditu ezaugarri diakritiko batzuk inguruneko beste batzuekin. Hartara, lokarri guztietako bat bera ere ez da naturala, familia izan ezik, are gutxiago da saihetsezina. Auzoko edo tokian tokiko identitateak aldatu egin daitezke norbera bizilekuz aldatzerakoan, eta garrantzia galtzen dute mundu batean, non, sare sozialen bitartez, milaka kilometrotara dauden lagunak egin ditzakegun, eta era berean gure bizilagunak ez ezagutu.

Beste pertsona batzuekiko elkarreragin horretatik haratago, zenbait identitate kolektibo norberaren subjektibotasunaren eremukoak dira. Eguneroko jardunean, intentsitate txikiko komunitate afektiboak dira, baina iraunkorrak, garrantzia hartzen dutenak, egoeraren arabera. Eta irudikatutako komunitateak dira, Benedict Andersonen hitzetan, pertsona bat ezaugarri diakritiko aldakor batzuen arabera identifikatzen delako haiekin. Ezaugarriak honako hauek dira: hizkun-

tza, historia komuna, balore partekatuak, bizi den lurralde erreferentziala, komunitate politiko beraren kide izatea, besteak beste. Inoiz ezingo ditu komunitate horretako kide guztiak ezagutu. Hala ere, uste izango du haiekin partekatzen dituela lehentasunezko espazio soziala, ezaugarri kulturalak eta leialtasun politiko-herritar bat. Horretaz gain, sinetsiko du partekatzen dituela mito eta ikur batzuk, alegia iragan kolektiboari buruzko ikuspegi orokorra, erreferentziazko esparruak eta eguneroko bizimoduaren kontu arruntak, bai ordutegiak, bai umorea edo sukaldaritza ohiturak ere.

Geologia vs. Gastronomia

Identitate nazionalak irudikatutako komunitateen lurraldekoak dira. Tokian tokiko esparrutik zein eguneroko elkar-eraginetik haratago doaz: maiz bidaiatutako nazionalistak ere ezin ditu bere herrikide guztiak ezagutu. Zenbait kasutan, nazio-komunitate horiek definitu egiten dira objektiboak omen diren ezaugarri etniko, kultural edo erlijio-soetan oinarrituta; izan ere, definitu ere egin daitezke alemaniar ilustrazioak izendatutako Herriaren izpiritua edo *Volksgeist* izeneko-

ren bidez. Oinarri horien arabera, nazioak harriak bezalakoak dira. Geologia, beraz, nazionalismoaren ikertzaile handi bat den Anthony D. Smithen metaforarekin bat eginez. Haurrak sortzen badira, sortuko dira jatorri zehatz batzuekin, Historia partekatu batekin, eta Historiaren ibilbide horri jarraitzeko predeterminazio bat duen komunitate baten barruan, hizkuntza bat mintzatzen edo ohitura zein balore batzuen partaide izanez. Hildakoek erabakitzen dute biziak zer egingo eta zer sentitu beharko duten kolektiboan harturik. Antzinako Erregimenaren aldekoen nazioa.

Beste kasu batzuetan, nazio-identitate horiek, eta haien nazioak ere bai, gastronomiaren emaitza izango dira, betiere Anthony D. Smithen arabera. Eraiki eta landu egin ziren, antzinatek ez ziren existitzen. Eta itun bati lotuko ziren, berdinen artean beti, *polisean* parte hartzen duten pertsonen artean. Teorian, halako nazio hori ez zuen inposatuko ez historiak, ez hizkuntzak ezta kulturak ere, balore ustez objektiboak izanik, baina norberaren borondatea izango zen oinarritzko, bertan parte hartzeko. Borondatezko faktoreak, ez holistikoak. Iraultzaileen nazioa, Amerikako eta Frantziako liberalena, Sieyèsen eta Robespierrena, Ernest Renan-ek eguneroko plebiszitua deituko ziona. Nazioa subiranotasunaren titular bihurtuko zen, zilegitasunaren erreferentzia politikoa. Herritar guztiek komunitate politikoan parte hartzen ez bazuten ere, legearen aurrean berdinak ziren. Horrenbestez, hiritarrak nazioaren alde mobilizatu ziren armadan. Halaber, Antzinako Erregimenaren defendatzaileek laster ulertu zuten nazioa irauteko egina zela. Ez zen nahikoa

dinastiarekiko eta erlijioarekiko atxikimendu zaharra; monarkak bere zilegitasuna beste zerbait mamitsuagotan oinarritu behar zuen. Monarkak nazioaren soina eta muina izan behar zuen, kolektiboaren hezur-mamia, zeinarekin gero eta subiranotasun gehiago partekatuko zuen.

Nazio borondatezkoa eta nazio objektiboa

Ethnos polisen aurka. Hala ere, errealitatea askoz konplexuagoa zen, eta Antzinako Erregimenetik ordena liberalerako trantsizioa ere halakoxea izan zen.

Monarkiek, 1789 baino lehenagotik, beren mendekoen gorputza hartu zuten nolabaiteko kultura homogeneotasuna zuen entitatetzat, historia komun bat bilatu zuten, eta horretarako akademiak eta museoak sortu zituzten: horrela, bide batez, beren legitimitatea Elizaren eta nobleziaren gainetik ezartzen zuten. Aberriaren kontzeptua, lurralde edo erakunde politiko batekiko leialtasuna, Koroarekiko leialtasunarekin eta lurraldearekin lotutako zenbait baloreekin identifikatzen zuten.

Era berean, nazio liberal berriak sarritan asmatu ziren antzinako leialtasun dinastiko eta erlijiosoaren moldearen gainean; mitoak bereganatu zituzten, eta hizkuntza bat komuna izan behar zela aldarrikatu zuten, hobeto uertzeko politikaren funtsa.

Demos eta *ethnos*en arteko nahasketa, herritarren nazio liberalaren muinaren eta faktore objektiboen artekoa (zeinak historia edo kultura diren), Frantziako Iraultzan sortu zen, lehenagotik Ipar Amerikan bezala. Nazio liberalaren *demos*a ezaugarri orga-

niko-historizistez koloreztatu zen gero eta gehiago; jatorriaren, heroien eta gaiztoen, inbaditzaileen eta inbadituen, balentrien eta gainbeheraren garaietako kondaira bat asmatu zuten. XIX eta XX.aren hasierako historia nazionalak ildo horretatik jarraitu zuten. Sarri askotan, Anne-Marie Thiessek erakutsi bezala, nazioari buruzko kontaera ezberdinek IKEA metodo baten antza hartzen dute: nazio eraikitzaile bakoitzak sorta zabal baten barruan antzeko edukiontzia erabiltzen ditu, kolore eta izen desberdinak erantsiz (Vercingetórix bat edo Viriato bat, Verdunen edo Isonzoren eroriak), baita kanon literarioak, estandar linguistikoak, monumentuak, ereserkiak eta banderak ere.

Estatutik Naziora eta alderantziz

XIX. mendearen hasieran, subjektu nazional gutxi zeuden Europan, alegia nazio-identitatearen zentzu propioa zutenak, beren tokian tokiko eremutik haratago joan ohi den erkidego imajinatu baten partaide. Bertakoak ziren besterik gabe, bertako hizkuntzen aldaeraren batean hitz egiten zuten, hizkera jaso bat idazteko araurik jakiteke, erlijio bakarra praktikatzen zuten, bertako errege edo printze baten mendekoak ziren. Mundua antolatzen hasten denean Estatu izan nahi duten nazioetan, edo nazio osoko Estatu bihurtzen diren Estatuetan, nahita nahiezkoa zen populazioak nazionalizatzea, nekazariak frantses, alemaniar edo txekiar bihurtzea. Ernest Gellnerren metaforaren arabera, Estatua eta nazioa orain ezkondu egin ziren: batzuetan Estatua lehenik iritsi aldarera eta bere zilegitasunaren oinarriak birmoldatzen zituen nazio bihurtze aldera. Horretarako tresnak ziren eskola eta hezkuntza, zerbitzu

militarra, integrazio ekonomikoa, herrialdea merkatu nazional bakarra eginez, komunikazio sozialaren sustapena, komunikazioak ugarituz. Jatorri komuna goraipatzen zuten istorioak zabaltzeari ekin zioten, hiritar guztientzako balio eta eredu berberak, heroiak eta sinboloak partekatu zituzten, monumentu eta eskola-eskuliburuen bidez.

Beste batzuetan, nazioa Estatua baino lehenago iristen zen aldarera, etnia anitzeko inperio baten edo hainbaten parte zen, edo printzerri zein erresuma artean sakabanatuta zegoen. Nazio eraikitzaileen jardunak sortu zituen kultur erakundeak, egunkariak, elkarte politikoak, sindikatuak, gizarte zibilaren bitartez, betiere urratsez urrats: kultur astinalditik masa-mobilizaziora, Miroslav Hroch historialariak definitu zuen bezala. Kasu askotan mobilizazio horrek Estatu bat sortu zuen, maiz faktore iraunkorrenatik: hondamendi geopolitikoengatik, hala nola Lehen Mundu Gerraren amaieragatik edo olatu iraultzaileengatik, 1848ko Herriaren Udaberria, esaterako. Oso gutxitan egin ziren plebiszituak eta prozesu demokratikoak, 1905ean Norvegian hain zuzen, non atzerriko errege bat koroatu zuten munduko nazio-Estatuen artean monarkia gisa agertzearen. Ekuazioa, ordea, ez zen beti erraza izan: nazio-Estatu bilakatu nahi izan zuten zenbait Estatu elkartuetan beren herrialdeetako batek edo gehiagok nolabaiteko erresistentzia egin eta beraien nazio-proiektuak sustatu zituzten. Europako eremu askotan, eskualdeak zeuden lehian, non biztanleria etnikoki nahastuta zegoen, urteetako asimilazioaren ondorioz. Nazio-askatasuna promesa bat izan zitekeen, baina gatazkaren hazia ere bai Nazio-identitateen historiari buruzko hurbilketa berrienak bat datoz azpi-

marratzean nazioak, Anthony D. Smithen metaforari jarraituz, funtsean gastronomia kontua direla. Nazionalistak dira sukaldariak, nazioa egiteko osagaiak (hizkuntza, historia, kultura...) hautatzen dituztenak.

Kasu batzuetan, badaude gertuagoko osagaiak, iraganetik datozen aurrebaldintza mesedegarriak: hizkuntza espezifikoak eta gutxi gorabehera finkatutako estandar literarioa dutenak, komunitatearekin identifikatutako monarkia indartsua, autogobernu aurrekariak, garaipen edo porrot kolektiboak, beste nazio baten aurrean beti. Horrek nazio-irajinariora bat, diskurtso bat eta lelo mobilizatzaile batzuk eraikitzea errazten du, Bohemiatik Kataluniara edo Finlandiara.

Behetako rola

Hala ere, nazio eraikitzaileak, alegia sukaldariak, ez ziren beti gai izan haien errezetak zabaltzeko, aintzat hartuta populazio fidel batek beroriek jaso eta kontsumitzen zituela, nazionalizazio prozesu indartsuetan edo ahuletan, arrakastatsuetan edo arrakasta gabekoetan, elite nazionalistek gainetik kudeatuak. Alderantziz, nazio-identitateak prozesu dinamikoak eta betiere amaitu gabeak dira, etengabeko negoziazio baten ondorio, zeinean norbanakoak ez diren elite nazionalistek edo estatu nazionalizatzaileen erabakiek goitik inposatutako edo proposatutako identitate sorta batzuen hartzaile hutsak ez diren, baizik eta beren iruditeria zein nazio-erreferenteak behetik ere eraikitzen dituzten. Eta maiz, nazioa, irajinatutako komunitatea, errealtate lauso gisa ikusten dute, tokiko eta eskualdeko prismetan bidez, espazio-eskalak. 1970eko

hamarkadatik aurrera nazio-eraikuntza prozesuei buruzko azterlanek, Eugen Weberren *Peasants into Frenchmen* (1976) klasikotik abiatuta, aztertzen baldin bazuten alfabetatzearen, soldadutzaren, eskola-liburuen edo trenbide eta garraio sareen eraikuntzaren edota telegrafoaren hedapena, hiru hamarkadaz geroztik ikerketaren zati handiena bestelako dimentsio batzuetara lerratu da.

Lehenik eta behin, dimentsio kulturala. Nazioak, eraikin politikoak izateaz gain, neurri handi batean dira kultura irajinarioak eta proposamenak, goitik eta behetik aztertu beharrekoak: sinbolikoki jabetzeko prozesuak, nazio-identitatea norberaren identitatearen zati gisa barneratzeko prozesuak, gizabanakoen itxaropenen horizonteak, balioak eta kezkek. Identitate pertsonalaren, indibidualaren eta nazionalaren arteko elkar-gunea nazionalismoari buruzko azterketan oraindik gutxi arakatutako aldagaita da.

Bigarrenik, identitateak ez dira erreifikazio-objektuak, baizik eta prozesu dinamiko gisa planteatzen dira, etengabeko birnegotziazioan; norbanakoek eta gizataldeek abian jarritako identifikazio-prozesuak, zeinen interesak eta sentimenduak nazioaren balioetan islatzen eta sublimatzen diren. Edukiontzia hori ez da nazionalizazioaren bidez betetzen edukiz, eskolaren eta soldadutzaren, edo zeremoniaren eta istorioen zabalkundearen bidez, izan ere, horien arrakasta edo porrot maila zehatz dezakegu aldagai kuantitatiboek erabilirik. Edukiontzia horren barrenean zama duten pertsonak daude, berezko balio kultural eta komunitarioen jabeak, izaera ezberdinekoak, baita herrialde ezberdinekoak ere. Giza zien-

tziek nazioa behetik ulertzen saiatu beharko lukete, metodo eta iturri berrien bidez nahiz horrek planteatzen dituen erronka handiagoak zenbat eta atzerago egin denboran: XIX. mendean gutxiengo batek baino ez zituen adierazten beren nazio-sentimenduak, inplizituki edo esplizituki, idatziz.

Hirugarrenik, identifikazio prozesu hauetan, emozioak, sarritan sinboloen bidez bideratuak, funtsezko zeregina betetzen dute, gizabanakoen esparru kognitiboak eta haien erabakiak bahetuz.

Nazio-identitateek aparteko prebalentzia edo berezitasun bat baldin badute beste herrialde edo politiko identitateekiko, bere sakratutasun izaera da, zalantzarik gabe, bere narrazio sendoago eta trinkoagoekiko loturak eratorria, etxekotik edo bertakotik baino gehiago.

Horregatik, askotan erlijio politiko gisa definitu izan dira (R. Lepsiusek esaterako), horren garrantzia subiranotasunarekin, botere politikoarekin eta komunitatearen defentsarekin duen loturatik haratago iristen da. Identitateek emozio nazionalak (erlijiozkoak, familiakoak, tokikoak) molde berean bateratzen dituzte. Horregatik jende askok bere burua bere nazioaren alde eskaini du hainbat gerra eta gatazkatan, nazioaren defentsan beren familiaren eta etxearen luzagarria ikusita.

Kontzeptu iheskor baten sorta zabala

Laugarrenik, herrialdearen ikuspuntutik ere, posible da nazio-identitateak irudikatzea forma hibridoa, erreferentzia espazialen metatze eta nahasketa gisa. Jendeak askotan

sentitzen du biziki bere naziotasuna, baina beste erkidego edo lurralde-esparru batzuetara ere atxikita daude haien artean nahita ezko hierarkiarik ezartzeke. Espainiarra eta katalana izan zaitezke, galegoa edo euskalduna, baita bilbotarra edo trianatarra ere.

Eta, askotan, esparru bati edo besteari egozten zaizkion ezaugarriak antzekoak dira: pertsona askok identifikaziorako eta emoziorako erreferente sendoagoa ikus dezakete eskualdean, edo beren lurraldean, haientzat identitate espainiarra sentitzeko duten modu zehatza delako. Gauza bera gertatzen da nazio-identitate alternatiboekin estatu-nazio beraren barruan. Konfrontazio edo identitate-polarizazioko une kritikoek lozorroan dauden edo intentsitate baxukoak diren sentimenduak azaleratzen dituzte.

Dela kanpoko etsai baten aurkako gerra bat –Vladimir Putinek eta bere inbasioak Ukrainako nazio-identitatearen alde gehiago egin dute hogeita hamar urteko politika nazionalizatzaileek baino–, dela barne gatazka sezesionista bat –Kataluniako 2017ko urria–, dela arrotzak edo asimilagaitzak omen den jendetza baten bat-bateko sartze masiboa, nazionalista batzuek nazioaren kohesiorako mehatxutzat jotzen duena, edo bandera, hiztegia edo nazionalismoaren lelo patriotikoak bereganatzea fakzio politiko batek mobilizatzeko eta nazionalista onen eta txarren artean bereizteko estrategia gisa.

Jende asko axolagabe uzten ditu

Azkenik, gogoratzea komeni da nazio-identitatea ez dela ezin saihestuzko zerbait, ezta elementu determinatzaile bat ere

jende askoren bizitzan, gehiengoarenean agian. Nazionalismoaren gaineko ikerketek askotan baztertzuten duten aldagaia, baina azkenaldian gaurkotasun bihurtu dena, axolagabekeria nazionala da. Hau da, jende askok nazioari eta haren gorabeherari buruz interes eskasa erakusten du.

XX mendean izan zitezkeen horizonte murriztua zuten nekazari analfabetoak edo hainbat inperio artean bizi ziren gutxiengo erlijiosoetako kideak, bidaiari kosmopolitak edo internazionalismoaren apostoluak. Gaur izan litezke zenbait akademiko eta unibertsitateko ikasle, nazioarteko erakundeetako funtzionarioak edo, besterik gabe, hizkuntza batean hobeto moldatzen direla edota beren herrikideekin harreman estuagoak dituztela onartzen dituzten gizabanakoak haiekin pareko sozializazio-esperientziak –nazio-esperientziak– partekatzen dituztelako; baina, identitate horren defentsa beren lehentasun politikorik handiena bilakatzeko prest ez daudenak.

Merezi du galdetzea, ordea, non ote dagoen nazio-axolagabetasunaren eta nazio-identitate ahul edo hotzaren muga, axolagabeko horietatik zenbat mobiliza daitezkeen

nazioaren izenean, nahiz eta beste interesak defendatu (errepublikak, berdintasun soziala, ongizatea...); eta axolagabeko horiek zenbateraino ez dituzten beren bizitza pertsonalean tribuko nazionalismoaren moduak erreproduzitzen (Michael Billig).

Puntu honetan, eztabaida ezin amaitu. Jende askok esaten du oso argi dutela beren nortasun nazionala, horri buruz galdetu eta halakoekin zer ulertzen duten definitzeko eskatu arte. Agian denok gara nolabait nazionalistak, jakinean edo jakiteke, beroan edo hotzean. Edo, agian ere, nazioa da erabilera anitzeko mobilizazio erreperatorio bat, itxaropenez eta osagai ezberdinez betetzeko edukiontzi sakon bat, hain moldagarria eta non-nahikoa bihurtzen duena, hainbat ideologia eta sinesmenekin uztartzeko bezainbeste.

Aunque cree en un Dios racional, Milton no es deísta, es un entusiasta religioso, pero está claro que el deísmo con todas sus implicaciones deriva consecuentemente de posiciones como la que él establece. En realidad, Blake niega el mundo racional que Milton afirma: no hay espacio para él en el universo de una humanidad reconstituida. Wittreich, en su excepcional ensayo sobre la idea de Milton en Blake escribe:

Comúnmente la apoteosis del héroe es el resultado de que éste adopte una actitud de desprecio por este mundo. Sólo al divorciar el alma de su cuerpo, sólo al librarse de las inquietudes mundanas tomando el mando de la castidad, es capaz de lograr tal apoteosis. El punto de vista de Blake es distinto. Precisamente porque Milton mostró desprecio por este mundo, precisamente porque se vistió las ropas de castidad, considerando su alma distinta de su cuerpo, permaneció exiliado durante la mayor parte de su vida de la visión divina, de la ígnea ciudad de Jerusalén. Los errores de Milton, pues, son los errores de la tradición filosófica que hay detrás del motivo de la apoteosis; y consecuentemente, Milton emprende el descenso a este mundo, no la huida de él, descenso que comienza por reentrar en su cuerpo y que culmina en su unión con Olololon, que es "una Virgen de doce años. (Wittreich, pág. 37).

BIBLIOGRAFÍA

Blake, W., *William Blake, The Complete Poems*, Penguin Books, Londres, 1977.

——, *Milton (un poema)*, DVD Ediciones, Barcelona, 2002.

——, *Canciones de Inocencia y Experiencia*, Cátedra, Madrid, 1987.

CHRISTOPHER, H., *Milton and the English Revolution*, Faber and Faber. Londres, 1977.

THOMPSON, E. P., *The Making of The English Working Class*, Penguin Books, 1963.

LEWALSKI, Barbara K., *The Life of John Milton*, Blackwell, Malden, 2000.

WITTRIECH, J. A., *Angel of Apocalypse. Blake's Idea of Milton*, The University of Wisconsin Press, 1975.

EL COLOFÓN DE UNA BRILLANTE CARRERA COMO HISTORIADOR

GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA

José Luis de la Granja Sainz: *La Euskadi contemporánea. Historia y política*. Vitoria-Gasteiz, Betagarri liburuak, 2025, 273 págs., 23,90 euros.

El recientemente jubilado José Luis de la Granja, catedrático emérito de Historia Contemporánea de la EHU/UPV, es uno de los historiadores españoles más reputados y prolíficos de su generación. Ha desarrollado una trayectoria investigadora excepcional. Es autor de una amplísima bibliografía, en la que destacan obras como *Nacionalismo y II República en el País Vasco*, *El nacionalismo vasco: un siglo de Historia*, *El siglo de Euskadi*, *El oasis vasco. El nacimiento de Euskadi en la República y la Guerra Civil y Ángel o demonio: Sabino Arana. El patriarca del nacionalismo vasco*. Es coautor de libros como *La España de los nacionalismos y las autonomías*, *De Túbal a Aitor. Historia de Vasconia*, *Breve Historia de Euskadi. De los Fueros a la autonomía*, *La política como pasión. El lehendakari José Antonio Aguirre*, *La España del siglo XX a debate. Homenaje a Manuel Tuñón de Lara y Vidas cruzadas: Prieto y Aguirre. Los padres fundadores de Euskadi. Documentos de la República*, la

Guerra Civil y el exilio. Por añadidura, ha sido coordinador o editor de numerosos títulos.

También es un gran divulgador, como demuestran su pasión por la docencia, su participación en cursos de verano, programas de radio, exposiciones y documentales, así como la publicación de incontables trabajos en revistas de calidad como *La Aventura de la Historia* y en la prensa escrita. En cierto modo, *La Euskadi Contemporánea* responde a dicho afán por difundir el conocimiento sobre el pasado, que De la Granja combina perfectamente con el rigor del historiador profesional. La obra es una recopilación de 64 artículos aparecidos en ocho periódicos entre 1991 y 2022, que han sido convenientemente revisados para facilitar su comprensión al lector actual. El resultado es una sólida síntesis, escrita con un estilo ameno, de algunos de los temas que el autor ha examinado en sus principales investigaciones: el nacionalismo vasco, el

partido heterodoxo ANV, la invención *jeltzale* de tradiciones como el *Aberri Eguna*, la II República, los sucesivos proyectos de autonomía, la Guerra Civil, la gestación del primer Gobierno Vasco, el papel de personajes como el peneuvista José Antonio Aguirre y el socialista Indalecio Prieto, el Estatuto de Guernica, el establecimiento de una Euskadi autónoma en el seno de una España democrática, el Pacto de Estella, etc.

Como confiesa en la Introducción, uno de los motivos que llevaron a De la Granja a sacar a la luz este libro fue la necesidad de defender la Historia (en singular y con

mayúscula, específica él). Aunque se trata de una disciplina académica que en España goza de buena salud, todavía sigue asediada por los embates combinados del desinterés mediático, la mala historia y la literatura histórica militante, a menudo vinculada a movimientos como el nacionalismo vasco radical y la extrema derecha. *La Euskadi Contemporánea* cumple con su cometido: es un ejemplo magistral de Historia. Además, se trata del excelente colofón de una trayectoria intachable de más de cuarenta años como investigador, profesor y maestro de historiadores como el que suscribe.

JOSEBA ZULAIKA

Aberriaren inpaseak

Joseba Zulaika pentsalariak liburu berria kaleratu du. *Aberriaren inpaseak* du izenburua (Alberdania, 2025). Bertan bere kezkak azaltzen ditu, bizi dugun egoeraren aurrean. Kezkak ugari azaltzen dira, ditugun galderak bezainbeste. Saiatu gara, dena dela, elkarriazketa atsegina izaten.

Felipe Juaristi:

Zer izan da zuretzat Renotik Euskal Herrira etortzea, han hainbeste urte igaro ondoren, hemen geratzeko asmoarekin?

Joseba Zulaika:

Itzulera bat izan da. Bidaia egin ondorengo itzuleraren metafora eman nahi izan diot. Berrogei urte edo gehiago kanpoan egon eta bueltan etorri naiz, hemen amaituko ditut urteak. Horrek esan nahi du berriro euskalduntzea, berriro euskara idatziarekin harremana sortzea, berriro, zalantza handiarekin, nire idazle egoera herri honetan eta testuinguru honetan, zein den aztertzea, ea nik oraindik ezer idaztekorik ba ote daukadan. Baina, hasteko, euskararen eta Euskal Herriaren egoera nik baikortasunez ikusten dut, zalantzarik gabe.

Pascalek idatzi zuen ez dela gauza bera koadro bat urrunetik edo hurbiletik begiratzea. Eta benetako toki bakarra zatiezi-neko puntua dela. Gainerakoak hurbilegi edo urrunegi daude, oso goian edo oso behean. Ikuspegiak erakusten du hori pin-turaren artean.

Urrunetik begiratu izan diot Euskal Herriari, eta ikuspegi horretatik idatzi izan dut. Agian, hemen bizi izan banintz ez nuen berdin idatziko. Urrunetik begiratuta idealizatzea erraza da, baina bestalde ez



daukazu hemengo presiorik idazterakoan eta libertade gehiagorekin egiten duzu lan. Hurretik bat-batean errealitateak harrapatzen zaitu, eta erantzunak behar dituzu, euskararen bilakaeraren aurrean, etorkinei buruz, edo zer egin zeure bizitzarekin. Neure egoera pertsonala dago hor, jubilatutako burges batena, Getarian. Egoerarik txukunena bilatu nahi duzu, alderdi positiboak aurkitu nahi dituzu. Euskararen egoera, adibidez; ni joan nintzen garaiarekin konparatuz, euskararen aurrerapausoak izugarriak izan dira; euskara bera asko gaurkotu eta malgotu eta biziberritu da. Nire euskara idatzia antigioalekoa gelditu zait eta ari naiz berriro gaurkotze lanetan.

Lehendik honako aldaketei begira, zer esanik ez ETaren dramaren amaierak zer suposatzen duen. Hori niretzat izugarrizko aldaketa da.

Oro har, hemengo bizimodua amerikarrarekin konparatuta, orokorrean, askoz ere gozoagoa da, askoz ere lagunkoi eta solidariagoa. Hemengo zerbitzuak, Osakidetza eta abar, ikusi besterik ez dago. Ni herri txiki batean bizi gabe egon naiz azkeneko berrogeita hamar urtean, eta Getaria bezalako herrian auzokideekin eguneroko tratuari, alderdi positibo asko ditu amerikarren gizartearekin konparaturik. Renon azken hogeitaz urteotan bizi ginen auzoan elkarrekin hitz egin genezakeen auzokide bakar bat ezagutzen genuen.

Bizitza guztian idazten aritu naiz eta jubilatutik itzultzean ez nekien idazten jarraituko ote nuen ere. Laster konturatu nintzen imajina ezina nuela idatzi gabe egotea. Baina zertaz idatzi? Hasiera batean ingelesez jarraitu nuen, handik eta hemendik eskatu zizkidaten dozena erdi bat artikulu osatuz. Baina azkar konturatu nintzen Getaria bezalako herri batean bizi izanik, gauzarik errealistarena idazle bezala bertako herriaren etnografia bat egitea zela. Antropologoentzat "etnografia" k esan nahi du komunitate baten pentsaera, sentiera, kultur trantsizioak ikertzea. Eta hor nago. Getariako kasuan itsasoarekin zerikusi estua du herriak eta egin dudana erabakirik onena herriko korura biltzea izan da, hor baitaude arrantzale jubilatutakoak. Lagun batek bultzatuta joan nintzen korura eta esan nuen neure artean, "Hementxe zaudek niri hitz egingo didaten jendeak". Horrela euren itsaso historiari jasotzeaz gain hogeitaz gizon eta hogeitaz emakumeen lagun-talde paregabea aurkitu nuen. Nire edadean lagunartea oso garrantzitsua da. Gero organista gabe gelditu ziren eta lan hori egiteko eskatu zidaten. Fede arazoei ez diet inportantziarik ematen. Bengoa jesuita sindikalistak erakutsi zidan Jesukristok agindu bakarria eman zuela:

"Bildu mahai ireki baten inguruan eta jan eta edan nire izenean". Horixe egiten dut nik nire koruko lagunekin eta pozik egoten naiz.

Getaria, beste edozein komunitate bezala, aldaketa handiak bizi dituen herria da, bere aberastasunekin eta bere arazoekin. Itsasoarekiko duen lilurari eusten dion arrantzale herria da. Badaramatzat hiru edo lau urte lan honetan; oraindik beste urte batzuk emango dizkit amaitu arte.

Neure egoera pertsonal honek eraman ninduen, aldi bat Javier Echeverriak eta Vilma Coccozek eskatu zidatenean "Euskal subjektuaren arrakalak eta inpaseak" gaiaz idaztera, beren "Crisis contemporáneas" sailaren barruan, Koldo Mitxelena aretoan aurkezteko. Hori idazten ari nintzela pentsatu nuen inpasearen gaia euskal kultura eta politika eta subjektibotasun osoari zabal zitekeela. Eta horixe egiteko hartu nituen hilabete batzuk. Inpase moduan ikusten dut gure herriaren egoera, baina baikortasunez. Baikortasunek honek "Euskal Herrian oso ondo bizi garela esateak, edo euskarak aurrerapen handiak egin dituela baieztatzeak" sorpresa sortzen du euskaltzale askoren artean, kasik eskandalua. Segituan erantsi behar duzu, bai baina, bai baina... Inpasearen formula.

Gramscik aldarrikatzen zuen borondatearen optimismoa. Baina Gramscik ere hegemoniaren teoria landu zuen, zuk *Aberriaren inpaseak* liburuan aipatzen duzun bezala. Azkeneko berrogei urtean euskaldunok pentsatu izan dugu euskara hegemonikoa izango zela gizartean. Eta euskararekin batera, euskararekin zerikusi zuen guztia, uste genuen literatura, euskal telebista nagusi izango zirela. Hori ordea ez da gertatu, hori errealtate bat da. Eta gure kezka guztiak, uste dut, hortik sortu direla.

Horren sustraian niretzako arrazoi inportante bat da soziolinguistikan ezjakinak ginela, ez genituela demolinguistikako lezio oinarrizkoak ezagutzen. Hogeita hamar urtean, Donostia edo Bilbo euskaldundu zitekeela imajinatu genuenean ez genekien ezer hizkuntzen martxaz, gure ezjakintasunak sortutako amets bat zen edo desioak sortutako fantasia bat. Lehenengo kulpaa geure ezjakintasunari bota behar diogu.

Baina horrekin batera, nik orain beste arrisku bat ikusten dut, etsipen edo pesimismoa jotzea; hori borondatearen ausardia falta da.

Aitortu beharra dago emandako aurrerapausoek euskararen gain-beheraren prozesu historikoa gelditu eta buelta eman diola. Gaur

egun hizkuntza ugari ari dira desagertzen. Kalkulatzen da mende honetan mila eta bostehun hizkuntza galduko direla. Euskara ez da izango horietako bat. Eta hori demasa da. Estatu gabeko nazioen artean salbuespen gisa ikusia ere izan da euskararen birbizitzea. Aldaketa historiko bat da.

Ezin da ukatu euskara minorizazio gorrian dagoela oraindik. Baina baikor izateko ere arrazoi asko daude. Motibazio subjektiboa izango da funtsezko, euskarak iraun nahi badu. Motibazioa eta helburu mugatu konkretuak, demolingustikan oinarrituak, horiek beteaz pixkanaka aurrera bagoazela ikusteko. Ez jarri helburu ezinezko bat, fantasiakoa, gero ez dugula lortu eta desanimatzeko.

Euskarari buruz esan beharra dago orain bezala ez dela inoiz idatzi. Orain dagoen euskara bezain jaso eta kultua ez da inoiz egon, oraingo euskara bezain irisgarri eta eskuragarria ere ez. Sekula ez ditugu izan oraingo medioak, ezta antzik ere, eta hala ere batzuek esaten dute euskara hilzorian dagoela. Ez dakit...

Aditu batzuek garrantzi handia ematen diote arnasguneei. Geta-ria horietako bat da; lehen ehuneko lauogeik hitz egiten bazuen, orain hirurogeita hamarrera edo jaitsi egin da, eta alarma sortu da. Nik ez dakit zenbateraino kontuan hartzen den urte horietan bertan emigrazioa ere ehuneko hamar igo dela. Arnasguneen premisa da gehiengo handi batek euskara hutsean hitz egitea. Ni ez naiz aditua hizkuntzalaritza gai hauetan baina orain berrogeita hamar hamar urte Bilbon euskara erakusten urteak egin nituen eta inoiz amestu izan dut xalotasun osoz, Atxagaren "euskal hiria" ireki eta pluralaren nozioari jarraituz, eta neure atzerriko esperientziak eraginda, hementik berrogeita hamar urtera Bilbo hirueledun bat ez ote den posible izango, non haur guztiek euskara, gaztelera eta ingelesa jakingo duten eta segun ze kontestu eta zertarako hiru hizkuntzak erabiliko dituzten.

Beste kontua, zuk liburuan aipatzen duzuna, identitatearena da, eta identitatea da kontu bat, normalean, kanpotik erabakitzen dena, kanpokoek erabakitzen dute gure identitatea. Hor ikusten dut kontraesan bat dagoela euskaldunak zer sentitzen duen, nola ikusten duen bere burua, eta besteek nola ikusten duten, nola begiratzen gaituzten. Oso interesgarria litzateke

etniari buruz hitz egitea, zuk liburuan egiten duzun bezala, edo tradizioaz.

Identitatea eta tradizioa nik inpase egoeran jartzen ditut. Adornoren gogoeta bat aipatzen dut, esaten duena: "Ez daukagu tradizio bat berari heldu eta gure gaurko egoera konponduko diguna, baina tradizio denak ukatzeak ere basakeriara eramaten gaitu". Identitatea eta tradizioa behar ditugu, baina inpase bihurtu litezke. Burgesiak gogoko du tradizio neutralizatu hori manipulatu eta soluzio bezala aurkeztea ere, lehengo edozer erlikia fetitxe bihurtuz, iragana gorai-patuz, oraina alda ez dadin.

Bestalde, zu Gazan baldin bazaude beharrezkoa duzu identitate palestinar bati eustea, nola hala gizarte gisa irauteko bizi duzun garbiketa etnikoaren erasopean. Baina identitate bihurtzen baduzu zure arma bakarra, zure fetitxea, orduan enbarazu izatera iritsiko da. Artistak dira eredu onenak nola erabiltzen duten tradizioa eta identitatea, hausteko, aldatzeko, berregiteko.

Identitateak gaur egun konplexuak dira. Ez gara euskaldunak soilik, zerbait gehiago ere bagara beti. Gazan eta herri setiatuetan behar duzu komunitate kontzeptu bat bizi irauteko, baina Euskal Herri europar zabal honetan?

Komunitate edo nazio kontzeptuek, denek dauzkate barruko arrakalak eta barruko tirabirak, hori da nire gogoeta. Ez genuke antagonismo moduan ikusi behar dena, euskaldunak versus espainolak eta abar. Gaur egun alderdi abertzaleak ere Madrilen sozialistekin negoziatzen ari dira, nahiz eta helburu politikoak desberdinak izan. Zure helburuak eta nireak ezberdinak dira, baina negoziatu dezagun. Inpase sortzaile baten egoera da hori.

Problema dena, edo izan daitekeena, bide batez soluzio bihurtzen da; katalanak eta euskaldunak problema dira Madrilen Espainiaren batasunerako, harmonizaziorako, baina problema diren horiek berak soluzioa ere izan daiteke sozialisteei ahalbidetzen badie gobernu pluralago eta aurrerakoi bat eraikitzen.

Identitateak malgutu egin dira eta, azkenean, pragmatismoa ere badago: aurrera jotzeko akordioa egon behar dela. Inpaseak geldiarazten zaitu edo jauzi bat egitera bultzatzen zaitu, eta jauzi horrek pragmatikoa behar du izan, aurrerapauso bat. Liburuan, momentu batean esaten dut, nazionalista izan, edo sozialista, edo kristau, edo iraultzaile,

lehen subjektu trinkoak zirenak, gaur egun oso ahuldutako subjektuak dira, arrakalaz eta inpasez zeharkatuta daudelako. Baina subjektu malguago hauek errazago egokitu daitezke aliantza eta proiektu kultural berrietara, gaur egun hegemonia guztiak zalantzan daudenean.

Liburuan oso interesgarria da egiten duzun analisia bertsolaritza eta feminismoaz. Horrelakorik aplikatu daiteke gizartean ere. Feminismoak azkeneko urte hauetan hartu duen indarra oso da aipagarria.

Subjektu berriak sortzen ari direla Euskal Herrian: feminismoa da kasurik nabarmenena. Feminismoak, bai bertsolaritzan bai alardean, inpasean jarri gaitu gizonezko ugari. Gizarte tradizional patriarkalak emakumeari ematen zion lekua –etxean, familian, profesioetan, sor-kuntzan– eztabaidan jarri du feminismoak. Bertsolaritzaren publikoa gizonezko tradizional horrena izan da gehienbat azken bi hamarkada aurretik. Emakumeak gizonen pare jarri dira oholtzaren gainean, eta emakume-ikuspegitik kantatzen hasi direnean, ohiturik ez gauden bertsolaritza hau lehengoarekin konparatzen hasten gara. Bertsolari eurenzat ere inpaseak sortzen ditu, zer neurritan aurkeztu behar dituzten beren buruak feminista gisa ala ez.

Alardearen arazoak azaltzen du zein zaila den generoaren inguruko mentalitate tradizional hori aldatzea, zer zaugarri sentitzen garen gizonezkoak geure maskulinitate-maskara hori kuestionatzen bazaigu. Nahikoa da alarde batean gizonezkoak eskusiboki armarekin joatea zalantzan jartzea, emakumeek ere badutela horretarako eskubidea baieztatzea, erabat ofendituak eta zaugarri sentitzeko. Erreakzio biolentoak adierazten du kultura tradizionaleko genero-ideologia hori zein barneratua dagoen. Inpasean jarri beharra zegoen ideologia hori, nahiz eta oso deseroso izan. Betiko alardekoek tradizioaren aurkako mehatxu existentzial bezala hartu zuten feministen parte-hartzea; antagonismo erabatekoarekin erantzun zuten; antagonismoak ez du konponbiderik nahi izaten. Feministek inpasea mantendu dute, egoera berri inklusibo baten zain.

Gizarte femenino batera goaz, ikusi besterik ez datuak literaturan, kultura ekitaldietan. Gazteen artean ere kontzientzia hori dago, emakumeak gehiago direla, onerako edo txarrerako...

Feminismoa da mende honetako ezaugarrietako bat. XX. mendean erlijioarekiko lilura izan zen bezala. Gaurko ideologian

oinarriturik epaitu al daiteke aurreko mendeetan gertatutakoa? Eta epaitzekotan, nola epaitu? Izan ere, Elkanoren kasua aipatzen duzu liburuan.

Elkanoren kasua, liburuan aipatzen dena, bizi-bizi dago Getarian. Herriak Elkano bere ikur bezala hartu izan du Getarian, historian zehar: herriko gizona da, munduari lehen bira eman ziona. Horren inguruan egon da identifikazio bat Elkanorekin.

Himnoa dago, koruak kantatzen duena; bi estatuak daude bereak herrian eta Elkanoren presentzia handia da. Betiko narratiba honen kontra, Elkano "herri lotsa" bezala hartzen dutenen diskurtso antikolonial berria sortu da.

Elkanoren lurreratzearen antzezlan egiten da lau urtetik behin. Elkanok bere lagunekin funtsean naufrago baten irudia bereganatzen du, kandela batekin elizara balantzaka doana, amabirjinari egingdako promesak betetzera. Naufragoaren figura tragikoa presentzia indartsua da arrantzale herri batean, naufragio asko gertatu baitira eta zorigaitz asko bizi. Elkanoren lau urtetik behineko lurreratzeak itsasoko bizibide garratzaren ospakizun bat ere bada beraz. Herriko ohitura bihurtu da jai hori eta jendea emozionatu egiten da antzezlari horrekin. Nik etnografo gisa errespetua diet holako herri-ohiturei. Baina ikuspegi antikolonialista kritiko batetik (eta ikuspegi hau ere oso da beharrezkoa betiko narratiba historikoen aurrean) erraza da garai hartako esklabismoarekin lotzea edozein euskal merkataria, nahiz eta ez dagoen ebidentziarik Elkanok berak inoiz esklaborik izan ote zuen. Errege espainolaren alde borrokatu zuela ere leporatzen zaio, baina historialariek diote orduko merkatarien eta errege espainolen arteko harremanak oso zirela behartuak sarritan. Bi jarrera historiko kontrajarri hauen arteko tirabiran herritarrek erdian harrapatuak sentitzen dira. Inpase horretan pragmatismoak bultzako du herria tradizioari egin behar zaizkion aldaketak egitera edo tradizio berriak sortzera.

Miles Davis oso musiko maitagarria dut, baina jakin denez, oso gaizki tratatu zituen berarekin bizi izan ziren emakumeak. Zer egin kasu honetan? Miles Davisen diska guztiak harrika bota?

Ni kantzelaio-kulturaren aurka nago. Helburuak onak ditu –dibertsitatea eta inklusioaren alde borrokatzea– baina azken batean ezkerria

bere teilatuaren aurka harriak botatzen ari da kultura mota horrekin. Inklusioa predikatzen du baina eurak definitzen duten inklusioa onartzen ez dituztenak printzipioz baztertuak gelditzen dira. Ezkerraren baitan garrantzia gutxiko gaietan desadostasunak sortzeko balio du kantzelarzio-kulturak. Adibidez, Elkanoren festakizuna ospatu ala ez Getaria batean: hori eztabaida nagusi bihurtzeak esan nahi du arazo askoz garrantzizkoagoak –inmigrazioa, etxebizitza, emakumeen parekotasuna– baztertu egiten direla lehentasunetik.

Ezin dugu pentsatu artea, edertasuna, egia edo, dena delako hori, lortu nahi duena beti izango dela ederra, ona, egia.

Ikuspegi psikoanalitikoa garrantzitsua da gai hauetan. Freudek edo Lacanek, subjektuari begiraturik, subjektuak bere baitan haustura eta kontraesana duela, bere baitan desioa duela aldarrikatu zuten. Haustura hori ez onartzea ere errealitatea bere gordinean ez ikustea da. Horrek ez du justifikatzen matxismorik. Halere, egoera desberdinetan pertsona batek izan ditzake jokaera normalak edo alderantziz terripleak. Onartu behar da edozein subjektuk barruan dauzkala bere kontraesanak. Idazle edo artista ona izateak ez du esan nahi bat beti pertsona ona denik.

Zuk ETArekin hautsa idatzi zenuen orain urte batzuk. Ameriketarik etorri zara, eta ETA ez dago jadanik, sinbolo bat izango da, edo nahi dena, baina ETA ekintzailerik ez dago. Nola ikusten duzu gaurko egoera, ETA desagertu ondoren, nola uste duzu moldatu dela gizartea egoera berriaren aurrean?

Nire belaunaldiko askok bezala, ETArekin drama zama handi bat bezala bizi izan dut, eta hori izan da nire idazlanaren parte handi bat. Lan horrek arazoak ekarri dizkit, modu askotakoak, bi alderdietatik. ETAk bere jarduna amaitzea niretzat askatasun handia izan zen.

ETArekin inguruko subjektu politiko hark prest egon behar zuen hiltzeko edo bizitza emateko. Nahiz eta ez ginen ETAn sartu, inguruan ibili ginen askok subjektu hori geure egin genuen. ETArekin kontrako ekitaldietara ez ginen joaten, zeren guk ere subjektu hori barneratuta geneukalako. Hori amaitzean, subjektibotasun mota horren akabera izan zen.

Antropologia-idazleengan, ikertzen dituzten zenbait erakunde "barbaro"en aurrean, jarrerarik ohikoena hau izaten da: "Nire egitekoa munstroei begira egon eta aztertzea da, ez munstroak bezatzea". ETArekin

aurrean nik ere jarrera hori izan nuen funtsean. Baina azkeneko urteetan antropologo gisa idazteari utzi nion eta urteak joan ahala postura kritikoa hartu nuen. Ez nuen jada antropologo gisa idatzi nahi, hiritar gisa baizik. Horrela idatzi nuen *ETAren hautsa*. Ordurako indarkeriak ez zeukan justifikaziorik, Isaak hiltzen jarraitzea zen.

Aldaketa horretara iristeko antropologoaren inpaseak harrapatu ninduen ni ere: beste gizarte "primitibo"etan onartzen dugun idazketa antropologikoa (munstroei begira gelditu havengandik kulturaz eta gizakiaz ikasteko) jada ezin nuen onartu, neure gizarteari buruz idaztean.

ETA amaitu ondoren errelatoen borroka egon da

Nola begiratu atzera orain gure belaunaldiak frankismo garaitik gaur arte egin duen bideari? Bi subjektu klase jartzen ditut nik, izenda daitezkeenak, bata subjektu erreaktiboa, eta bestea subjektu berregina. Alain Badiou Frantziako filosofoa da, eta hark beste filosofo gazteago batzuei egin zien kritikan bereizten ditu bi subjektu horien arteko aldea. Erreaktiboa pentsatzen du iraultzaren asmoak porrot egin ondoren jokabide hura hutsegite bat izan zela, basakeria besterik ez. Subjektu berreginak aitortuko du erruak egin zirela eta porrotean amaitu, baina intentzio politikoak bere arrazoiak zituela. Leninista baldin bazara, Leninek bere iraultza-proiekturako asmoetan bazuela arrazoirik ikusiko duzu, nahiz eta gero berak proposatuko bidea katastrofean amaitu izan. Neurri batean han zegoen iraultza-proiektu hura gaurkotu daiteke, erru haiek eta biolentzia hura baztertuz. Hori da Badiou eta Zizek bezalako pentsalariek diotena.

Gure kasuan ere, ETAr buruz errelato kontrajarriak egin daitezke. Dena disparate basati bat izan al zen? Edo subjektu berregin batek ikus lezake hasiera batean derrigortasun baten aurrean geundela, frankismoaren kontra egin behar zelako eta horrek armak hartzeko justifikazioa ematen zuelako. Hor genituen Sartre edo Foucault bezalako pentsalariek biolentzia iraultzailea defendatzen zutenak. Baina iritsi zen une bat, non dena perbertitu zena. Subjektu berreraiki horrek behartzen du ETA bera desagertzera, eta haren ondare politikoa modu politikoan bideratzera. Horren aurrean, nik neuk ere subjektu politiko berregile moduan ikusten dut neure burua. Gure belaunaldiak premia historiko bat sumatu zuen, derrigorrezkoa zen erresistentzia egitea faxismoari. Demokrazia ondoren borroka armatua ez baztertzea, hori izan zen gure belaunaldiaren porrot intelektuala eta politikoa.

COLABORADORES / PARTE HARTU DUTE

Jon Sudupe Martija. Escritor, ensayista. Autor de *Lucyrengandik Kantengana/ De Lucy a Kant* (2022).

Idazlea, saiogilea. *Lucyrengandik Kantengana* (2022) liburuaren egilea.

Jokin Muñoz Trigo. Es diplomado en Magisterio y licenciado en Filología Vasca. Destacan entre sus obras: *Antzararen bidea* (2007). Esta última novela ganó el Premio de la Crítica y el Premio Euskadi en 2008. Se publicó en castellano con el título de *El camino de la oca*. En 2003 publicó el libro de relatos *Bizia lo, Letargo* en la edición en castellano. (Premio Euskadi en 2004). Su última obra es *Quiero ver* (2023).

Magisteritzan diplomatua eta Euskal Filologian lizentziatua da. *Hausturak* (1995), *Joan zaretenean* (1997) eta *Antzararen bidea* (2007) nobelen egilea da. Azken nobela honek Kritikaren Saria eta Euskadi Saria irabazi zituen 2008an. 2003an *Bizia lo* narrazio liburua publikatu zuen (Euskadi Saria 2004an) 2022an literatur mundura itzuli zen *Sin tocar el suelo* nobelarekin. Urtebete geroago *Quiero ver* nobela publikatu zuen.

Gabriel Insausti. Catedrático de Filología. Doctor en Filología Hispánica y en Filología Inglesa, Master of Arts en Historia del Arte y en Filosofía. Ha editado y traducido a numerosos autores y ha publicado novela, diarios, poemas en prosa, poesía, aforismos, libros de viajes y ensayo. Ha recibido numerosos premios.

Filologian katedraduna. Filologia Hispanikoan eta Ingeles Filologian doktorea, Artearen Historiako eta Filosofiako Master of Arts-en. Hainbat autore editatu eta itzuli ditu, eta eleberririak, egunkariak, prosazko poemak, poesia, aforismoak, bidaia-liburuak eta saiakerak argitaratu ditu.

Manu Gojenola. Economista (Universidad de Deusto). Ha escrito sobre la obra literaria de su primo Mario Onaindia, así como una biografía suya (*Euskera; Grand Place*). Ha reunido algunos trabajos sobre él en su libro *Mariorenak* (Hiria, 2013). Ha publicado algunos libros sobre música vasca. Así como algunos trabajos en euskara suletino.

Ekonomilaria (Deustuko Unibertsitatea). Mario Onaindia lehengusuaren literatur lanetaz eta haren biografia idatzi du (*Euskera; Grand Place*). *Mariorenak* (Hiria, 2013) liburuan bildu zituen lan batzuk. Euskal musikaz liburu batzuk argitaratu ditu. Zuberotarrez ere atera ditu lan batzuk.

Ana Eskuriaz. Graduada en Historia y Periodismo por la Universidad de Navarra y doctora en Historia Contemporánea por la Universidad del País Vasco. Actualmente trabaja como investigadora y docente en la Universidad de Navarra, tanto en grado como en el máster en Cristianismo y Cultura Contemporánea.

Historian eta Kazetaritzan Graduatua, Nafarroako Unibertsitatean, eta Historia Garaikidean doktorea, EHU. Gaur egun, ikerlari eta irakasle gisa dihardu Nafarroako Unibertsitatean, bai graduari, bai Kristautasun eta Kultura Garaikideko masterrean.

Antonio Rivera. Catedrático de Historia Contemporánea en la Universidad del País Vasco. Director del Instituto de Historia Social Valentín de Foronda y miembro del patronato de la Fundación Fernando Buesa Fundazioa. Es Investigador Principal del Grupo del Sistema Universitario Vasco "Nacionalización, Estado y violencias políticas. Estudios desde la Historia Social".

Historia Garaikideko katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean. Valentín de Foronda Gizarte Historiaren Institutuko zuzendaria eta Fernando Buesa Fundazioaren patronatuko kidea. "Nazionalizazioa, Estatua eta indarkeria politikoak" euskal unibertsitate-sistemako taldeko ikertzaile nagusia da. Gizarte Historiatik egindako ikasketak".

David Mota Zurdo. Profesor titular de historia contemporánea de la Universidad de Valladolid. Sus líneas de investigación son el exilio vasco, los servicios de inteligencia, los nacionalismos, la violencia política, la cultura popular y la historia del deporte.

Valladolideko Unibertsitateko historia garaikideko irakasle titularra. Bere ikerketa ildoak euskal erbestea, inteligentzia zerbitzuak, nazionalismoak, indarkeria politikoak, herri kultura eta kirolaren historia dira.

Iñaki Vázquez Larrea. Licenciado en Geografía e Historia por la Universidad de Salamanca. Especialidad, Historia Contemporánea. Diploma de Estudios Avanzados en Cultura y Sociedad (Antropología y Filosofía). Universidad del País Vasco. Doctor en Filosofía y Antropología Social por la Universidad del País Vasco.

Geografia eta Historian lizentziatua Salamancako Unibertsitatean. Espezialitatea: Historia Garaikidea. Enpresa Zientzietan diplomaduna (Enpresa Zientziak). Euskal Herriko Unibertsitate. Filosofia eta Gizarte Antropologian doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean.

Pedro Alberdi. Profesor, escritor. Ha publicado literatura infantil, ensayo, narración. Entre sus títulos destacan: *Satorrak baino lurperago* (Más abajo que los topes) (2000) y *Carlos esaten zioten gizona* (Alberdania, 2009).

Irakaslea, idazlea. Haur literatura, saiakera eta narrazioa argitaratu ditu. Bere izenburuen artean honako hauek nabarmentzen dira: *Satorrak baino lurperago* (2000) eta *Carlos esaten zioten gizona* (Alberdania, 2009).

Sara Hidalgo. Doctora en Ciencias Políticas. Su actual línea de investigación es el impacto del terrorismo de ETA en la sociedad y política vascas. Autora de *Los resistentes. Relato socialista sobre la violencia de ETA (1984-2011)* o *Resistencia socialista en femenino. Violencia de ETA y mujeres del PSE desde la Transición hasta 2011*. Actualmente es profesora de Historia Contemporánea en la Universidad del País Vasco y miembro del Instituto de Historia Social Valentín de Foronda.

Zientzia Politikoetan doktorea. Egungo ikerketa-ildoak ETArek terrorismoak euskal gizartean eta politikan duen eragina da. *Los resistentes* liburua-ren egilea. ETArek indarkeriari buruzko kontakizun sozialista (1984-2011) edo *Resistencia socialista en femenino. Violencia de ETA y mujeres del PSE desde la Transición hasta 201*. Gaur egun, Historia Garaikideko irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Valentín de Foronda Gizarte Historiako Institutuko kidea.

Juan Ramon Makuso. Estudió filosofía, es profesor y poeta por afición. Es uno de los fundadores de la editorial Balea zuria. Su último libro: *Haragi Hosto* (Balea Zuria, 2021).

Ikasketaz filosofo, lanbidez irakasle, afizioz poeta. Balea Zuria argitaletxearen sortzaileetako bat. Azken liburua: *Haragi Hosto* (Balea Zuria, 2021).

Julia Otxoa. Poeta y narradora. Su creación se extiende al campo de la poesía visual, la fotografía y las artes plásticas en general. Su obra con más de treinta títulos publicados en poesía, narrativa y literatura infantil, ha sido traducida a varios idiomas, e incluida en diversas antologías. Su última publicación, el libro de poemas *Bajo los astros de la repetición* ganó el Premio Euskadi en el año 2024.

Poeta eta narratzailea. Bere sorkuntza ikusizko poesiara, argazkigintzara eta, oro har, arte plastikoetara hedatzen da. Poesia, narratiba eta haur literaturan hogeita hamar izenburu baino gehiago argitaratu zituen, eta hainbat hizkuntzatarantz itzuli zen, hainbat antologiatan. Bere azken argitalpenak, *Bajo los astros de la repetición* poema-liburuak, Euskadi Saria irabazi zuen 2024an.

Eli Tolaretxipi. Poeta, traductora y profesora. Ha escrito los libros de poesía: *Ojo Suelto* (Gato Encerrado, Toledo, 2023), *Clapotis* (Trea, Gijón, 2022), *Incidental* (Trea, Gijón, 2017). *Edgar* (Trea, Gijón, 2013). *El especulador* (Trea, Gijón, 2009), *Los lazos del número* (Bassarai, Vitoria, 2003), *Amor muerto-Naturaleza muerta* (Bassarai, Vitoria, 1999).

Poeta, itzultzailea eta irakaslea. Olerki liburuak idatzi ditu: *Ojo Suelto* (Gato Encerrado, Toledo, 2023), *Clapotis* (Trea, Gijón, 2022), *Incidental* (Trea, Gijón, 2017). *Edgar* (Trea, Gijón, 2013). *El especulador* (Trea, Gijón, 2009), *Los lazos del número* (Bassarai, Gasteiz, 2003), *Amor muerto - Naturaleza muerta* (Bassarai, Gasteiz, 1999).

Luisa Etxenike. Ha publicado las novelas *Cuerdas*(2025), *Llevar en la piel* (Premio Memorial Silverio Cañada 2024), *Cruzar el agua* (2022), *Aves del paraíso*(2019), *Absoluta presencia* (2018), *El detective de sonidos* (2011), *El ángulo ciego* (Premio Euskadi 2009), *Los peces negros* (2005), *Vino* (2000), *El mal más grave* (1997) y *Efectos secundarios* (1996), las colecciones de relatos *Ejercicios de duelo* (2001), y *La historia de amor de Margarita Maura* (1990); y el poemario *El arte de la pesca* (2015).

Poeta, itzultzailea eta irakaslea. Olerki liburuak idatzi ditu: *Ojo Suelto* (Gato Encerrado, Toledo, 2023), *Clapotis* (Trea, Gijón, 2022), *Incidental* (Trea, Gijón, 2017). *Edgar* (Trea, Gijón, 2013). *El especulador* (Trea, Gijón, 2009), *Los lazos del número* (Bassarai, Gasteiz, 2003), *Amor muerto - Naturaleza muerta* (Bassarai, Gasteiz, 1999).

Pello Otxoteko. Ha trabajado en poesía, traducción y crítica literaria. Es cofundador de la editorial Balea Zuria. Ha realizado la traducción del poeta chino Li Bai, junto a Albert Galvany. Último libro de poesía: *Itsas bizimina* (La Ballena Blanca, 2019. Recibió el Premio de la Crítica con ese libro.

Poesia, itzulpena eta literatur kritika landu ditu. Balea Zuria argitaletxearen sortzaileetako bat da. Li Bai poeta txinatarraren itzulpena burutu du, Albert Galvanyrekin batera. Azken poesia-liburu: *Itsas bizimina* (Balea Zuria, 2019. Kritika Saria jaso zuen liburu horrekin.

Xosé M. Núñez Seixas. Sus últimas publicaciones son: *The Spanish Blue Division on the Eastern Front, 1941-45: War Occupation, Memory. Volver a Stalingrado. El frente del este en la memoria europea, 1945-2021* (Galaxia Gutenberg, 2022), *Beyond Folklore? The Franco Regime and Ethnoterritorial Diversity in Spain (1930-1975)* (Routledge 2023).

Compostelako Santiagon Historia irakasle. Azken argitalpenak. *The Spanish Blue Division on the Eastern Front, 1941-45: War Occupation, Memory. Volver a Stalingrado. El frente del este en la memoria europea, 1945-2021* (Galaxia Gutenberg, 2022), *Beyond Folklore? The Franco Regime and Ethnoterritorial Diversity in Spain (1930-1975)* (Routledge 2023).

Xabier Zabaltza Pérez-Nievas. Es profesor de Historia Contemporánea de la Universidad del País Vasco. Especializado en la historia del nacionalismo y de las lenguas. Entre los libros que ha publicado destacan: *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos* (2005), *Una historia de las lenguas y los nacionalismos, Gu, nafarrok* (2007 y 2009, en euskera y castellano), *Agosti Xaho, aitzindari bakartia* (2011, en euskera, castellano y francés).

Euskal Herriko Unibertsitateko Gaur Egungo Historiako irakaslea da. Nazionalismoaren eta hizkuntzen historian espezializatua., Argitaratu dituen liburuen artean aipagarriak dira: *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos* (2005), *Una historia de las lenguas y los nacionalismos, Gu, nafarrok* (2007 eta 2009, euskaraz eta gaztelaniaz), *Agosti Xaho, aitzindari bakartia* (2011, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez).

Raquel Medina. Doctora por la University of Southern California, ha impartido clases en la University of Massachusetts Amherst y en Aston University (Reino Unido). Actualmente, es investigadora visitante en Aston University y decana de Estudios de Área en IES Abroad Barcelona. En 2023 recibió el Premio Victoria Urbano a la Trayectoria Académica Destacada.

University of Southern Californiako doktorea, University of Massachusetts Amherst-en eta Aston University-n (Erresuma Batua) eman ditu eskolak. Gaur egun, ikertzaile bisitaria da Aston Universityn, eta Arloko Ikasketen dekanoa Bartzelonako Abroad BHI-n. 2023an, Ibilbide Akademiko Nabarmenaren Victoria Urbano Saria jaso zuen.

María Pilar Rodríguez. Doctora por la Universidad de Harvard, ha impartido clases en Columbia University y actualmente es profesora en la Universidad de Deusto. Es la Investi-

gadora Principal del equipo Comunicación. Cuenta con 150 publicaciones en estudios sobre comunicación, literatura y estudios de género. En 2023 ocupó la Cátedra Bernardo Atxaga en CUNY.

Harvard Unibertsitateko doktorea da, Columbia Unibertsitatean eman ditu eskolak eta gaur egun Deustuko Unibertsitateko irakaslea da. Komunikazio taldeko ikertzaile nagusia da. 150 argitalpen ditu komunikazioari, literaturari eta genero-ikerketei buruzko azterlanetan. 2023an Bernardo Atxaga Katedra hartu zuen CUNYn.

Annabel Martín es catedrática en el Departamento de español y portugués, y de los Programas de Literatura Comparada y Estudios de la Mujer, Género y Sexualidades de Dartmouth College (USA. Ha abordado extensamente el nacionalismo, la memoria histórica, y la violencia terrorista y reconciliación en el contexto vasco, entre otros muchos temas. En 2019 ocupó la Cátedra Bernardo Atxaga en CUNY (Gobierno Vasco).

Katedraduna da Dartmouth Collegeko (AEB) Gaztelania eta portugés Departamentuan eta Literatura Konparatuko eta Emakumearen, Generoaren eta Sexualitateen Ikerketetako Programetan. Luze eta zabal jorratu ditu abertzaletasuna, memoria historikoa, indarkeria terrorista eta adiskidetzeari euskal testuinguruan, beste gai askoren artean. 2019an, Etxepare Institutuko (Eusko Jaurlaritzan) CUNYn.

Gaizka Fernández Soldevilla. Trabaja en el Área de Archivo, Investigación y Documentación. Fundación Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo.

Artxibo, Ikerketa eta Dokumentazio arloan egiten du lan. Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroa Fundazioa.

Joseba Zulaika.

Antropólogo. Ha escrito numerosos ensayos sobre cultura y sociedad vascas, así como sobre terrorismo y contrterrorismo. Ha sido investigador en el Centro de Estudios Vascos de la Universidad de Nevada, Reno, USA. Actualmente reside en Getaria (Gipuzkoa). Su último libro publicado es *Aberriaren inpaspeak* (2024).

Antropologoa. Saiakera ugari idatzi ditu euskal kultura eta gizarteari buruz, baita terrorismoari eta kontrterrorismoari buruz ere. Ikertzailea izan da Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroan (Reno, AEB). Gaur egun Getarian (Gipuzkoa) bizi da. Argitaratutako bere azken liburua, *Aberriaren inpaspeak* (2024).

